



Akta honen osagarri bilkurako irudiak eta audioa grabatu dira.
Honako hau da ondoriozko artxiboaren identifikazio kodea:

f0a9cc90cf705527c44cc8aa8472fa367376716139caf8fd9ae88db6f0242c1a

Lotura honetan dago: <https://udala.tolosa.eus/eu/zerbitzuak/idazkaritza/udal-plenoetako-aktak>

TOLOSAKO UDALBATZAK 2024KO URRIAREN 31AN EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAKO AKTA

2024.10.31

Tolosako Udaletxean, 2024ko urriaren hogeita hamaikan, 18:30ean, lehen deialdia egin ondoren, Udaltzako Batzordeak Ohiko Osoko Bilkura egiteko. Mahaiburu Korporazioko alkate-lehendakari Angel Martinez de Rituerto Arregui izan da, eta eguneko gai-zerrenda aztertzeko, udal batzarkide hauek agertu dira:

Alkate-lehendakaria:

Angel Martinez de Rituerto Arregui (EH BILDU)

Bertaratutako zinegotziak:

Estitxu Kortejarena Ugarte(EH BILDU)

Goiuri Ezeiza Arandia(EH BILDU)

Ander Figuerido Zubiria(EH BILDU)

Josune Sanz Vidal(EH BILDU)

Aitor Agirresarobe Murgi(EH BILDU)

Kristina Pelaez Errazkin(EH BILDU)

Aitzol Garcia Azurmendi (EH BILDU)

Garbiñe Marzol Ormazabal(EH BILDU)

Xarles Iturbe Pasaban(EAJ-PNV)

Biotza Agirre Ugalde(EAJ-PNV)

Leire Zubeldia Rezola(EAJ-PNV)

Javier Zabala Sastre(EAJ-PNV)

Ainhoa Dominguez Landa(EAJ-PNV)

Patxi Amantegi Zubiria(EAJ-PNV)

Iker Uson Gonzalez(EAJ-PNV)

Ez bertaratutako zinegotzia:

Jose M^a Villanueva Telleria (PSE-EE-PSOE)

Idazkaria:

Begoña Garmendia Vazquez

Kontuhartzaile akzidentala:

Paulino Alonso Eraso

Eguneko gai-zerrenda

1. Akta hau onartzea:
2024ko irailaren 26ko ohiko osoko bilkurakoa.



2. Javier Zabala Sastre jaunak Zinegotzi kargua hartzea.
3. Onartzea 2024ko lanpostuen zerrendaren aldaketa.
4. Onartzea Tolosako udal-eraikinak eta hiri-altzariak garbitzeko zerbitzu-kontratuaren luzapena.
5. Onartzea Tolosako kaleak garbitzeko zerbitzu-kontratuaren esleipena.
6. Tolosako HAPOko «24.IURRE» hirigintza-esparruaren aldaketa puntuala, bertan Tolosaldeako Ospitalea kokatu ahal izateko. Hasierako onespena.
7. «13 Laskoain» esparruko «13.1 San Frantzisko pasealekua 37» azpiesparruko xehetasun-azterketaren eta azpiesparrua egikaritzeko araubidearen aldaketaren hasierako onespenaren ondotik aurkeztu diren alegazioak erantzutea eta behin betiko onespena ematea.
8. Bigarren aldaketa“20.1 Amarotz Paper-Fabrika” azpiesparruari buruzko hiri-antolamenduko plan bereziari (ohiko ingurumen ebaluazio estrategikoaren mende). Behin betiko onespena ematea.
9. Onartzea Tolosaldeko Taxiaren Jardunbide Bereziko Zonaldeko ordezkariak egindako proposamena.
10. Onartzea zerbitzuak eman edo jarduerak egiteagatik ordaindu beharreko prezio publikoak arautzen dituen ordenantzaren aldaketa.
11. Onartzea herri-jabari publikoaren erabilera pribatiboari eta haren aprobetxamendu bereziari dagozkien tasen ordenantza fiskalarena aldaketa.
12. Onartzea zerbitzu publikoak eskaini eta jarduerak egiteari dagozkion tasak arautzen dituen ordenantzaren aldaketa.
13. Onartzea ordenantza orokorraren aldaketa, zergak eta udal zuzenbide publikoaren bestelako sarrerak kudeatzeko eta biltzeko ordenantzaarena, alegia.
14. Onartzea hiri-izaerako lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskalaren aldaketa.
15. Onartzea ondasun higieizinei buruzko zerga erregulatzen duen ordenantza fiskalaren aldaketa.
16. Onartzea trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskalaren aldaketa.
17. Onartzea Tolosako Udaleko 2023-2025 Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren aldaketa.
18. Hasierako onarpena ematea 2024ko dirulaguntzen eranskina aldatzeko 3-2024 proposamenari.
19. Hasierako onarpena ematea 12/2024 kreditu-aldaketarako espedienteari, kreditu gehigarrien modalitatean.
20. 2024/2359 Dekretuaren berri ematea: Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra «11. San Esteban» hirigintza esparruko aldaketa puntuala.



21. Honen berri ematea: Tolosako HAPOko "20.1. Amarotz Paper-Fabrika" hirigintza azpierzemuko 2.2 lursailean bizitegi errentamendu iraunkorreko araubide orokorrean babes publikoko etxebizitzaren sustapena ahalbidetzeko, "Vivienda de Suelo de Euskadi S.A. - Euskadiko Etxebizitza Eta Lurra Ea" sozietatearekin lankidetzeta-hitzarmenaren behin betiko onespena.
22. 10/2024 kreditu-aldaketaren berri ematea, kreditu gehigarrien modalitatean.
23. 11/2024 kreditu-aldaketaren berri ematea, kreditu gaikuntzaren modalitatean.
24. Galderak eta eskaerak.

Alkate-lehendakariak batzarrari hasiera eman dio gai hauek aztertzeko:

1. AKTA HAU ONARTZEA:

2024KO IRAILAREN 26KO OHIKO OSOKO BILKURAKOA.

Izenburuan aipatutako akta aztertu dute. Batzarkideek aho batez onartu dute.

2. JAVIER ZABALA SASTRE JAUNAK ZINEGOTZI KARGUA HARTZEA.

Berlaratutakoei jakinarazi zaie Hauteskunde Batzorde Nagusiak, 2024ko urriaren 17an egindako agiriaren arabera, Tolosako Udaleko zinegotzi izendatu duela Javier Zabala Sastre, EUZKO ALDERDI JELTZALEA-PARTIDO NACIONALISTA VASCO taldearen izenean.

Izendapen berriaren arrazoia da Xabier Balerdi Tolosa jaunak bere zinegotzi karguari uko egin izana. Ontzat eman zuten hori 2024ko irailaren 26ko Osoko Bilkuran.

Izendatu berria izan denak aitortu du hautaezintasun arrazoirik ez duela zinegotzi kargua hartzeko, eta betetzen dituela gainontzeko baldintza guztiak.

Ondoren, udal idazkariak, 5/1985 Lege Organikoak, ekainaren 19koak, Hauteskundeetako Araubide Orokorra arautzen duenak, 108.8 artikuluan xedaturikoa betez, honako hau irakurri dio:

"Zin egiten duzu edo hitz ematen, zure kontzientziagatik eta ohoreagatik, Erregeari leial izanda, zintzo beteko dituzula zinegotzi karguaren obligazioak, eta Konstituzioa bete eta betearaziko duzula, Estatuaren oinarritzko araua delako?"

Zinegotziak honela erantzun du: *"Bai, legeak aginduta"*.

Segidan, Javier Zabala Sastre jaunak Tolosako Udaleko zinegotzi kargua jabetzan hartu du, EUZKO ALDERDI JELTZALEA-PARTIDO NACIONALISTA VASCO taldearen izenean.



3. ONARTZEA 2024KO LANPOSTUEN ZERRENDAREN ALDAKETA

Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorraren 2024ko urriaren 23ko irizpena
IKUSIRIK

Lehena.- Tolosako udalbatzak 2022ko abenduaren 15ean egindako bilkuran funtzioen katalogoa, lanpostuen balorazioa eta lanpostu zerrenda onartu zituen. Bertan, besteak beste, kale seinaleztapen funtzioak zehazki definitu gabe eta lanpostu zehatz bati ezarri gabe geratu ziren. Gaur egun, funtzio eta lan horiek egin gabe egoteak eragin zuzena izan du udalak burutzen dituen kale ekimen askotan, kultur ekintzetan, kirol ekintzetan, etab.

Bigarrena.- Horrez gain, Tolosako Udalak posta zerbitzua kontrataturik du eta horren bidez jakinarazten ditu hainbat akordio. Kontratuaren kostua altua da eta gainera, maiz gertatu ohi diren urgentziak/premiak azkartasunez bete gabe geratzen dira. Premia horiek asebetetzeko beharrezkotzat ikusten da jakinarazpen horiek udalaren barne pertsonalarekin burutzea, alde batetik, kostuak murrizteko eta bestetik, eraginkortasuna irabazteko.

Hirugarrena.- Tolosako Udalak lanpostu-zerrendaren bidez arrazionalizatzen eta antolatzen ditu barne-egiturak, zehazten ditu langile-beharrak, definitzen ditu lanpostua betetzeko eskatzen diren baldintzak eta sailkatzen ditu lanpostu bakoitza, eraginkortasun-, efizientzia- eta antolaketa-irizpideen arabera.

Laugarrena.- Guztia ikusirik, udaltzain buruzagitzak bi udaltzain laguntzaile plaza sortzea proposatu du. Bi plaza horiek ondorengo funtzioak izango dituzte:

Erantzukizun orokorrak:

Herritarren eta trafikoaren segurtasuna, ordena publikoa eta udal ordenantzak eta bestelako lege arauak bete daitezen zaintzea.

Lan esanguratsuenak:

1. Lehentasunezko zereginak:



- 1- Trafikoari loturiko kale seinalizazioaren jartzea, zaintza eta jasotzea.
 - 2- Enpresa pribatuen zein beste administrazioen eskariak ez diren, udal herritarren kale okupazioak burutzeko seinalizazioaren jartzea, zaintzea eta jasotzea.
 - 3-Komunikazioak zein jakinarazpenak burutzea.
 2. Gainontzeko hondar-zereginak, betiere lehentasunezko zereginak eginda daudenean:
 - 4- Polizia-laguntzaileen eginkizunetarako; udaltzaingoari laguntza eman Euskal Polizia legearen 55.1 artikuluko d) eta i) paragrafoetako eginkizunak betetzen.
 - 5- Udaltzaingoarekin elkarlanean arituko dira herriguneetan trafikoa antolatzen laguntzeko.
 - 6- Udaltzaingoarekin elkarlanean arituko dira polizia laguntzaile lanak burutzen laguntzeko.
 - 7-Eskoletan udaltzaingoak burutzen dituen haur eta gazteen formakuntzan laguntzea.
 - 8- Txirrinda karabana eta haur eta gazteen eskolaratze zein eskoletako irteeran kontrolak burutzen laguntzea, oinezko patruila, motordun auto patruila eta txirrindako patruila erabiliaz.
 - 9- Trafikoa kudeaketa eta zaintza burutzen laguntzea, agenteek ezin dutenean.
 - 10- Trafiko guneen eta Egoiliar guneen zaintzan eta jarraipenean laguntzea, agenteek ezin dutenean.
 - 11-Udaltzaingoaren deposituaren edo deposituen antolatzen, garbitzen eta kudeatzen laguntzea.
 - 12-Animaliak jasota izango diren gunearen antolatzen, garbitzen eta kudeatzen laguntzea.
 - 13- Bandoak banatzen laguntzea.
 - 14- Udal guneen irekiera eta itxiera burutzen laguntzea, udaltzainburuak horrela agintzen duen kasutan.
 - 15- Galdutako eta utzitako txirrinden kudeaketan laguntzea.
 - 16- Herritarren eskariak artatzen laguntzea, ibilgailuak abiarazteko pintzen eskariak jasotzen direnean zein galdutako edo ahaztutako giltzak direnean sarrailen irekierak burutuz, agenteek ezin dutenean.
- Eginkizun komunak:
- 17- Arloa hobetzen laguntzea eta hobekuntza hori lortzeko beharrezkoak diren ekintzak eta aldaketak proposatzea.



- 18- Lana antolatzea, ezarritako helburuak beteko direla bermatzeko.
- 19- Unitatera/arlora atxikita dauden gainerako langileei laguntzea lanak pilatzen direnean, edo langileren bat kanpoan edo gaixorik dagoenean.
- 20- Lankideei aholkuak ematea eta laguntzea, bere ezagutza edota eskarmentuagatik hobeto menderatzen dituen lanetan.
- 21- Arloan dauden instalazioen eta baliabideen erabilera, kontserbazioa eta mantentzea egokia dela begiratu eta zaintzea.
- 22- Bere kategoriari dagokion eta agintzen zaion beste edozein lan egitea, aldeztatik horretarako jarraibideak jasota.

Bosgarrena.- Lanpostuen ordainsariei dagokionez, balorazio berrikuspen erregelamendua onartzen den bitartean, honako behin-behineko balorazioa proposatzen da, giza baliabideen sailetik:

<u>Faktorea</u>	<u>Puntuazioa</u>
Espezializazioa	50
Esperientzia	50
Agintea	0
Oihartzuna	50
A. intelektuala	25
A. Fisikoa	25
Nekagarritasuna	25
Arriskugarritasuna	25
Lanaldia	25
Dedikazioa	75

Seigarrena.- Aurrekontu zuzkidurari dagokionean, bi udaltzain laguntzaileek ez dute aurrekontu dotaziorik; dena den, 2024. urteko gastuen lehen kapitulari dagokion aurrekontua aztertu ondoren, ikusirik Ofizialorde zein Trafiko koordinatzaile lanpostua doikuntza dutela, baina ez direla bete urtariletik abuztu bitartean, bertan konsignatutako diru partida, bi trafiko laguntzaile hauentzako erabiltzea proposatzen da. Guztira 2024. urtean 7.730,87 eurotako kostua izango du bi plaza hauek sortzeak.

KONTUAN HARTURIK

Lehena.- 5/2015 Errege Dekretu Legegileak, urriaren 30ekoak, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua arautzen duenak, 74. artikuluan ezartzen duenez, "Las



Administraciones Públicas estructurarán su organización a través de relaciones de puestos de trabajo u otros instrumentos organizativos similares”. Tokiko entitateei dagokienez, beren burua antolatzeko ahalaren beste adierazpen bat da, Tokiko Autonomiaren Europako Gutunak 6.1 artikuluan aitortua.

Lanpostuen Zerrendek ondorengo puntuak eduki beharko ditu, gutxienez:

- Lanpostuaren izena
- Sailkapen profesionalean zein Taldetakoa den
- Lanpostuaren eskala
- Lanpostua betetzeko modua
- Ordainsari osagarriak

Lehen aipatutako 5/2015 Errege Dekretu Legegileko 75., 76. eta 77. artikuluetan arautzen dira langile funtzionarioak nahiz lan-kontratukoak sailkatzeko irizpideak.

Bigarrena.- 11/2022 Legeak, abenduaren 1ekoak, Euskal Enplegu publikoari buruzkoa, 45 eta 46 artikuluan arautzen ditu Lanpostuen Zerrendak, honela:

“45. artikulua.– Lanpostu-zerrendak.

1.– Lanpostu-zerrendak euskal administrazio publikoek beren barne-egiturak arrazionalizatu eta ordenatzeko baliatzen dituzten tresnak dira, baita langile-beharrizanak zehaztu, lanpostuetan jarduteko betekizunak definitu eta lanpostu bakoitza sailkatzeko ere, efikaziari, efizientziari eta antolaketarako arrazionaltasunari buruzko irizpideen arabera.

2.– Lanpostu-zerrendek hauek hartuko dituzte barruan, batera edo berezita: aurrekontuan zuzkidura duten egiturako lanpostu guztiak, funtzionario, langile lan-kontratudun eta behin-behineko langileentzat erreserbatuta daudenak.

3.– Lanpostu-zerrendak eta haietan izandako aldaketak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira, edo kasuan kasuko lurralde historikoko aldizkarian foru-aldundietakoak edo toki-erakundeetakoak direnean. Argitaratu eta hurrengo egunean hasiko dira ondorioak izaten lanpostu-zerrendak, non eta berariaz beste data bat zehazten ez den. Hori guztia,



lanpostu-zerrenden barruko datuen transferentzia bermatze aldera.

4.– Une bakoitzean errazago ezagutu dadin zein den lanpostu-zerrenden egoera, bai eta zerrenda horien kudeaketa errazteko ere, enplegu publikoaren eskumena duten organoek aldian-aldian eguneratuko dute zerrendon gaineko informazioa. Halaber, administrazio bakoitzeko egoitza elektronikoan agertu beharko dira bateratuta, gardentasunez, eta etengabe eguneratuta.

5.– Ez da egongo lanpostu-zerrenda alde zurretik zertan aldatu kasu hauetan: dagokien euskal administrazio publikoetan enplegu publikoaren eskumena duten sailek funtzionarioen lanpostuen adskripzioa aldatzean –giza baliabideen berresleipen, berradskripzio edo birbanaketarengatik–, baldin eta destino berria badago eragindako langileen arestiko zerbitzu-udalerrri berean –edo campus berean, Euskal Herriko Unibertsitatearen kasuan– eta lan-baldintzak aldatzen ez badira. Aldaketa, dena den, lanpostu-zerrendan sartu beharko da; sartu ere, lanpostu-zerrendaren hurrengo aldaketan, berradskripzioa gertatuz gerokoan.

6.– Nolanahi ere den, lanpostu-zerrenden bitartez sortu, kendu edo aldatuko dira lanpostuak. Era berean, egitura organikoa aldatu nahi izanez gero, aldi berean aldatu beharko dira dagozkien lanpostu-zerrendak edo haien ordezkotresnak. Apartatu honetan xedaturik dagoenerako, aldaketa hauek ez dira kontuan hartuko: eduki funtzionala ukitu gabe, lanpostuak adskribatuta dauden sail edo organoen izenari bakarrik eragiten diotenak.

7.– Lanpostu-zerrendak aurrekontu-aurreikuspenetara egokituko dira, halako moldez, non ezingo duten barnean hartu lanposturik baldin eta haren dotazioari ezin bazaio eutsi dagokion ekitaldirako aurrekontu-plantilletan aurreikusitako kredituekin.

8.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko eta haren organismo autonomoetako lanpostu-zerrendak Gobernu Kontseiluak onartuko ditu, lege honen 17. artikuluan xedatutakoaz bat.



9.– *Foru- eta toki-administrazioetan eta Euskal Herriko Unibertsitatean, haien arauen arabera horretarako eskumena duen organoak onartuko ditu lanpostu-zerrendak.*

46. artikulua.– *Lanpostu-zerrenden edukia.*

1.– *Lanpostu-zerrendek datuok adieraziko dituzte, nahitaez, lanpostu bakoitzeko:*

- a) *Lanpostuaren izena eta lanpostu bakoitzetik dagoen dotazio kopurua.*
- b) *Zer sail edo zentro organikotara adskribatuta dagoen.*
- c) *Funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostuei dagokienez, sailkapen profesionaleko talde edo azpitaldeak eta zer kidego, eskala edo beste sistematarako adskribatuta dauden, hala badagokio. Ez dago eragozpenik lanpostuak talde, azpitalde, kidego edo eskala batera baino gehiagotara adskribatzeko.*
- d) *Langile lan-kontratudunentzat erreserbatutako lanpostuei dagokienez, bakoitzaren talde profesionala.*
- e) *Hornitzeko-sistema –dela lehiaketa, dela izendapen askea– eta, hala badagokio, zein administrazio publikotako langileei irekitzen zaien hornikuntza hori.*
- f) *Ordainsari osagarriak, lanpostuari lotuak.*
- g) *Lanpostuaren hizkuntza-eskakizuna eta, hala badagokio, derrigortasun-data.*
- h) *Dedikazio-araubidea.*
- i) *Lanpostuaren izaera berezia ala normalizatua den.*

2.– *Lanpostu-zerrendetan zehaztuko dira, era berean, dena delako lanpostuan jarduteko eskatzen diren berariazko betekizunak, hala badagokio.*

3.– *Lanpostu-zerrenden bitartez bakarrik ken daitezke lanpostuak edo dotazioak lan-kargak aztertzeke prozesuen ondorioz, langileen ordezkartzearekin negoziatu ondoren.*



4.– *Behin-behineko langileen lanpostu-zerrendek hauek jasoko dituzte, gutxienez: artikuluko honen 1. apartatuko a), b), g) eta h) letretan aipatzen den informazioa, eta ordainsarien guztizko zenbatekoa”*

Hirugarrena.- 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, tokiko entitateak behartzen ditu antolakundeetan dituzten lanpostu guztien zerrenda osatzera, lehen azaldutako funtzio publikoari buruzko oinarriko legerian aurreikusitakoren arabera. Halaber, Lege honen 90.1 artikuluko xedatutakoaren arabera, Toki-korporazio bakoitzari dagokio urtero, aurrekontuaren bidez, langileen plantilla onartzea. Zerrenda horretan funtzionarioen, eta lan-kontratuko eta behin-behineko langileen lanpostu guztiak jaso beharko dira.

Aurrekoarekin kontsonantzian, 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuak, apirilaren 18koak, Toki Araubidearen arloan indarrean dauden xedapenen Testu Bategina onartzen duenak (aurrerantzean TATB), xedatzen du lanpostuen zerrendek beti jaso beharko dutela funtzio publikoari buruzko oinarriko legerian aurreikusitako edukia, eta 7/1985 Legeko

90.2 artikuluan ezarritako arauen arabera prestatuko dela. TATBko 126. artikuluko, 1. 2. eta 3. paragrafoetan arautzen du plantilla prestatzeko eta aurrekontuan onartzeko modua, zehazten du plantillan sartuko direla dotazio ekonomikoa duten plaza guztiak eta azaltzen du plantilla aldatzeko prozedura.

Halaber, 126.2 artikuluan xedatzen du plantillak handitu ahal izango direla supostu zehatz batzuetan:

“2. Las plantillas podrán ser ampliadas en los siguientes supuestos:

a) Cuando el incremento del gasto quede compensado mediante la reducción de otras unidades o capítulos de gastos corrientes no ampliables.

b) Siempre que el incremento de las dotaciones sea consecuencia del establecimiento o ampliación de servicios de carácter obligatorio que resulten impuestos por disposiciones legales.

Lo establecido en este apartado será sin perjuicio de las limitaciones específicas contenidas en leyes especiales o coyunturales.”

Hori horrela, kontuan hartu behar da jakinarazle lanak sartu direla bi lanpostu berri



hauen funtzioetan. Funtzio hauek txertatzearen arrazoia da orain arte aurrekontuko bigaren kapitulutik jakinarazpenak egiten zirela eta honela 150.000 euro baino gehiagoko kostua suposatzen zuen eta proposamen honekin dirua aurreztuko litzateke.

Gainera, seinalizazio lanak ere lanpostuen katalogoa onartu ondoren esleitu gabe geratu ziren eta udalerriak urtean zehar dituen ekitaldi ezberdinen beharrei aurre egiteko beharrezkoa da lan hauen egingo dituen baliabideak edukitzea, izan ere funtsezko eta nahitaezko zerbitzuak baitira.

Laugarrena.- Abenduaren 23ko 31/2022 Legeak, 2023 urterako Estatutako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen, bere 19. 2 artikuluan adierazten du 2023 urterako ordainsariak ezingo dutela % 2.5eko igoera finkoa baino handiago eduki 2022ko abenduaren 31rekiko, bai pertsonal baliabideei bai antzinasunari dagokionez.

Dena den, nahiz eta xedapen honek udal plantillaren handitzea ez duen baimentzen, kasu zehatz batzuetan, udala legez zerbitzu horiek ematera derrigortuta dagoen kasuetan alegia, baimenduta egongo da plazen sorrera. Honela dio 31/2022 Legearen 20.4 f) eta g) artikulua:

“f) Las plazas necesarias para la puesta en marcha y funcionamiento de nuevos servicios cuyo establecimiento venga impuesto en virtud de una norma estatal, autonómica o local.

g) En los servicios públicos que pasen a ser prestados mediante gestión directa, el número de plazas que las empresas externas destinaban a la prestación de ese servicio concreto.”

Kasu honetan, aurrekontu Legearen 20.4 artikularen g) atalaren babespean egon litzateke bi plaza hauen sorrera, izan ere jakinarazle funtzioak beteko litzuzke.

ORDEZKARITZA SINDIKALAREKIN NEGOZIAZIOA

Urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegileak, Enplegatu Publikoen Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bateratua onartzen duenak, bere 37.1 artikularen c) atalean xedaturikoaren arabera, giza baliabideetako instrumentuen irizpide orokorrak pertsonalaren ordezkariekin negoziatu behar dira, beti ere Administrazio bakoitzaren eskumenen barruan, eta legez dagokion hedaduraz. Zentzu horretan, udal gobernuen



ordezkariek eta ordezkari sindikalek 2024ko irailaren 17an eta urriaren 1ean egindako bileretan negoziatu eta gaia adostasunez onartu zuten.

ONARTZEKO PROZEDURA

- Batetik apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.1 i) artikulua araberak, Udalbatzak eskuduntza du gai hau onartzeko.
- Bestetik, prozedurari dagokionez, behin udalbatzak onartu ondoren, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaleko web orrian argitaratuko da.

Tolosako Udaleko Antolakuntzako Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorrek, 2024ko urriaren 23an egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

Aldeko bozkak: Kristina Pelaez Errazkin, Josune Sanz Vidal, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Estitxu Kortejarena Ugarte.

Abstentzioa: Biotxa Agirre Ugalde, Ainhoa Dominguez Landa eta Jose Mari Villanueva Telleria.

Beraz, gehiengoz, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

IRIZPENA

Lehena.- 2024 urterako 15.461,74 eurotako gastua bi udaltzain laguntzaileen plazak sortzeko.

Bigarrena.- 2024ko Plantilla organikoaren eta Lanpostu Zerrendaren (I eranskina) aldaketa onartzea, honako bi plazak eta lanpostuak sortuz:

- 1.- Plaza: Laguntzaile bi plaza, C2 mailakoak.
- 2.- Lanpostua: "Udaltzain laguntzaile" lanpostua.

Hirugarrena.- Bi lanpostu hauen behin-behineko balorazioa eta funtzioak onartzea.

Laugarrena.- Akordio hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaleko web orrian argitaratzea.



Bosgarrena.- Akordio hau ordezkari sindikalen negoziazioari baldintzatuta geratzea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko Botoak: Angel Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Goiuri Ezeiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Josune Sanz Vidal, Aitor Agirresarobe Murgi, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles Iturbe Pasaban, Biotxa Agirre Ugalde, Leire Zubeldia Rezola, Javier Zabala Sastre, Ainhoa Dominguez Landa, Patxi Amantegi Zubiria eta Iker Uson Gonzalez.

Beraz, Udalbatzak, aho batez, onartu du 2024ko lanpostuen zerrendaren aldaketa.

4. ONARTZEA TOLOSAKO UDAL-ERAIKINAK ETA HIRI-ALTZARIAK GARBITZEKO ZERBITZU-KONTRATUAREN LUZAPENA.

Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorraren 2024ko urriaren 23ko irizpena

Txosten hau ematen da 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, bere Hirugarren Xedapen Gehigarriaren 8. atalean araututakoaren arabera, non Udal Idazkariari ematen zaion kontratazio-espeditenteen aholkularitza juridikoaren zeregina.

IKUSIRIK

LEHENA.- Tolosako Udaleko Hirigintza Saileko teknikariak egindako txostenean, aipatutako xedea duen zerbitzu-kontratuaren egoerari buruzko azalpenak eman zituen eta kontratazio jardunbideari hasiera eman zion. Bertan, jardunbidea burutu ahal izateko, honako hauek eskatu zituen: Administrazio baldintza partikularren plegua; preskripzio tekniko partikularren plegua; baliabide nahiko ez izateari buruzko txostena; kontratua justifikatzeko memoria; eta idazkariaren eta kontuhartzailearen txostenak. Lizitazio hau, xede bera zuen 2020SABI0010 lizitazioa huts deklaratu izanaren ondorio da. Beraz, SPKLren 119. artikuluan xedatutakoaren arabera, espeditente hau premia atzeraezin bati erantzuteko kontratua zenez eta interes publikoko arrazoiengatik esleipena azkartu behar zenez, kontratazio organoak presakotzat jo zuen.

BIGARRENA.- 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak Espainiako ordenamendu juridikora ekartzen dituenak (SPKL hemendik aurrera), V. Kapituluaren (308. artikulutik aurrera), zerbitzu kontratuei buruzko xedapenak ematen ditu; horien artean, edukia eta limiteak, prezioa kalkulatzeko era eta kontratistaren erantzukizuna.



HIRUGARRENA.- Kontratu honetan aurreikusitako balio zenbatetsia 2.694.183,39 eurokoa zen, aintzat hartuta 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, 101.1.a). artikuluan xedaturikoa.

PRESUPUESTO BASE LICITACIÓN						modificaciones previstas	VALOR ESTIMADO
1 años sin IVA	1 año con IVA	2 años sin IVA	2 años con IVA	5 años sin IVA	5 años con IVA		
442.313,23 €	535.199,00 €	891.791,78	1.079.068,05	2.284.183,39	2.763.861,90	410.000,00	2.694.183,39

LAUGARRENA.- Aurrekoa kontuan hartuz eta jardunbide guztia legearen arabera egin eta gero, 2021eko uztailaren 26an egindako Tokiko Gobernu Batzarrak enpresari adjudikatu zion erreferentzian aipatutako kontratua. 2021ko abenduaren 16an formalizatu zen kontratua baldintza nagusi hauekin:

- Prezioa bi urterako: Printzipala: 831.063,82 euro, BEZa: 174.523,40 euro eta guztira, 1.005.587,22 euro.
- Iraupena: Bi urte, beste hiru urtez, urtez urte, luzatzeko aukerarekin.

BOSGARRENA.- Kontratuaren bukaera-data aintzat hartuta, Idazkaritza Orokorra, Administrazioaren Modernizazioa, Kontratazioa eta Ondarea Azpisailak 2024ko irailaren 6ean igorri du kontratua urtebetez luzatzeko aldeko proposamena.

KONTUAN HARTURIK

LEHENA.- SPKLren 29. artikulua hau xedatzen du kontratuen iraupenari buruz:

Artículo 29. Plazo de duración de los contratos y de ejecución de la prestación.

2. El contrato podrá prever una o varias prórrogas siempre que sus características permanezcan inalterables durante el período de duración de estas, sin perjuicio de las modificaciones que se puedan introducir de conformidad con lo establecido en los artículos 203 a 207 de la presente Ley.

La prórroga se acordará por el órgano de contratación y será obligatoria para el empresario, siempre que su preaviso se produzca al menos con dos meses de antelación a la finalización del plazo de duración del contrato, salvo que en el pliego que rija el contrato se establezca uno mayor. Quedan exceptuados de la obligación de preaviso los contratos cuya duración fuera inferior a dos meses.

En ningún caso podrá producirse la prórroga por el consentimiento tácito de las partes. La prórroga del contrato establecida en este apartado no será obligatoria para el contratista en los casos en que en el contrato se dé la causa de resolución establecida en el artículo 198.6 por haberse demorado la Administración en el abono del precio más de seis meses.



BIGARRENA.- Lizitazioa arautzen duten administrazio baldintza partikularren pleguetako I. erankinaren 8. idatz-zatian hau xedatzen da:

Bi urteko iraupena izango du kontratua formalizatzen denetik; hala ere, beste hiru urteko luzapena aurreikuste da.

Halaber, kontratuaren laugarren klausulak hau zehazten du:

Kontratuaren iraupen-epa bi urtekoa izango da, kontratua formalizatzen denetik kontatzen hasita eta urtez urte, beste hiru urteko luzapena aurreikusten da.

HIRUGARRENA.- Beraz, luzapenak ohiko izaera du eta horrela aurreikusten zenez, kontratua beste urtebetez luzatzeko arazorik ez dago.

LAUGARRENA.- Prezioen berrikuspenari buruz, administrazio baldintza partikularren pleguaren 6. klausulan azaltzen den bezala, luzapen honetan prezioak ez dira berraztertuko.

BOSGARRENA.- Kontratu honen luzapena ebazteko eskumena, kontratazio organoari dagokio. Kontratazio-organoa zehazteko, kontratazio arloan Toki Erakundeei aplikatu beharreko arau espezifikoak jasotzen dituen xedapenak hartuko dira kontutan, SPKLren Bigarren Xedapen Gehigarrian xedaturikoak hain zuzen ere:

Disposición adicional segunda. Competencias en materia de contratación en las Entidades Locales.

1. Corresponden a los Alcaldes y a los Presidentes de las Entidades Locales las competencias como órgano de contratación respecto de los contratos de obras, de suministro, de servicios, los contratos de concesión de obras, los contratos de concesión de servicios y los contratos administrativos especiales, cuando su valor estimado no supere el 10 por ciento de los recursos ordinarios del presupuesto ni, en cualquier caso, la cuantía de seis millones de euros, incluidos los de carácter plurianual cuando su duración no sea superior a cuatro años, eventuales prórrogas incluidas siempre que el importe acumulado de todas sus anualidades no supere ni el porcentaje indicado, referido a los recursos ordinarios del presupuesto del primer ejercicio, ni la cuantía señalada.

2. Corresponden al Pleno las competencias como órgano de contratación respecto de los contratos mencionados en el apartado anterior que celebre la Entidad Local, cuando por su valor o duración no correspondan al Alcalde o Presidente de la Entidad Local, conforme al apartado anterior. Asimismo, corresponde al Pleno la aprobación de los pliegos de cláusulas administrativas generales a los que se refiere el artículo 121 de esta Ley.



Kasu honetan, kontratuaren balio zenbatetsia 2.694.183,39 eurokoa da eta kontratuaren lizitazioa

onartu zenean, 2021. urtean, aipatutako aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 hori 2.656.409 euro ziren; gainera, kontratuaren iraupen osoa, luzapenak barne, bost urtekoa denez, Udaleko Osoko Bilkura zen kontratazio hau onartzeko organo eskuduna. Horiek horrela, 2021eko

apirilaren 29an egindako ohiko osoko bilkurak, besteak beste, onartu zuen behin kontratazio jardunbidea onartuta eta lizitazioari hasiera emanda, Osoko Bilkuraren eskumenak Tokiko Gobernu Batzarrari eskuordetzea, kontratuaren bukaera arte, eraginkortasun eta bizkortasun arrazoiengatik, eta 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 22.4. artikuluan xedatutakoaz baliatuz. Horiek horrela, 2023an kontratuaren luzapena egiteko, Osoko Bilkurak bereganatu zituen Tokiko Gobernu Batzarrean eskuordetutako eskumenak. Orain, 2. luzapena egiteko, aipatutako aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 hori 3.262.690 eurokoa da, baina kontratuaren iraupen osoa, luzapenak barne, bost urtekoa denez, **aproposa dirudi, berriro ere, Osoko Bilkurak eskumenak bereganatzea kontratuaren luzapena onartu ahal izateko.**

Aipatu behar da kontratazio-organoari dagozkiola, besteak beste, kontratua esleitzea, kontratua interpretatzea, kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, hori guztia SPKLren 190.eta 191. artikuluen arabera eta haren Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

Aurreko guztia aintzat harturik, aldeko txostena ikusita, Tolosako Udaleko Antolakuntzako Batzorde Informatiboak, 2024ko urriaren 23an egindako bilkuran, irizpen-proposamena aztertu eta bozkatu du.

Bozketaren emaitza honakoa hau izanda da:

Aldeko botoak: Kristina Peláez Errazkin, Josune Sanz Vidal, Estitxu Kortejarena Ugarte, Garbiñe Marzol Ormazábal, Biotxa Agirre Ugalde, Ainhoa Domínguez Landa eta José María Villanueva Tellería.

Beraz, aho batez, Batzordeak honako irizpen hau onartzea proposatzen dio Udallbatzaren Osoko bilkurari:

IRIZPENA

LEHENA.- Osoko Bilkurak 2021eko apirilaren 29an Tokiko Gobernu Batzarrean eskuordetutako eskumenak berenganatzea kontratu honen luzapena onartzeko, 40/2015



Legeak, urriaren 1ekoak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak 10. artikuluan xedatutakoaren arabera. Eskumenen bereganatze hori Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

BIGARRENA.- SPKLren 29. artikuluan, administrazio baldintza partikularren pleguaren eranskinean eta kontratuan 4. klausulan xedatutakoarekin bat etorritik, Tolosako udal eraikinak eta hiri-altzariak garbitzeko zerbitzu-kontratua urtebetez luzatzea, 2024ko abenduaren 16tik 2025eko abenduaren 15a bitartean.

HIRUGARRENA.- Kontratuaren luzapenean prezioa mantentzea. Horrela, prezioa urtebeterako, honako hau da: Printzipala: 415.531,91 euro, BEZa: 87.261,70 euro eta gzutira, 502.793,61 euro. Hori guztia 227.01 Garbiketa azpikontzeptuko aurrekontu-partiden kontura finantzatuko da, eragindako programei dagokienez.

LAUGARRENA.- Organo-eskudunak luzapena onartzen badu, KELSALIM ZERBITZUAK, S.L. (B01415553) enpresari luzapenaren berri ematea eta errekeritza gehienez 15 eguneko epean kontratuaren luzapena formalizatzerantz bertaratu daitezten.

BOSGARRENA.- Luzapenaren formalizazio iragarkia Euskadiko kontratatzailearen profilean argitaratzea.

SEIGARRENA.- Erabaki honen berri Kontuhartzaitza eta Diruzaintza Sailari eta Idazkaritza Orokorra, Administrazioaren Modernizazioa, Kontratazioa eta Ondarea Azpisailari ematea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko Botoak: Angel Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Goiuri Ezeiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Josune Sanz Vidal, Aitor Agirresarobe Murgi, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles Iturbe Pasaban, Biotxa Agirre Ugalde, Leire Zubeldia Rezola, Javier Zabala Sastre, Ainhoa Dominguez Landa, Patxi Amantegi Zubiria eta Iker Uson Gonzalez.

Beraz, Udalbatzak, aho batez, onartu du Tolosako udal-eraikinak eta hiri-altzariak garbitzeko zerbitzu-kontratuaren luzapena.



5. ONARTZEA TOLOSAKO KALEAK GARBITZEKO ZERBITZU-KONTRATUAREN ESLEIPENA.

Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorraren 2024ko urriaren 23ko irizpena
IKUSIRIK

LEHENA.- Unitate sustatzaileko teknikariak igorritako txostenean, aipatutako xedea duen kontratuaren egoerari buruzko azalpenak eman zituen eta kontratazio jardunbideari hasiera eman zion. Bertan, jardunbidea burutu ahal izateko, honako hauek eskatu zituen: Administrazio baldintza partikularren plegua; preskripzio tekniko partikularren plegua; baliabide nahiko ez izateari buruzko txostena; kontratua justifikatzeko memoria; eta idazkariaren eta kontuhartzailearen txostenak.

BIGARRENA.- 2024ko ekainaren 27an Udalbatzak, besteak beste, erabaki zuen Tolosako kaleak garbitzeko zerbitzu-kontratuaren lizitazioa presakotzat jotzea, kontratazio espedientea onartzea eta lizitazioari hasiera ematea.

HIRUGARRENA.- Proposamenak aurkezteko epean, UTE Tolosako Garbiketa 2024 enpresak aurkeztu zituen proposamenak.

LAUGARRENA.- Behin izapidetze guztia legearen arabera egin eta gero, 2024ko urriaren 1ean, kontratazio-mahaiak proposatu zion kontratazio-organoari erreferentzian aipatutako kontratua UTE Tolosako Garbiketa 2024 enpresari adjudikatzea.

BOSGARRENA.- Hauek dira kontratuaren ezaugarri nagusiak:

- Prezioa: nagusia 3.380.422,88 euro; BEZa 338.042,88 euro; guztira 3.718.465,16 euro.
- Egikaritze epea: bi urteko iraupena izango du, beste bi urtez luzatzeko aukerarekin.

SEIGARRENA.- Kontratazio-organoa zehazteko, kontratazio arloan Toki Erakundeei aplikatu beharreko arau espezifikoak jasotzen dituen xedapenak hartuko dira kontutan, SPKLren Bigarren Xedapen Gehigarrian xedaturikoak hain zuzen ere:

Disposición adicional segunda. Competencias en materia de contratación en las Entidades Locales.

1. Corresponden a los Alcaldes y a los Presidentes de las Entidades Locales las competencias como órgano de contratación respecto de los contratos de obras, de suministro, de servicios, los contratos de concesión de obras, los contratos de concesión de servicios y los contratos administrativos especiales, cuando su valor estimado no



supere el 10 por ciento de los recursos ordinarios del presupuesto ni, en cualquier caso, la cuantía de seis millones de euros, incluidos los de carácter plurianual cuando su duración no sea superior a cuatro años, eventuales prórrogas incluidas siempre que el importe acumulado de todas sus anualidades no supere ni el porcentaje indicado, referido a los recursos ordinarios del presupuesto del primer ejercicio, ni la cuantía señalada.

2. Corresponden al Pleno las competencias como órgano de contratación respecto de los contratos mencionados en el apartado anterior que celebre la Entidad Local, cuando por su valor o duración no correspondan al Alcalde o Presidente de la Entidad Local, conforme al apartado anterior. Asimismo, corresponde al Pleno la aprobación de los pliegos de cláusulas administrativas generales a los que se refiere el artículo 121 de esta Ley.

Beraz, kontratauaren balio zenbatetsia aipatutako aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 baino gutxiago denean alkate-lehendakaria da kontratazioa onartzeko organo eskuduna. Horiek horrela, alkate-lehendakariak 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki-arabidearen oinarriak arautzen dituenak, 21.3 artikuluan xedatutakoan oinarrituz, 2022ko otsailaren 14ko 2022/281 alkatetzaren dekretuaren bitartez erabaki zuen 600.000 eurotik gorako balio zenbatetsia duten kontratuak Tokiko Gobernu Batzarrean eskuordetzea.

Kasu honetan, kontratuaren balio zenbatetsia 7.834.224,98 euro eurokoa denez, Udaleko aipatutako aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 baino altuagoa da eta Udaleko osoko bilkura da kontratazio hau onartzeko organo eskuduna.

Aipatu behar da kontratazio-organoari dagozkiola, besteak beste, kontratua esleitzea, kontratua interpretatzea, kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, hori guztia SPKLren 190.eta 191. artikuluen arabera eta haren Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

Aurreko guztia aintzat harturik, aldeko txostena ikusita, Tolosako Udaleko Antolakuntzako Batzorde Informatiboak, 2024ko urriaren 23an egindako bilkuran, irizpen-proposamena aztertu eta bozkatu du.

Bozketaren emaitza honakoa hau izanda da:

Aldeko botoak: Kristina Peláez Errazkin, Josune Sanz Vidal, Estitxu Kortejarena Ugarte, Garbiñe Marzol Ormazábal, Biotxa Agirre Ugalde, Ainhoa Domínguez Landa eta José María Villanueva Tellería.



Beraz, aho batez, Batzordeak honako irizpen hau onartzea proposatzen dio Udallbatzaren Osoko bilkurari:

IRIZPENA

LEHENA.- Lizitazio-egintzaren baliozkotasuna deklaratzeko.

BIGARRENA.- UTE Tolosako Garbiketa 2024 enpresari Tolosako kaleak garbitzeko zerbitzu-kontratua adjudikatzea ondorengo baldintzetan:

- Prezioa: 3.718.465,16 euro, horietatik 3.380.422,88 euro printzipalari dagozkio eta 338.042,88 euro BEZari %10eko motan.
- Egikaritze epea: bi urteko iraupena izango du, beste bi urtez luzatzeko aukerarekin.

HIRUGARRENA.- Adieraztea enpresak lizitazioa arautzen duten pleguetan xedatutakoa bete beharko duela, inolako erreserbarik gabe.

LAUGARRENA.- SPKLren 44.1 a) artikulua xedaturikoaren arabera ohartaraztea, kontratazioari buruzko errekurtsio berezia tartekatu ahal izango denez, balio zenbatetsiak 100.000 euroko kopurua gainditzen duelako, 153. artikuluan xedatutakoa jarraituz, kontratua ezingo dela formalizatu adjudikazioaren jakinarazpena lizitatuzaileei eta hautagaiei bidaltzen zaienetik hasita hamabost egun balioduneko epea igaro baino lehen.

BOSGARRENA.- Erabaki horiek jakinaraztea interesdunari, Hirigintza Sailari eta Idazkaritza Orokorra, Administrazioaren Modernizazioa, Kontratazioa eta Ondare Azpisailari.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko Botoak: Angel Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Goiuri Ezeiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Josune Sanz Vidal, Aitor Agirresarobe Murgi, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles Iturbe Pasaban, Biotxa Agirre Ugalde, Leire Zubeldia Rezola, Javier Zabala Sastre, Ainhoa Dominguez Landa, Patxi Amantegi Zubiria eta Iker Uson Gonzalez.

Beraz, Udalbatzak, aho batez, onartu du Tolosako kaleak garbitzeko zerbitzu-kontratuaren esleipena.



6. TOLOSAKO HAPOKO «24.IURRE» HIRIGINTZA-ESPARRUAREN ALDAKETA PUNTUALA, BERTAN TOLOSALDEAKO OSPITALEA KOKATU AHAL IZATEKO. HASIERAKO ONESPENA.

Lurraldea Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorraren 2024ko urriaren 23ko irizpena

IKUSIRIK

LEHENA.- 2021H1010001 eta 2024H1300001 zenbakidun espedientei dagozkion aurrekariak:

Dokumentua	Data/Zk.	Oharrak
1719 zenbakidun dekretuan Tolosako udalerrian eskualdeko ospitale bat kokatzeko aukeren hirigintza azterketaren idazketa Sabai Arkitektoak, S.L.P enpresari esleitzea erabaki zen.	2020/10/28	Azterketaren ondorioen arabera, kokapen-aukerarik egokiena lurramendikoa izan zen.
Txosten tekniko-juridikoa (JM21051).	2021/09/16	Aldaketa puntualari buruzko espedientea hasi, parte hartze programa onartu, GAOn argitaratu eta informazioa eskatzeko proposamena.
Udal Plangintzako Aholku Batzordearen onespena proposatutako parte hartze programari.	2021/09/17	
Lurralde Batzorde Informatiboaren onespena espedientea hasi, parte hartze programa onartu, GAOn argitaratu eta informazioa eskatzeari.	2021/09/23	
Udalbatzak, Ohiko Osoko Bilkuran, besteak beste, hartutako erabakia: HAPOn "24 lurre" hirigintza esparruko aldaketa puntualari buruzko espedientea hasi eta herritarren parte-hartze programa onartzea.	2021/09/30	
Iragarkia GAOn (223 zk.).	2021/11/22	
Iragarkia udaleko iragarki-taulan.	2021/11/22 - 2022/01/23	
Txosten sektorialen jasotzea:		
• GFA. Kultura, lankidetzeta, gazteria eta kirol departamentua.	2022/02/09	
• Euskoa Jaurlaritza. kultura eta hizkuntza politika saila Kultura. Ondarearen Zuzendaritza Euskal Kultura Ondarearen Zentroa.	2022/03/04	
	2022/04/08	



<ul style="list-style-type: none"> • Eusko Jaurlaritza. Segurtasun Saila. 		Eraginik ez duela adierazi dute.
<ul style="list-style-type: none"> • Eusko Jaurlaritza – Ekonomia, garapena, jasangarritasuna eta ingurumena. Natura ondarearen eta klima aldaketaren zuzendaritza. 		Eraginik ez duela adierazi dute.
<ul style="list-style-type: none"> • GFA. Ingurumena eta obra hidraulikoak. mendietako eta natura inguruneke zuzendaritza nagusia. 		
Osakidetzako txostena.	2022/12/14	
EJ Osasun Departamentuak aurkeztutako Tolosaldeko Ospitalearen Plan Funtzionala.	2023/05/11	
Herritarren partaidetza prozesuko lehen saioa gauzatzea.	2023/11/08	
Rehabite, Aholkularitza Teknikoa SLP eta Saragueta Aholkularitza SL enpresek aurkeztutako Tolosako HAPOren Aldaketa Puntualaren hasierako onespene-rako dokumentua (memoriak eta planoak), zarata txostena zein ingurumen-ebaluazioari hasiera emateko eta ingurumen-dokumentua ingurumen organora bidaltzeko eskabidea.	2023/12/22 (15667 sarrera zk.)	Kontratuaren arabera, lehen faseari dagokion dokumentua.
Udaleko Euskara eta Hezkuntza Departamenduko Zerbitzuruaren txostena.	2024/01/16	Eragin linguistikoari buruzko irismen dokumentuari buruzkoa.
Udaleko hirigintza buruaren txostena (JM24_019).	2024/03/27	Hasierako onspena emateko proposamena.
Udaleko hirigintzako tekniko juridikoaren txostena (MAU24054).	2024/04/04	Udal Plangintzako Aholku Batzordeari berri ematea zein txostena eskatzea eta, espedientea ingurumen organoari igortzea.
Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia zirkularraren Zuzendaritzari igorpena.	2024/04/09	Ingurumen-agiri estrategikoa egiteko eskaera – Ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatua egiteko eskaera.
Udal Plangintzako Aholku Batzordearen Osoko Bilkura.	2024/04/12	Tolosako HAPO-ko <<24.IURRE>> hirigintza esparruko aldaketa puntualaren berri eman zen eta proposaturiko agiriaren edukiari buruzko txostena eskatu zen. Plangintza Aholku Batzordeak azaldutako gaiaren inguruko txostena egiteari dagokionez, denon artean



		adostu da hamabost eguneko epea ematea ekarpenak egiteko.
Tolomendiko, Tolosaldeko Landa Garapenerako Elkartea, lehendakariaren ekarpena.	2024/04/26	
EJko Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia zirkularraren Zuzendari-tzaren akatsak zuzentzeko errekerimendua.	2024/05/21	10 eguneko epea eskabideko akatsak zuzentzeko.
Rehabite, Aholkularitza Teknikoa SLP eta Saragueta Aholkularitza SL enpresei errekerimendua bidali zitzaien.	2024/05/24	
EJko Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia zirkularraren Zuzendari-tzari errekerimendua betetzeko epea luzatzeko eskaera.	2024/05/24	EJk epe luzapenik emango ez zela adierazi zuen.
Rehabite, Aholkularitza Teknikoa SLP enpresak errekeritutakoa aurkeztu udalean.	2024/05/30	
EJko Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendari-tzari errekeritutakoa igorri.	2024/06/11	
EJko Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia zirkularraren Zuzendaritzak komunikazioa helarazi udalari.	2024/06/21	<p>“(..)</p> <p><i>Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 30. artikulua araber, eranskinean agertzen diren eragindako administrazio publikoei eta pertsona interesdunei kontsulta egin zaie, planak ingurumenean izan ditzakeen eraginak nabarmenak izan daitezkeen, eta, ondorioz, Planak ingurumen-ebaluazio estrategiko arrunta behar duen zehazteko, edo, bestela, planean sartu behar diren baldintzak ezartzeko, ingurumen-ondorio posibleak saihesteko edo zuzentzeko”.</i></p>
EJko Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia zirkularraren Zuzendaritzaren ingurumen-txosten estrategikoa.	2024/09/10	<p><i>“Determinar que, de acuerdo con los términos establecidos en este informe ambiental estratégico, y siempre que se adopten las medidas protectoras y correctoras establecidas en la</i></p>



*presente Resolución, así como las planteadas por el promotor que no se opongan a las anteriores, **no se prevé que la Modificación Puntual del Plan General de Ordenación Urbana de Tolosa relativa al ámbito "24. lurramendi", vaya a producir efectos adversos significativos sobre el medio ambiente y, por tanto, no debe someterse a evaluación ambiental estratégica ordinaria***".

Rehabite Aholkularitza Teknikoa SLP 2024/09/29
eta Saragueta Aholkularitza SL
enpresek Tolomendik egindako
ekarpenei erantzuteko egindako
txostena.

Udaleko hirigintza buruaren txostena 2024/10/08 Hasierako onespena ematearen
(JM24_042). aldekoa.

KONTUAN HARTURIK

I.- AZTERKETA TEKNIKOA

2024ko urriaren 8n hirigintza buruak txosten teknikoa (JM24_042) egin zuen eta, besteak beste, honakoa jaso zuen:

<<(…)

II.1.- Txostenaren helburua

Txosten hau idazten da aurkeztutako dokumentua aztertzeko eta hala badagokio dokumentua hasieraz onartzeko proposamena idazteko.

II.2.- HAPOren Aldaketaren helburua

HAPO Aldaketa honek irizpide eta helburu hauek garatzen ditu:

- Hirigintza azpiero bat ezartzen eta bertan titulartasun publikoko "24.2 lurramendi Ospitalea azpiero" izeneko "titulartasun publikoko osasun ekipamendu kolektiboko zuzkidura" bat mugatzen, antolatzen eta zehazten da.
- Ondoko F.10 "Espazio Librean Sistema Orokorren zati bat G.00 "Ekipamendu komunitarioko Sistema Orokor" gisa birkalifikatzen du.
- "24.2 lurramendi Ospitalea" azpieroaren baitan, nola sestra ganean hala sestrapean, eraikigarritasun fisikoa ematen zaion lursail bat ezartzen da, eskualde bokazioko osasun ekipamendu berri baten eskaerari erantzuteko adinakoa.



II.3.- AURKEZTUTAKO DOKUMENTUAREN EDUKIA

REHABITE AHOLKULARITZA TEKNIKOA, S.L.P-k Udal teknikariaren gidaritzapean idatzitako dokumentuaren edukia honakoa da:

- Dokumentazio idatzia:

1. MEMORIA ETA ERANSKINAK

“I” ERANSKINA. TOLOSALDEKO OSPITALEKO PLAN FUNTZIONALA. EUSKO JAURLARITZA

“II” ERANSKINA. GOMENDIOAK GENERO IKUSPEGITIK

“III” ERANSKINA. IRISGARRITASUNA

“IV” ERANSKINA. ERAGIN AKUSTIKOARI BURUZKO AZTERLANA

“VI” ERANSKINA. LABURPEN BETEARAZLEA

“VII” ERANSKINA. INGURUMEN AZTERKETA ESTRATEGIKOA

2. ANTOLAKUNTZA ETA KUDEAKETA JARRAIBIDEAK

3. HIRIGINTZA ARAUAK

4. EKONOMIAREN ETA FINANTZEN BIDERAGARRITASUN AZTERKETA

5. INFORMAZIO ETA ANTOLAMENDU PLANOAK

6. IRAUNKORTASUN EKONOMIKOAREN TXOSTENA

- Dokumentazio grafikoa:

1. Informazio planoak (11)

2. Antolamendu planoak (8)

II.3.1.- HAPO ren moldaketaren ezaugarriak


HAPOn Elementuen Moldaketa honek Hirigintza azpiero bat ezartzen du, 8.497,18 m²-ko azalerarekin, eta bertan titulartasun publikoko “24.2 lurrarengi Ospitalea azpiero” izeneko “titulartasun publikoko osasun ekipamendu kolektiboko zuzkidura” bat mugatzen, antolatzen eta zehazten du.

Azpiero horretan 8.497,18 m²-ko azalera duen lursail bat bereizten da, eta sestra gaineko eta sestrapeko eraikigarritasun fisikoa eta profila ematen zaio, eta bertan erabilerak, eraikuntza eta urbanizazioa arautzeko irizpide batzuk finkatzen dira. Irizpide horiek, besteak beste, “Hirigintza Arauak” 3. Dokumentuan jasotako Arau Partikularrean deskribatzen dira.

Proposatutako antolamenduaren ezaugarriak hauek dira:

KALIFIKAZIO OROKORRAREN TAULA

Kalifikazio globala	Azalera (m ² a)
“G. 00 Ekipamendu Komunitarioko Sistema Orokorra”	8.497,18
Guztira	8.497,18



Antolamendu

planoak. Zonifikazio globalaren planoak

ERAIKIGARRITASUN FISIKOA

	Eraikigarritasun fisikoa (m ² e)
Sestra gainean	22.910,00
Sestrapean	17.730,00

KALIFIKAZIO XEHATUAREN TAULA

Kalifikazio Xehatua	Azalera (m ² a)
"g. 00 Ekipamendu komunitarioa"	8.445,44
"e.10 Bide komunikazio sarea"	51,74
Guztira	8.497,18

Aldaketa honekin HAPOk aurreikusitako Hiriko Espazio Libreen Sistema Orokorren azalera gutxitu egiten da (2.086,14 m²), zati bat Ekipamendu Komunitarioko Sistema Orokorra bezala kalifikatzen delako. Dena den, HAPON aurreikusitako soberakina 6.893,00 m²-koa zen eta, beraz, indarreko legediaren araberrako estandarrak betetzen dira.

II.3.2.- Hirigintza-legediak eskatzen duen edukia

Lurzorua eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeko 62. Artikuluak zehazten du Pan Orokorrak edota honen aldaketek izan behar dituzten agiriak:



62. artikulua.– Agiriak.

1.– Plan orokorren edukia agiri hauetan formalizatuko da gutxienez:

- a) Memoria informatiboa eta justifikatiboa. Plangintza-ahalmena baliatzeko beharrezko irizpen-
elementuak dakartzan informazio guztia jaso beharko du; zehazki, erabakiak hartzeko alternatibak
formulatzeko eta hautatzeko prozesuaren azalpena, herritarrek egindako alegazioen, iradokizunen
eta erreklamazioen azterketa, eta aukeratutako soluzioen justifikazioa.
- b) Ingurumen-kalteari buruzko aurretiazko txostena betetzearen memoria justifikatiboa. Memoria
horretan, gainera, garapen eramangariaren ikuspuntutik arrazoitu beharko da hautatutako
antolamendua, eta lurzoruak planean aurreikusitakoa betetzeko duen hartze-gaitasuna ere kontuan
izan.
- c) Informazio-planoak.
- d) Egiturazko antolamenduaren planoak.
- e) Antolamendu xehatuaren planoak.
- f) Ekonomiaren eta finantzen aldetik duen bideragarritasunaren azterketa.

2.– Plan orokorretan hirigintzarako eta eraikuntzarako katalogoak eta ordenantzak ere sartu ahal
izango dira.

Bestalde, 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, urriaren 30ekoak, Lurzoruaren eta Hiri
Birgaitzearen Legearen testu bategina onartzen duenak Laburpen Exekutibo bat aurkezteko beharra
jasotzen du bere 25.3 artikuluan:

Artículo 25. Publicidad y eficacia en la gestión pública urbanística.

(...)

3. En los procedimientos de aprobación o de alteración de instrumentos de ordenación urbanística,
la documentación expuesta al público deberá incluir un resumen ejecutivo expresivo de los
siguientes extremos:

- a) Delimitación de los ámbitos en los que la ordenación proyectada altera la vigente, con un plano
de su situación, y alcance de dicha alteración.
- b) En su caso, los ámbitos en los que se suspendan la ordenación o los procedimientos de ejecución
o de intervención urbanística y la duración de dicha suspensión.

**Lurzorua eta Hirigintzari buruzko 2/2006 legeak ezarritako gutxieneko edukia badu
aurkeztutako dokumentuak. Baita 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuak Laburpen
Exekutiboa ere.**

II.3.3. Planaren ingurumen-dokumentu estrategikoaren edukia

21/2013 Legea, abenduaren 9koa, Ingurumen Ebaluazioari buruzkoaren 29. artikulua araber
Plana onartzeko prozedura substantiboaren barruan, sustatzaileak ingurumen-ebaluazio estrategiko
sinplifikatua hasteko eskaera aurkeztuko dio organo substantiboari, sektoreko legeriak eskatutako
dokumentazioarekin batera, planaren edo programaren zirriborroarekin eta ingurumen-dokumentu
estrategiko batekin batera. Artikulu horrek zehazten du ingurumen-dokumentu estrategikoaren
edukia zein den. Aurkeztutako dokumentuak badu gutxieneko edukia.



II.3.4. Plangintzaren bestelako eraginei dagokienez:

Otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 18.1 artikuluan ezartzen denaren arabera, planak formulatzerakoan ere kontuan hartu behar da emakumeen eta gizonen artean berdintasuna lortzearen helburua.

Hala, memoriaren II. eranskinean ospitale berriaren diseinurako gomendioak txertatu dira genero ikuspegia barneratzeko.

Bestetik, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 7. artikuluan udal euskaldunetako egoera soziolinguistikoan eragina izan dezaketean proiektu eta plangintzak onesteko prozeduran ekimen horiek euskararen erabilerari dagokionez izan lezaketean inpaktua ebaluatuko da.

Honen harira, 2024ko urtarrilaren 16an Tolosako Udaleko Euskara eta Hezkuntza Departamentuko Zerbitzuburuak txostena idatzi du eragin linguistikoari buruzko irismen dokumentuari buruz eta honakoa proposatzen du:

“BAKARRA.- Tolosaldeko ospitale publikoa eraikitzeko HAPOaren aldaketari ez egitea hizkuntza-inpaktuari buruzko azterlana, irismen-dokumentuan ondorioztatu baita proiektuak ez duela eragin adierazgarririk izango Tolosako egoera soziolinguistikoan.”

II.4.- HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRA PUNTUALKI ALDATZEKO ESPEDIENTEAK JARRAITU BEHARREKO PROZEDURA

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 104. artikulua xedatzen duenez, hirigintza-zehaztapenak berrikusteko eta aldatzeko espedienteak izapidetzeko, **haiek onartzeko jarraitutako prozedura bera bete behar da.**

Plan Orokorrak izapidetzea eta onartzea aipatutako legezko xedapenaren 90. artikuluan eta hurrengoetan arautzen da:

“90. artikulua.– Plan orokorra egin eta izapidetzea.

1.– Udalari dagokio plan orokorra egitea. Egitea erabakitzen denean, informazioa eskatuko zaie Eusko Jaurlaritzan eta dagokion foru-aldundian babes zibilaren, ingurumenaren, kultura-ondarearen eta naturguneen alorreko eskumenak dituzten organoei, arriskuen berri izateko eta ingurumena, kultura-ondarearen babesa eta naturguneak baldintzatzen dituzten faktoreak zeintzuk diren eta antolamenduak zeintzuk errespetatu behar dituen jakiteko. Informazio hori emateko, bi hilabeteko epea egongo da, eta justifikazio tekniko eta juridikoarekin batera emango da.

(...)

3.– Aurrerakina egindakoan, udalak jendaurrean jarriko du bi hilabetez gutxienez, epe horretan iradokizunak eta alternatibak aurkeztu ahal izateko. Jendaurrean jarri behar denean, horren berri emango da lurralde historikoko aldizkari ofizialean eta lurraldean hedadura gehien duen egunkarian edo egunkarietan. Aurrerakina udal mugakideetara bidaliko da ezagutu dezaten; eta, Arabako kasuan, baita administrazio-batzarretara ere, ezagutu dezaten eta proposatutako antolamenduaren oinarritzko alderdiei buruz txostena egin dezaten.

4.– Jendaurreko erakustaldiaren eta herritarren eta erakundeen parte-hartzearen emaitzak aztertuta, udalak plan orokorra idazteko oinarritzko irizpide eta helburuak zehaztuko ditu. Onartzen diren irizpide eta helburuak ingurumen-eraginaren baterako ebaluazioari buruzko txostenarekin bat ez datozenean, berriaz arrazoitu behar da hartutako erabakia.

5.– Udalak hasierako onspena emango dio plan orokorrari, eta ondoren jendaurrean jarriko du, udalerriri dagokion lurralde historikoko aldizkari ofizialean eta lurraldean hedadura



gehien duen egunkarian edo egunkarietan argitaratuz. Plana hilabetez egongo da jendaurrean, azken argitalpenetik kontatzen hasita. Sektoreko eskumenak dituzten herri-administrazioei ere emango zaie hasierako onespeneren berri, ezagutu dezaten eta txostena egin dezaten; eta, Arabako kasuan, baita udalerriko administrazio-batzarrei ere.

6.– Jendaurreko erakustaldiaren emaitzak ikusita, udalak behin-behingo onartuko du plan orokorra, bidezko iritzitako egokitzapenak eginda. Dena den, egokitzapen horiek hasieran aurreikusitako egiturazko antolamenduaren funtsa aldatzen badute, udalak hasierako onespenera eman beharko dio berriz planari eta jendaurreko erakustaldia irekiko du berriz, behin-behingo onartu aurretik

Aurrekarietan adierazi den bezala Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 108. artikulua ezartzen duen herritarrek parte hartzeko programa onartu zen 2021eko irailaren 30ean eta, horri jarraiki, 2023ko azaroak 8an lehen saioa gauzatu zen Udaleko Pleno aretoan. Tolosako Udaleko web orrian ere argitaratu da HAPOren Aldaketa Puntual honekin erlazionatutako dokumentazioa.

Bestalde, Tolosako Udalbatzak, 2012ko martxoaren 27an egindako osoko bilkuran, hasierako onspenera eman zion Tolosako Udal Plangintza Aholku Batzordearen Araudiari, indarrean zegoena bertan behera utzi ondoren. Erabaki horretan xedatu zen onartutako araudia behin betiko onartuzat joko zela, jendaurreko tramitean alegaziorik aurkeztu ezean. Jendaurreko tramitean ez zen alegaziorik aurkeztu, eta ondorioz araudia behin betikoz onartua geratu zen.

Araudi horren 5. artikulua Udal Plangintzako Aholku Batzordearen edukiak eta egin beharreko txostenak zehazten ditu:

“5. artikulua. Aholku Batzordearen edukiak. Txostenak egitea.

1. Udal Plangintzako Aholku Batzordeak Udalak landutako edota ezarritako hirigintzako plangintzako zein gauzatze faseko tresnak, azterketak, programak, zuzentarauak eta jarduera ildoak aztertu ahal izango ditu. Era berean, derrigorrean hartu beharko du parte egiturazko antolamenduari eragiten dioten plangintza tresnen lehen formulazioko, berrikuste osoko, berrikuste partzialeko edota aldakuntza puntualeko espedienteen inguruko kasuetan.

(...)

3. Plan Orokorraren, Sektorizazio Planaren edota Bateragarritasun Planaren aldakuntza puntualeko espedienteetan, derrigorrezkoa izango da proposaturiko agiriaren edukiari buruzko txostena aurkeztea, hasierako onarpena emateko. Plangintzaren aurrerakin dokumenturik egonez gero, bere edukiari buruzko txostenak aipaturiko planteamenduei hasierako onarpena emateko agiriari buruzko txostena ordezkatu ahal izango du.

(...)”

Aurretik adierazi den moduan HAPOren Aldaketa Puntuala Udal Plangintzako Aholku Batzordeari aurkeztu zitzaion 2024ko apirilaren 12an.

Bestalde, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.c) artikulua aplikatuz, Osoko Bilkura da plangintza orokorrari buruzko erabakiak hartzeko eskumena duen organoa.

II.5.- PLANAREN INGURUMEN-EBALUAZIO ESTRATEGIKOA. PROZEDURA SINPLIFIKATUA:

46/2020 DEKRETUA, martxoaren 24koa, lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituenaren 31 eta 32. artikuluen arabera udalak HAPOren Aldaketari hasierako onspenera eman diezaioke ingurumen-ebaluazio estrategiko arruntik egin behar ez denean.



2024ko irailaren 10ean Industria, trantsizio energetiko eta jasangarritasun saileko ingurumen jasangarritasuneko sailburuordetzako ingurumen kalitatearen eta ekonomia zirkularraren zuzendaritzaren irismen agiria jaso da; bertan, honakoa ebatzen da, besteak beste: Ingurumen-txosten estrategikoa egitea eta ez dela aurreikusten planak ingurumenean ondorio kaltegarri nabarmenik izango duenik, eta, beraz, ez dela ingurumen-ebaluazio estrategikoa arruntik egin behar.

Beraz, **HAPOn Aldaketari hasierako onespena eman diezaioke Udaleko Osoko Bilkurak.**

II.6.- TXOSTEN SEKTORIALAK: Ingurumen organoak bere prozeduran eskatutako gainerako txostenez gain, honako administrazioen aldeko txosten sektorialak beharko dira planari behin-betiko onspena eman ahal izateko:

- Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila eta Osakidetza
- EJ-ko kultura eta hizkuntza politika saila
- GFA-ko Kultura, Lankidetzak, Gazteria eta Kirola departamentua
- GFA-ko Bide Azpiegiturak departamentua
- UR Agentziaren eta Kantauriko Konfederazio Hidrografikoa
- Gipuzkoako Ur Kontsultoria
- Ekonomia eta enpresa Ministeritzako Telekomunikazio eta Informazioaren Teknologien Zuzendaritza Nagusia (Komunikazio elektronikoaren hedapenaren txostena)
- Zortasun aeronautikoen arloko Ministeritza

(...)>>

II. AZTERKETA JURIDIKOA

2024ko urriaren 18n hirigintzako tekniko juridikoak txosten juridikoa (MAU240130) egin zuen eta, besteak beste, honakoa jaso zuen:

«LEHENA.- Gairen inguruan egiten den honako **azterketa juridikoa**:

Azterketa juridikoari dagokionez, oro har, 2024ko apirilaren 4ko txostenean (MAU24054) esandakoari lotzen natzaio. Kontuan izanik, ordea, EJko Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia zirkularraren Zuzendaritzaren ingurumen-txosten estrategikoan jasotakoa, hau da, Tolosako HAPOk «24. lurre» hirigintza esparruko aldaketa puntualak ez duela ondorio nabarmenik ingurumenean, aintzat harturik bete beharreko hirigintza-plangintzaren prozedura zein ingurumen-prozedura, honako hau da espediente honetan jarraitu beharreko eta jada jarraitzen ari den prozedura:

HIRIGINTZA-PLANGINTZAREN PROZEDURA.	INGURUMEN-PROZEDURA.
2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, lurzoruari eta hirigintzari buruzkoa. 105/2008 Dekretua, ekainaren 3koa.	21/2013 Legea, abenduaren 9koa, ingurumen-ebaluazioari buruzkoa.
1.- Dokumentua idaztea erabaki ondoren, informazioa eskatuko zaie organo eskudunei (Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 90.1 artikulua). Hasteko erabakiarekin batera, herritarrek parte hartzeko programa aurkeztuko da (Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 108. artikulua).	



<p>2.- Plan Orokorra aldatzeko dokumentua idaztea (2/2006 Legearen 90.4 artikulua).</p>	<p>2.bis.- Aldi berean, udalak hasierako dokumentu estrategikoa eta IEE sinplifikatua hasteko eskaera egingo ditu.</p> <p>3.- Espedientea aurkeztu duen ingurumen-organoari (aldaketa eta hasierako dokumentu estrategikoa) eragindako administrazio publikoen eta pertsona interesdunen kontsultak bidaltzea hilabeteko epean.</p> <p>4.- Ingurumen-organoak bi hilabeteko epean formulatzen du ingurumen-txosten estrategikoa, eta zehazten du ea ez duen ondorio nabarmenik ingurumenean, edo ea IEE arrunta egin behar zaion (Ingurumen-ebaluazioari buruzko Legearen 31. artikulua).</p>
<p>1. aukera. Dekretuaren 38.3.c) artikulua. <u>Aldaketak ez du ondorio nabarmenik Ingurumenean.</u></p>	
<p>5.- Udalak hasierako onespina emango dio Plan Orokorraren aldaketari.</p> <p>6.- Aldizkarian eta egunkarian argitaratzen denetik gutxienez 45 eguneko epean jendaurrean jarriko da.</p> <p>Onespina sektoreko administrazioei eta administrazio-batzarrei jakinaraziko zaie.</p> <p>Laburpen exekutiboa argitaratzea (105/2008 Dekretuaren 32. artikulua).</p> <p>7.- Plan Orokorraren aldaketa behin-behinean onartzea, dagozkion aldaketekin. Araban, erabakia igorriko die administrazio-batzarrei (Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 90.6 artikulua).</p> <p>8.- Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordearen txostena (2/2006 Legearen 91.2 artikulua). Epea: 3 hilabete.</p> <p>9.- Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordearen txostena udalari bidaliko zaio.</p> <p>10.- 7.000 biztanletik beherako udalerrietan, udalak espediente osoa bidaliko dio foru-aldundiari, behin betiko onar dezan.</p>	
<p>11.- Udalak edo, hala badagokio, foru-aldundiak behin betiko onartzea, eta ALHAOn argitaratzea, hirigintza-arauekin batera. (2/2006 Legearen 89.5 eta 91.4 artikulua).</p> <p>EHAAn eta ingurumen-organoaren egoitza elektronikoan argitaratzea, aldaketa behin betiko onartzeko ebazpena eman eta 15 egun balioduneko epean, organo substantiboaren helbide elektronikoa aipatuta. (Ingurumen-ebaluazioari buruzko Legearen 26. artikulua).</p>	

Espedientea une honetan, 4. tramitea beteta, ingurumen-txosten estrategikoa igorrita, alegia, 5. eta 6. tramiteak betetzeko unean dago. Beraz, prozeduran hurrengo urratsa da Tolosako HAPOko «24.lurre» hirigintza esparruko aldaketa puntualaren hasierako onespina ematea eta dagokion argitalpenak zein jakinarazpenak egitea. Zehazki, udalak honako pausuak emango ditu:

- Udalbatzak, egindako azterlan teknikoak eta ingurumen-organoak emandako ingurumen-txosten estrategikoa ikusita, Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren aldaketari **hasierako onespina ematea** erabakiko du. Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.c) eta 47.2.1) artikuluetan ezarritakoarekin bat etorri, udalbatzako



kideen legezko kopuruaren gehiengo osoaren aldeko botoaz hartuko da erabaki hori.

- Plan orokorraren aldaketari hasierako onespena eman ondoren, **udalak jendaurrean jarriko** du, ingurumen-txosten estrategikoarekin eta hura arautzen duen araudian zehaztutako dokumentazioarekin batera. Horretarako, informazio publikoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta lurraldean zabalkunderik handiena edo zabalduena duen egunkarian edo egunkarietan argitaratuz egingo da, hilabeteko epean, azken argitalpenetik aurrera.

Era berean, informazioa emateko soilik, udal honen egoitza elektronikoan eta egokitzen jotzen diren gainerako baliabideetan egongo da eskuragarri, eta behin betiko onartu arte mantenduko da.

- Hasierako onespena sektore-eskumenak (JONEREN TXOSTENEAN IDENTIFIKATUTA DAUDE) dituzten administrazio publikoei jakinaraziko zaie, **ezagutu eta txostena egin** dezaten, ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 90.5 artikulua eta martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 27.1 artikulua arabera.

Dagozkion txostenak, horietan jasotako ohar eta oharrak – lotesleak direnak edo komenigarritzat jotzen direnak – jaso ondoren, Planaren zehaztapenei erantsi beharko zaizkie.

- Jendaurreko informazioaren eta kontsulten emaitzak ikusita, Udalak HAPO aldatzeko **proposamena** egingo du, Osoko Bilkurak **behin-behinean onar** dezan [Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.c) eta 47.2 II) artikulua], eta dagozkion aldaketak egingo ditu. Aldaketa horiek hasieran aurreikusitako egiturazko antolamendua nabarmen aldatzea badakarte, Udalak hasierako onspen berria emango dio, eta jendaurrean jartzeko beste epe bat irekiko du.
- HAPOren aldaketa behin-behinean onartu ondoren, Udalak Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeari bidaliko dio, gehienez ere hiru hilabeteko epean txostena egin dezan.
Batzordeak txostena jaso eta hiru hilabeteko epean txostenik egin ez badu, izapideekin jarraitu ahal izango da.

HAPOren aldaketa ezin izango da inola ere behin betiko onartu Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordearen txostena eman gabe edo txostena emateko epea igaro gabe, eta arau hori errespetatu gabe onartutako plan orokorrak erabat deusezak izango dira. Hala ere, epez kanpo emandako txostena ez da kontuan hartuko behin betiko onarpenean.

- Dagozkion aldaketak egin ondoren, Udalak HAPOren aldaketa **behin betiko onartzeko erabakia** hartu dezake, behin betiko onarpena bertan behera utzi, edo atzera bota, arrazoiak emanez. Ezespena partziala izan daiteke, baldin eta Lurralde Antolamendurako Batzordearen txosteneko eragozpenek eragiten badiete planaren gainerakoa modu koherentean aplikatzea eragozten ez duten zona edo zehaztapen zehatzei.
- HAPOren aldaketa behin betiko onartu ondoren, Udalak, plana onartu eta hamabost egun balioduneko epean, onartutako plana argitaratu beharko du Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean eta dagozkion lurralde historikoan zabalkunderik handiena duen egunkarian edo egunkarietan, martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 7. artikuluan adierazitako edukiarekin, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70. artikuluan adierazitako baldintzetan.
Halaber, udal honen egoitza elektronikoan egongo da eskuragarri.



Era berean, horren kopia osoa dagokion foru-aldundiko plangintza-erregistrora bidaliko da, gordailuan utz dezan.

BIGARRENA.- Rehabite Aholkularitza Teknikoa SLP eta Saragueta Aholkularitza SL enpresek, Tolomendiko ekarpenei erantzuteko egindako txostenean jasotakoa.

«Ezer baino lehen, aipatu behar da HAPOnen Moldaketaren Hasierako Onespenerako dokumentuan jasotzen zela mugikortasun plan zehatz bat landu beharko zena zirkulazioa, sartu-irtenak eta horiei lotutako beste alderdi batzuk zehazteko.

Hori aipatuta, Tolomendik egindako idatziaren gaineko iruzkinak eta **horiei egindako erantzuna** jasotzen dira ondoren:

1. TRAFIKO AZTERKETA

Idatzian aipatzen da herri gunean sor litekeen egoera aztertu behar dela.

Erantzuna:

HAPOnen aldaketa puntualaren dokumentuak jasotzen zuen bezala, proposamenaren egokitasuna edo beste parametroetara egokitu beharra zehaztuko duen berariazko "Mugikortasun Azterketa" bat garatzea beharrezkoa izango da.

HAPOnen aldaketa puntualari Hasierako Onespena ematen zaionean zenbait txosten sektorial eskatuko dira. Besteak beste, GFAko Bide Azpiegituretakoa eta GFAko Suiltzaileena. Beraz, eskumeneko administrazio publiko horien txostenetan jasotakoa kontuan hartuko da.

2. APARKALEKU-ERABILTZAILERAKOPURUA

Idatzian aipatzen da erabiltzaile kopurua aurreikusiko duen azterketa egin beharko dela.

Erantzuna:

HAPOnen Moldaketa bideratu aurretik, Osasun Saileko Sailburutzak, 2023ko maiatzak 11 datarekin, EH Bildu taldeko Ibai Iriarte San Vicente legebiltzarkideak egin zuen galderari erantzuteko, Tolosaldeako Plan Funtzionala bideratu zuen.

Lan horretan eskualdeko ospital berri bat egiteko beharrak zehazten dira. Horien artean, ospitalizatorako ohe kopurua (unitate batean, 30; bigarren batean, 22; eta hirugarren batean, 20). Horrez gain, jasotzen dira beharko diren lanpostuak, zerbitzuetarako azalerak eta abar. Aparkaleku kopurua, ordea, ez da zehazten.

Horren harira, aipatu behar da, 123/2012 Dekretuak, uztailaren 3koa, hirigintzako estandarrei buruzkoa, ez duela ezartzen jarduera mota hauetarako estandarrik.

Hasierako Onespenerako erredaktatutako dokumentuaren proposamenean jasotzen ziren 181 plaza solairuko, 2 solairutan, hau da, 362 plaza.

Aurreko atalean aipatu bezala, HAPOnen aldaketa puntualari Hasierako Onespena ematen zaionean zenbait txosten sektorial eskatuko dira. Osasun Sailari ere eskatuko zaio, eta erantzuna kontuan hartuko da.

3. SUHILTZAILEEN PARKEA

Idatzian aipatzen da suhiltzaileen parkea ospitalearen ondoan egotea egokia izango ote den jakiteko azterketa egin beharko dela.

Erantzuna:

HAPOnen aldaketa puntualari Hasierako Onespena ematen zaionean zenbait txosten sektorial eskatuko dira. Besteak beste, GFAko Bide Azpiegituretakoa eta GFAko Suiltzaileena. Beraz, eskumeneko administrazio publiko horien txostenetan jasotakoa kontuan hartuko da.

4. GARRAIO PUBLIKOA

Idatzian aipatzen da aztertu beharko dela egungo ibilbideen eta geltokien kokapenaren



egokitasuna, baita horrek trafikoan izango duen eragina.

Erantzuna:

Mugikortasun Azterketak jaso beharko du kontu hori.

5. HIRIGINTZA-OSASUNGINTZA LOTURA

Ulertzen dugunaren arabera, idatzian eskatzen da aztertzea Osasun Zerbitzu bakoitzak zer kokapen izan behar duen hirian.

Erantzuna:

Aurretik aipatutako Plan Funtzionalean Tolosaldeako ospitale berria abian jartzeko analisisia egiten da: zerbitzua jasoko lukeen biztanleria, eman beharreko zerbitzuak, egungo zerbitzuen azterketa eta abar. Lan horretan kontuan hartutako egungo zerbitzuen artean honakoak daude: La Asunción, San Estebango Buruko Osasuneko zentroa, Tolosako Anbulategia eta Tolosarrei arreta ematen zaien bestelako anbulategiak.

Lan horretan ere beste eskualde batzuetan ematen den zerbitzuarekin alderaketa egiten da, eta aipatutako informazioarekin ospitale berrirako proposamena egiten da: ohe kopurua, zerbitzuak eta horien beharrak (zuzkidurak, azalera...), langile kopurua...

Lan horren arabera egun dauden zenbait osasun zentroek jarraituko dute orainarteko zerbitzua ematen: horien artean daude San Estebango Buruko Osasuneko zentroa eta Anbulategia.

Hori dena aipatuta, argi utzi behar da ospitale publiko berriaren eragilea ez dela Udala. Udala kokapen horretan ospitalea ezartzeko hirigintzako izapideak egiten ari da. Osasun Sailaren/Osakidetzaren eskumeneko arloa da osasun publikoko zentroyen kokapena, Udalari egokitzuz udal plangintzaren barruan txertatzea eta plangintzaren egitura zein helburuekin bateragarri dela bermatzea.

6. EGUNGO KAMIOI-APARKALEKUAREN LEKU ALDAKETA

Udalak oraindik ez du honen inguruko erabakirik hartu baina, edozein kasutan, mugikortasunaren azterketa egiten denean aztertu daiteke>>>.

HIRUGARRENA.- Gairen inguruan hirigintza buruak, 2024ko urriaren 8an, egindako txosten teknikoko (JM24_042) azterketa teknikoan jasotakoa.

Kontuan izanik aurrekariak, hirigintza buruak egindako txosten teknikoa zein Rehabite Aholkularitza Teknikoa SLP eta Saragueta Aholkularitza SL enpresek egindako txostena, eta aplikatu beharreko lege-xedapenak, hauxe da ondorioztatzen dudana:

LEHENA.- HASIERAKO ONESPENA eman daiteke Rehabite Aholkularitza Teknikoa SLP eta Saragueta Aholkularitza SL enpresek idatzi eta aurkeztutako Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko <<24 lurre>> esparruaren aldaketa puntualari; bertan Tolosaldeako ospitalea kokatu ahal izateko.

BIGARRENA.- Jendaurrean jarri behar da Tolosako HAPOn aldaketaren hasierako onespena, ingurumen-txosten estrategikoarekin, berrogeita bost egun baliodun, udaleko iragarki-oholean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta lurraldean zabalkunderik handiena duten egunkarietan iragarkia jarrita.

Epe horretan, espedientea aztertu nahi duen edozeinen esku geratu beharko du, egoki iritzitako alegazioak aurkez daitezten. Era berean, eta informatzeko soilik, Udal honen egoitza elektronikoan ere egon beharko du eskuragarri [<https://udala.tolosa.eus/eu/udal-administrazioa/iragarki-taula>].

HIRUGARRENA.- Jarraian zerrendatzen diren sektoreko eskumenak dituzten herri-



administrazioei jakinarazi beharko zaie, jakinaren gainean egon daitezen, kontsultak egin eta txostenak egin ditzaten aldaketa puntualari behin-behin betiko onespena eman ahal izateko. Ohar horiek Planaren zehaztapenetan sartuko dira.

- Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila eta Osakidetza.
- EJ-ko kultura eta hizkuntza politika saila.
- GFA-ko Kultura, Lankidetzeta, Gazteria eta Kirola departamentua.
- GFA-ko Bide Azpiegiturak departamentua.
- UR Agentziaren eta Kantauriko Konfederazio Hidrografikoa.
- Gipuzkoako Ur Kontsorzioa.
- Ekonomia eta enpresa Ministeritzako Telekomunikazio eta Informazioaren Teknologien Zuzendaritza Nagusia (Komunikazio elektronikoen hedapenaren txostena).
- Zortasun aeronautikoen arloko Ministeritza.

LAUGARRENA.- Edozein motatako onarpen, baimen eta lizentzia ematea etetea plangintzaren xede diren lurralde-eremuetarako, baldin eta eremu horien zehaztapen berriek indarrean dagoen hirigintza-araubidea aldatzea badakarte. Etendurak eragindako eremua zehazki izango da HAPOren aldaketa puntualak ezartzen duen «24.2 *lurramendi Ospitalea*» azpiero berriak hartzen duen 8.497,18 m²-ko azalera duen lursaila.

Etenduraren iraupena bi urtekoa izango da.

Etendura hori hasierako onespenerekin batera argitaratuko da.

BOSGARRENA.- Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko “24 *lurre*” esparruaren aldaketa puntualari hasierako onspena emateko proposamenaren berri eman behar zaio Udal Plangintzako Aholku Batzordeari».

Tolosako udaleko Lurraldea Batzordeak, 2024ko urriaren 23an egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu du. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

Aldeko botoak: Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Aitzol Garzia Azurmendi, Aitor Agirresarobe Murgi, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria eta Jose Mari Villanueva Telleria.

Beraz, hori dena ikusirik, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

IRIZPENA

LEHENA.- HASIERAKO ONESPENA ematea Rehabite Aholkularitza Teknikoa SLP eta Saragueta Aholkularitza SL enpresek idatzi eta aurkeztutako Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko «24 *lurre*» esparruaren aldaketa puntualari; bertan Tolosaldeako ospitalea kokatu ahal izateko.

BIGARRENA.- Jendaurrean jartzea Tolosako HAPOren aldaketaren hasierako onspena, ingurumen-txosten estrategikoarekin batera, berrogeita bost egun balioudun, udaleko iragarki-oholean,



Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta lurraldean zabalkunderik handiena duten egunkarietan iragarkia jarrita.

Epe horretan, espedienteaz aztertu nahi duen edozeinen esku jartzea, egoki iritzitako alegazioak aurkez daitezten. Era berean, eta informatzeko soilik, Udal honen egoitza elektronikoan ere eskuragarri jartzea [<https://udala.tolosa.eus/eu/udal-administrazioa/iragarki-taula>].

HIRUGARRENA.- Jarraian zerrendatzen diren sektoreko eskumenak dituzten herri-administrazioei jakinaraztea, jakinaren gainean egon daitezten, kontsultak egin eta txostenak egin ditzaten aldaketa puntualari behin-behin betiko onespina eman ahal izateko. Ohar horiek Planaren zehaztapenetan sartuko dira.

- Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila eta Osakidetza.
- EJ-ko kultura eta hizkuntza politika saila.
- GFA-ko Kultura, Lankidetzak, Gazteria eta Kirola departamentua.
- GFA-ko Bide Azpiegiturak departamentua.
- UR Agentziaren eta Kantauriko Konfederazio Hidrografikoa.
- Gipuzkoako Ur Kontsultak.
- Ekonomia eta enpresa Ministeritzako Telekomunikazio eta Informazioaren Teknologien Zuzendaritza Nagusia (Komunikazio elektronikoaren hedapenaren txostena).
- Zortasun aeronautikoen arloko Ministeritza.

LAUGARRENA.- Edozein motatako onarpen, baimen eta lizentzia ematea etetea plangintzaren xede diren lurralde-eremuetarako, baldin eta eremu horien zehaztapen berriek indarrean dagoen hirigintza-araubidea aldatzea badakarte. Etendurak eragindako eremua zehazki izango da HAPOn aldaketa puntualak ezartzen duen «24.2 Iurramendi Ospitalea» azpierreku berriak hartzen duen 8.497,18 m²-ko azalera duen lursaila.

Etenduraren iraupena bi urtekoa izango da.

Etendura hori hasierako onespinarekin batera argitaratuko da.

BOSGARRENA.- Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko “24 Iurre” esparruaren aldaketa puntualari hasierako onespina emateko proposamenaren berri ematea Udal Plangintzako Aholku Batzordeari.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko Botoak: Angel Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Goiuri Ezeiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Josune Sanz Vidal, Aitor Agirresarobe Murgi, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles Iturbe Pasaban, Biotxa Agirre Ugalde, Leire Zubeldia Rezola, Javier Zabala Sastre, Ainhoa Dominguez Landa, Patxi Amantegi Zubiria eta Iker Uson Gonzalez.

Beraz, Udalbatzak, aho batez, hasierako onespina eman dio Tolosako HAPOk «24.IURRE» hirigintza-esparruaren aldaketa puntuala, bertan Tolosaldeako Ospitalea kokatu ahal izateko.



**7. «13 LASKOAIN» ESPARRUKO «13.1 SAN FRANTZISKO PASEALEKUA 37»
AZPIESPARRUKO XEHETASUN-AZTERKETAREN ETA AZPIESPARRUA EGIKARITZEKO
ARAUBIDEAREN ALDAKETAREN HASIERAKO ONESPENAREN ONDOTIK AURKEZTU
DIREN ALEGAZIOAK ERANTZUTEA ETA BEHIN BETIKO ONESPENA EMATEA.**

Lurraldea Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorraren 2024ko urriaren 23ko irizpena

IKUSIRIK

LEHENA.- Tolosako Udaleko Udaltzarak, 2024ko otsailaren 29an, Ohiko Osoko Bilkuran, besteak beste, erabaki zuela hasierako onespena ematea Tolosako Hiri Ordenazioko Plan Orokorren Katalogoaren aldaketari. Zehazki, proposatutako aldaketa izan zela: II. Mailako babesa duten D – Udal-intereseko ondasun higiezin zerrendan barneratzea San Frantzisko Pasealekua 37 zenbakian dagoen «Villa Sagrado Corazon» eraikina. Hala, erabakiaren iragarkia, 2024ko martxoaren 19an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zela (56 zk.).

BIGARRENA.- «Villa Sagrado Corazon» eraikina Tolosako Hiri Ordenazioko Plan Orokorren Katalogoan barneratuz finkatuta dagoela ulertuta, Jaitzubia Barri SL enpresa sustatzaileak eskaera egin zuela Tolosako Udaltzarak, 2022ko urtarrilaren 27an, Ohiko Osoko Bilkuran behin betiko onetsitako «13 Laskoain» esparruko «13.1 San Frantzisko pasealekua 37» azpiesparruko xehetasun-azterketa eta azpiesparrua egikaritzeko araubidea aldatzeko.

HIRUGARRENA.- Aurkeztutako eskaera aztertzeko, 2024ko apirilaren 25 eta 26ean, hirigintza buruak (JM24_29) zein hirigintzako tekniko juridikoak (MAU24062), hurrenez hurren, txosten bana egin zutela.

LAUGARRENA.- Tolosako Udalean, 2024ko apirilaren 26an, Uraren Euskal Agentziaren hasierako komunikazioa jaso zela.

BOSGARRENA.- Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak, 2024ko apirilaren 30ean, besteak beste, erabaki zuela hasierako onespena ematea «13 Laskoain» esparruko «13.1 San Frantzisko pasealekua 37» azpiesparruko xehetasun-azterketaren eta azpiesparrua egikaritzeko araubidearen aldaketari.

SEIGARRENA.- 2024ko maiatzaren 6tik 23ra bitartean, honako hauei hartutako erabakia jakinarazi zitzaizela: Jaitzubia Barri SL, Hijas de la Caridad de San Vicente de Paul, Oria 4ko jabekideak, Oihane Beloki Zubiri, SF 35zk. jabekideak, Oria 6ko jabekideak, SF39ko jabekideak eta SF 39, 39A, 41 eta 41Ako jabekideak.

ZAZPIGARRENA.- 2024ko maiatzaren 8an, Jaitzubia Barri SL enpresak, Oihana Miren Urruticoechea Garciak ordezkaturik, Tolosako Udalean idatzi bat aurkeztu zuela, oro har, eskatuz eteteko bere egunean onetsitako «13.1 San Frantzisko pasealekua 37» azpiesparruko urbanizatzeko jarduketaren programa zein urbanizazio-proiektua.

ZORTZIGARRENA.- 2024ko maiatzaren 13an, «13 Laskoain» esparruko «13.1 San Frantzisko pasealekua 37» azpiesparruko xehetasun-azterketaren eta azpiesparrua egikaritzeko araubidearen aldaketaren hasierako onespeneren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (91 zk.) argitaratu zela. Hala, udaleko web orrian zein iragarki taulan iragarri zela 2024ko maiatzaren 13tik ekainaren 11 bitarte. Honekin batera, 2024ko maiatzaren 14an eta 15ean, iragarkia argitaratu zela Berria eta Tolosaldeko Atarian zein Diario Vasco aldizkarietan. Honela, informazio publikoko epea 2024ko ekainaren 12an amaitu zela.



BEDERATZIGARRENA.- 2024ko ekainaren 6 eta 7 bitartean honako alegazioak jaso zirela: San Frantzisko 35 eta 39A zenbakiko jabekideen erkidegoenak eta Oria kalea 6 zenbakiko jabekideek erkidegoarenak. Hiru atarrietako alegazioak Gonzalo Arrúe Portu letraduak ordezkatuta aurkeztu zirela.

HAMARGARRENA.- Tolosako Udalean, 2024ko ekainaren 11n, Gipuzkoako Ur Kontsorzioaren txostena aurkeztu zela, besteak beste, dokumentazio osagarria eskatuz. Hori horrela, hurrengo egunean, sustatzaileari jakinarazi zitzaioela.

HAMAIKAGARRENA.- 2024ko ekainaren 17an, hirigintzako tekniko juridikoak jendaurrekoari buruzko txostena (MAU24086) egin zuela eta, hurrengo egunean, udaleko idazkariak txosten horren gainean ziurtagiria eman zuela.

HAMABIGARRENA.- Sustatzaileak udalean aurkeztutako etete eskaeraren inguruan, 2024ko ekainaren 26an, hirigintzako tekniko juridikoak txostena (MAU24083) egin zuen.

HAMAIRUGARRENA.- 2024ko uztailaren 16an, Uraren Euskal Agentziak eta Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak, Tolosako «13.1 San Frantzisko pasealekua 37» hiri antolamenduko azpiesparruko Xehetasun azterketaren aldaketaren izapide barruan, txostenak helarazi zuela. Eta, hala, 2024ko uztailaren 22an, sustatzaileari igo zitzaioela.

HAMALAU GARRENA.- 2024ko abuztuaren 19an, Jaitzubia Barri SL enpresak, Oihana Miren Urruticoechea Garciak ordezkatuta, «13 Laskoain» esparruko «13.1 San Frantzisko pasealekua 37» azpiesparruko xehetasun-azterketaren eta azpiesparrua egikaritzeko araubidearen aldaketari dagokion dokumentua zuzenduta aurkeztu zuela. Eta, egun berean, Uraren Euskal Agentziari igorri zitzaioela.

HAMABOSGARRENA.- 2024ko irailaren 18an, Jaitzubia Barri SL enpresak, Oihana Miren Urruticoechea Garciak ordezkatuta, aurkeztutako alegazioei buruzko txostena aurkeztu zuela udalean.

HAMASEIGARRENA.- 2024ko urriaren 10ean, sustatzaileak emailez Xehetasun Azterketaren Aldaketan zehaztutako bolumetria adierazten duten argazkiak aurkeztu zituela.

HAMAZAZPIGARRENA.- 2024ko urriaren 14an, Jaitzubia Barri SL enpresak, Oihana Miren Urruticoechea Garciak ordezkatuta, «13 Laskoain» esparruko «13.1 San Frantzisko pasealekua 37» azpiesparruko xehetasun-azterketa eta azpiesparrua egikaritzeko araubidea aldatzeko Testu Bategina aurkeztu duela.

HEMEZORTZIGARRENA.- 2024ko urriaren 17an, Kantauri Isurialdeko Konfederazioaren aldeko txostena jaso zen.



KONTUAN HARTURIK

LEHENA.- 2024ko urriaren 15ean, hirigintza buruak egindako **TXOSTEN TEKNIKOAn** (JM24_066), besteak beste, jasotakoa:

<<

- **TXOSTENAREN HELBURUA:**

Txosten hau idazten da xehetasun-azterketaren eta azpiesparrua egikaritzeko araubidearen aldaketaren Testu Bateginari buruzko informazioa emateko.

- **DOKUMENTUAREN HELBURUA:**

Xehetasun-azterlanaren aldaketa honen helburua da eremuaren antolamendu xehatua egokitzea, bai lurzati eraikigarriena, bai zuzkidura publikoena, 13.1 azpierenmuaren hirigintza-araubide orokorra arautzen duten baldintzak errespetatuz.

Zehazki, xehetasun-azterlanaren hainbat parametro aldatu dira, eraikina finkatzearen ondorioz; horrela, eraikinaren lerrokaduretara eta altueretara egokitu da antolamendua, aldatzen den xehetasun-azterlanean ordenatzen zenaren aztarna murriztuz.

Atzealdean dagoen eraikinari dagokionez, dokumentu honek xehetasun-azterketan zehaztutako lerrokadurak eta sestrak, altuera eta solairu-kopurua aldatzen ditu; hori guztia, 13.1 azpierenmurako definitutako hirigintza-eraikigarritasun osoa errespetatuz. Bestalde, plangintza orokorretik eratorritako bideen edo zuzkidura publikoen azalera ere egokitu egin du; proposatutako egokitzapenarekin aipatutako azalera handitu egingo da.

Antolamendu xehatuaren zehaztapenak edozein lurzoru-motatan osatzeko edo egokitzeko dira xehetasun-azterketak. Plangintzan aurreikusita ez badago, xehetasun-azterketak berak erakutsi behar du zehaztapen horiek osatu edo egokitzeko beharra dagoela edo hala komeni dela Lurzorua eta Hirigintzako 2/2006 Legeko 73.1 artikulua araberara.

Lege bereko 73.2 artikulua zehazten du xehetasun-azterketen zehaztepenak zertara mugatuko diren:

“2.- Gauza hauetara mugatuko dira xehetasun-azterketak:

a) Antolamendu xehatuak agindutako sestrak eta lerrokadurak adieraztea, zuzentzea edo osatzea.

b) Bolumenak dena delako plangintzan aurreikusitakoaren arabera antolatzea. Bolumenen berrantolaketa tipologikoaren edo morfologikoaren ondorioz hala egiteko beharra badago edo hala egitea komeni bada, bide berriak egiteko edo zuzkidura publiko berriak egiteko lurzoruaren kalifikazioa ere jaso daiteke antolaketa horretan.

c) Urbanizatzeko-lanen, eraikuntzen, instalazioen eta gainerako obra eta hiri-elementu osagarrien alderdi eta ezaugarri estetiko eta konpositibo batzuk arautzea. Ezaugarri horiek antolamendu xehatuan egongo dira jasota.”



Kasu honetan, lerrokadurak egokitzea 73.2.a puntuarekin bat dator.

Proposatutako bolumenen berrantolaketa eta zuzkidura publikoen gehikuntza, berriz, 73.2.b puntuan barneratu daitezke.

Hala ere, Lurzorua eta Hirigintzako 2/2006 Legeko 73.3 artikulua arabera:

“3.– Xehetasun-azterketek ezingo dute, inola ere, kasuan kasuko plangintzak azterlan horiek egiteko ezarritako aurreikuspenak urratu edo horiei kasurik ez egin. Halaber, ezingo dute lurzoruari izendatutako erabilera aldatu, eraikigarritasuna handitu eta plangintzak dakartzan bideak edo zuzkidura publikoak ezabatu edo gutxiarazi, aurreko paragrafoko b) letran xedaturikoari ezer kendu gabe”.

Beraz, hurrengo puntuetan aztertuko da aurkeztutako proposamenak indarreko plangintzak (Tolosako HAPOk) ezarritako aurreikuspenak errespetatzen ote dituen.

• **EGITURAZKO HIRIGINTZA-ARAUDIA BETETZEA:**

Tolosako Plan Orokorraren arabera, lursail hori “13. Laskoain” izeneko hirigintza esparruko 13.1. San Frantzisko Pasealekua 37 azpiesparruan dago. Azpiesparru hau hiri-lurzoru bezala sailkatuta dago eta A.20 Eraikuntza Irekiko Bizitegi Zona bezala kalifikatua dago. Proposatutako egiturazko hirigintza-parametroen azterketa hauxe da:

		TOLOSAKO HAPO	INDARREKO XEHEBASUN AZTERKETA	XEHETASUN AZTERKETAREN ALDAKETA	BETETZEN DU (BAI/EZ)
AZPIESPARRUAREN AZALERA (m2)		1.512	1.547 (plano topografiko zehatzaren ondorio da neurketa hau)	1.547 (plano topografiko zehatzaren ondorio da neurketa hau)	BAI (<%5)
HIRIGINTZA- ERAIKIGARRITASUNA (m2(s))	SESTRA GAINEAN	2.847	2.847	2.847	BAI
	SESTRA AZPIAN	3.280	3.280	3.280	BAI
KALIFIKAZIO GLOBALA (m2)		A.20 ERAIKUNTZA IREKIKO BIZITEGI ZONA (1.512)	A.20 ERAIKUNTZA IREKIKO BIZITEGI ZONA (1.547)	A.20 ERAIKUNTZA IREKIKO BIZITEGI ZONA (1.547)	BAI
HIRIGINTZA-SAILAKAPENA		Hiri-lurzorua	Hiri-lurzorua	Hiri-lurzorua	BAI


HAPOko azpiesparruaren muga aldatu egiten da zertxobait eragileak egindako plano topografiko zehatzaren ondorioz. Baina HAPOko 15.3 artikuluarri jarraiki, plangintza xehatuaren xede den esparruaren mugaketaren birdoikuntzak onargarriak dira esparru horien azalera %5 baino gehiago handitu edo murrizten ez bada.



Xehetasun Azterlanean gehienezko lerrokadurak definitu dira baina hirigintza-erakigarritasunari dagokionez, indarrean dagoena mantendu da. Beraz, **betetzen dira egiturazko parametro guztiak.**


• **HIRIGINTZA-ERREGIMEN XEHATUA BETETZEA:**

Indarrean dagoen hirigintza erregimen xehatua 2022ko urtarrilaren 27an udalbatzak behin betiko onartutako Xehetasun Azterketak definitutakoa da:



indarrean dagoen antolamendu xehatua

ESKU54de317c-28e0-4696-b110-16aaf6c0d820




proposatutako antolamendu xehatua

	INDARREAN DAGOEN XEHETASUN AZTERKETA			XEHETASUN AZTERKETAREN ALDAKETA			BETETZEN DU (BAI/EZ)
KALIFIKAZIO XEHATUA (m2)	Erabilera pribatua Hirugarren sekt.	495,00	547,80	Erabilera pribatua Hirugarren sekt.	341,00	341,00	BAI
	Erabilera pribatua Eraikiezina	56,00		Erabilera pribatua Eraikiezina	0,00		
	Erabilera publikoko eraikina	0,00	964,20	Erabilera publikoko eraikina	210,00	1.206,00	
	Erabilera publikoko lurzorua	964,20		Erabilera publikoko lurzorua	996,00		
ETXEBIZITZEN ERREGIMENA	Etxebizitza libreak			Etxebizitza libreak			BAI
ETXEBIZITZA KOPURUA	Ez da zehazten			Ez da zehazten			BAI
ERAKINAREN PROFILA	1 BLOKEA	III+BS+IV		1 BLOKEA	III+BS+IV		BAI
	2 BLOKEA	III+BS+V+A		2 BLOKEA	III+BS+V+A		BAI



13. LASKOAIN
13.1 PASEO SAN FRANCISCO 37



proposatutako antolamendu xehatua

Batetik, «Villa Sagrado Corazon» eraikina finkatzearen ondorioz lerrokadurak eta altuerak egokitzen dira eraikinaren ezaugarrietara eta atzeko eraikinaren lerrokadurak eta sestrak, altuera eta solairu-kopurua egokitzen dira. Bestetik, proposatutako antolamenduak lehendik aurreikusitako erabilerak doitzen ditu. Proposamena aztertuta ondorioztatzen da egin nahi diren aldaketekin erabilera publikoko azalera ez dela gutxitzen; kontrakoa, gehitu egiten da. Beraz, **proposatutako antolamendu xehatua egokia da.**

• **PLANAREN OHIKO INGURUMEN-EBALUAZIO ESTRATEGIKOA:**

46/2020 Dekretuak, martxoaren 24koak, lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituenak, bere 6.3 artikuluan honakoa jasotzen du lurralde- eta hirigintza-plangintza ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozeduraren mende jartzearen inguruan:

“2.– Ez dira ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozeduraren mende jarri behar ez xehetasun-azterlanak, ez eraikingintza- edo hirigintza-ordenantzak, ez arkitektura- edo hirigintza-ondarea babesteko katalogoak, ez baitira plantzat hartzen, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen arabera. Gainera, prozedura hori ez da beharrezkoa, halakoak garrantzi txikikoak baitira eta ez baitute batere gaitasun berritzailerik, hirigintza-antolamenduaren ikuspegitik.


Beraz, Xehetasun Azterketaren aldaketa hau ez dago ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozeduraren mende.

• **AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEN ONDORIOAK:**

San Frantzisko 35 zenbakiko jabekideen erkidegoak aurkeztutako alegazioan, besteak beste,



beraien garajera sartu ahal izateko arrapala zabaltzeko aukera jasotzeko eskatu zen. Nahiz eta ez dagokion xehetasun-azterketaren aldaketako dokumentu honi aukera hau jasotzea, azpiesparru honen muga aldatzea dakarrelako, ordezko irtenbide bat adostu ahal izateko, San Frantzisko 37 azpiesparruko sotoko alineazioak aldatu egin dira. Horrela, etorkizunean Udala eta bizilagunen artean dagokion Hitzarmena izenpetu eta arrapala zabaltzeko aukera egingarria izan dadin.



proposatutako lerrokadurak

- **TXOSTEN SEKTORIALAK:**

Eragindako eremua Oria ibaiaren zaintza eremuan sartzen da. Beraz, xehetasun azterketaren aldaketa dokumentua Ur agentziari bidali zen eta behin betiko onespena emateko beharrezkoa izango da erakunderen aldeko txostena.

- **TXOSTEN JURIDIKOA:**

Txosten tekniko honen osagarri, alderdi juridikoen azterketa txosten juridikoan egingo da.

3.- ONDORIOA:

Beraz, kontuan izanda Xehetasun Azterketaren Aldaketak antolamendu xehatuak agindutako sestrak eta lerrokadurak adierazi, zuzendu edo osatu ditzakeela eta bolumenen berrantolaketa egin dezakeela (ikus 2/2006 lurzoruaren legeko 73. artikulua), eta



proposatutako aldaketak justifikatuta daudela, ez da eragozpenik ikusten 2024ko urriaren 14an aurkeztutako «13 Laskoain» esparruko «13.1 San Frantzisko pasealekua 37» azpiesparruko xehetasun-azterketa eta azpiesparrua egikaritzeko araubidea aldatzeko Testu Bateginari behin betiko onespena eman ahal izateko honako baldintzapean:

- Xehetasun Azterketaren Aldaketaren eremua Oria ibaiaren zaintza eremuan sartzen denez, Kantauri Isurialdeko Konfederazioaren aldeko txostena beharko da.
- Txosten juridikoan jasotakoa kontuan hartu beharko da».

BIGARRENA.- Gaurko egunez hirigintzako tekniko juridikoak egindako **TXOSTEN JURIDIKOAN** (MAU24113), besteak beste, jasotakoa:

«LEHENA.- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 3. eta 4. artikuluetan xedatutakoaren arabera, titularrak baduela gaitasuna administrazio publikoen aurrean jarduteko, eta betetzen dituela baldintzak interesdun izaera onar dakion.

BIGARRENA.- Aplikatu beharreko legeria honakoek ezartzen dutela:

- Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea.
- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea.
- Lurzoruari buruzko Legearen testu bategina, urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua.
- Ekainaren 23ko 2159/1978 Errege Dekretuak onartutako Lurzorua Araubideari eta Hiri Antolamenduari buruzko Legea garatzeko eta aplikatzeko Plangintzako Erregelamendua.
- Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra (2009/03/31 GAO 60 zk.).
- Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea.
- Lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 Dekretua.

HIRUGARRENA.- «13 Laskoain» esparruko «13.1 San Frantzisko pasealekua 37» azpiesparruko xehetasun-azterketaren eta azpiesparrua egikaritzeko araubidearen aldaketaren hasierako onespeneren ondotik aurkeztu diren alegazioek honakoa jasotzen dutela:

- SAN FRANTZISKO 35 ZENBAKIKO JABEKIDEEN ERKIDEGOAK aurkeztutako alegazioa: Gonzalo Arrúe Portu letratuak ordezkaturik, Tolosako Udalean, 2024/06/06an (sarrera zk. 2024-7490) alegazio-idatzia aurkeztu zuen eta 2024/06/07an (sarrera zk. 2024-7583), ahalordetze-agiria.

Laburbilduz, aurkeztutako alegazio-idatzia, aurretiazko alegazioaz gain, lau alegazio nagusik osatzen dute:

AURRETIAZKO ALEGAZIOA.- Adierazten da ordezkaten den jabe-kide erkidegoak aurkeztu zuela alegazio-idatzia aurretiaz onartu zen Xehetasun Azterlanaren onespeneren. Hala, berriz ere eduki bera ez errepikatzearen, adierazten da idatzi hartan esandakoari lotzen dela.



LEHENENGO ALEGAZIOA.- San Frantzisko pasealekuko 35. zenbakiko garajeetara sartzeko zortasuna eta arrapalari buruzkoa.

Alegazio-jartzaileak Tolosako HAPOn «13 Laskoain» esparruari dagokion fitxa urbanistikoan jasotako zortasuna jasotzeko eskakizuna egiten du. Zehazki, adierazten du Udalbatzak 2022ko urtarrilaren 27an onartutako Xehetasun Azterlanean gai hau modu xehatua aurreikusi eta barneratu zela; eta, hasierako onespina izan zuen urbanizazio-proiektuan ere aipamena egin zitzaioela. Orain, ordea, aipatzen dute xehetasun-azterketaren eta azpiesparrua egikaritzeko araubidearen aldaketaren espedientean ez dela ez barneratu ez aipamenik egiten. Beraz, orain izapidetzen ari den espedientean, hori barneratzea eskatzen da.

Bide-zorrari dagokionez, alegazioa aurkezten duen jabeakide erkidegoak grafikoki bi proposamen zehatz egiten ditu: bata, SF35 garajera sartzeko, SF37 zenbakitik igarotzeko zortasun-eskubidearekin; eta, bestea, SF35 garajeko arrapala handitzearekin. Hori dela eta, eskatzen da xehetasun-azterketaren eta azpiesparrua egikaritzeko araubidearen aldaketan honako zehaztapenak barneratzea:

- 1) Xehetasun-azterketaren aldaketak barne hartzea "13.1 San Frantzisko pasealekua 37" azpierzemuko sotoko solairuaren eta San Frantzisko pasealekuko 35. zenbakiko sotoko solairuaren arteko bide-zorra, indarrean dagoen Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra adierazten duen bezala.
- 2) Xehetasun-azterketaren aldaketak jabari publiko-pribatu bat gainjartzea jasotzea "13.1 San Frantzisko pasealekua 37" azpierzemuko 1. eraikin berriaren eta San Frantzisko pasealekuko 35. eraikin finkatuaren artean, alegazio hau sinatzen duen jabeen erkidegoko arrapalaren zabalera handitu ahal izateko.
- 3) Kontuan hartuta URAREN eta Udalaren erantzunei lotutako bi aukera daudela, xehetasun-azterketaren aldaketak San Frantzisko pasealekuko 35. zenbakiko sotoko solairura sartzeko bi aukerak jasotzea, eta, ondoren, bi erakundeen erantzunetan oinarrituta, Jabeen Erkidegoak bere interesetara ondoen egokitzen den konponbidea erabaki ahal izatea.

BIGARREN ALEGAZIOA.- San Frantzisko kaleko 35. zenbakiko ataria, egun dagoen burdin hesia kentzea eta argiztapenari buruzkoa.

Alegazio-jartzaileak adierazten du urbanizazio-proiektuaren hasierako onspenaren alegazio-aldian proposatu zuela urbanizazio bat. Izatez, aipatzen du urbanizazio-proiektu horretan (behin betiko onartu ez zena) berriaz jaso zela udalak eta San Frantzisko 35 Erkidegoak akordio bat lortzeko komenigarritasuna; San Frantzisko 37 eta San Frantzisko 35 lurzatiei arteko lotura amaitzeko. Era berean, gehitzen du proiektu horrek proposatzen zuela lanak koordinatzea garajeko arrapala handituko balitz, eta, San Frantzisko 37ko egungo eraikina eraitsi ondoren, lehenik eta behin garajeko arrapala handitzea eraikuntza berria hasi aurretik.

Argiteriari dagokionean, alegazio jartzaileak proposatzen du xehetasun-azterketaren eta azpiesparrua egikaritzeko araubidearen aldaketak argiteria proposamen bat barneratzea.

Azkenik, alegazio-jartzaileak proposatzen du San Frantzisko 37 zenbakian kokatzen den eraikinaren aurrealdeko burdin hesia kentzea.

HIRUGARREN ALEGAZIOA.- Aurreikusitako lerrokadurak, altuerak eta eraikigarritasunari buruzkoa.



Alegazio-jartzaileak arrazoitzen du xehetasun-azterketaren eta azpiesparrua egikaritzeko araubidearen aldaketarekin proposatzen den eraikinak lehenik aurreikusitako lerrokadura, altuera eta eraikigarritasunetik aldetzen dela eta HAPOn kontrakoak direla.

Adierazitako xehetasun-azterketaren eta azpiesparrua egikaritzeko araubidearen aldaketan jasotako helburuan eta arrazoiketari oinarrituz, alegazio-jartzaileak adierazten du orain izapidetzen ari den dokumentuak HAPOn jasotakoa garatu behar duela eta ez aldatu. Beraz, azpimarratzen du proposatutako lerrokadurak eta sestrak zein altuerak eta solairu kopuruak Zuzenbidearen aurkakoak direla. Adierazitakoarekin batera, alegazio-jartzaileak argudiatzen du ez dela zuzkidura-jarduketa bat baizik, jarduketa bat zuzkidura batekin.

Alegazio-idatzian gaineratzen da izapidetzen ari den aldaketak, aurreko eraikina babestu nahian eta, aldi berean, inolako aprobetxamenduari uko egin gabe, atzeko eraikinera eramanez, atzean eraikin handi bat planteatzen duela, okupazioan zein altueran/bolumenean, eta, hori, legez kontrakoa dela. Beraz, Zuzenbidearen kontrakoa ikusten dute izapidetzen ari den aldaketa.

Tolosako HAPOn «13 Laskoain» esparruari dagokion fitxa urbanistikoan eraikuntzaren forma erregulatzeko jasotako parametroei dagokionez, alegazio-jartzaileak argudiatzen du orain proposatutako eraikuntzaren forma erregulatu duten parametroak inolaz ere ez datozela bat egun inguruan dauden eraikuntzakoekin. Honela, argudiatzen du izapidetzen ari den aldaketa HAPOn kontrakoa dela, aldatu egiten duela eta ez duela betetzen bertan jasotakoa.

Lerrokadura eta altuerari dagokionez, alegazioan adierazten da etorkizuneko 2. blokea ez dela inola ere lerroatuta egongo hegoaldeko muga multzoko eraikinekin; aitzitik, azpimarratzen da nabarmen nabarmentzen dela. Gehitzen da esanez 2. blokeak, hain zuzen ere, San Frantzisko pasealekuko 43A, 41A eta 39A eraikinetako hegoaldeko fatxadetan eta Oria Hoteleko Oria kaleko 2. zenbakiko eraikinean dagoen lerrokadura hautsiko duela. Horregatik guztiatik, ondorioztatzen da aldaketan proposatutako lerrokadurak HAPOn kontrakoak direla.

Altuerari dagokionez, alegazio-jartzaileak, berriz ere, fitxa urbanistikoan eraikuntzaren forma erregulatzeko jasotako parametrora joz, adierazten du aldaketan proposatutako proposamenak preskripzio hori urratzen duela.

Alegazio-jartzailea oso kritiko agertzen da 2. blokeak izango duen altuerarekin eta, hala, adierazten du ezin direla HAPOn jasotako preskripzioak urratu, sartzen ez diren tokian altura, solairu eta bolumen handiagoak sartuz.

Eraikigarritasunari dagokionean, berriz, aipatzen da 2. blokeari aitortzen zaion eraikigarritasuna HAPOn jasotzen dena baina handiagoa dela; hots, 1.347 m²(t) baino gehiago. Hori deuseztasunerako arrazoia dela irizten da. Gehitzen da esanez euren kalkuluen arabera (nahiz eta 2. blokeko azalerak ez izan), aldaketak sestra gainean proposatzen duen eraikigarritasuna HAPOn aurreikusitakoa baino askoz ere handiagoa dela. Hori arrazoitzeko, euren kalkulua egiten dute; sartu beharko litzatekeen eta aldaketan barneratu ez diren azalerak adieraziz. Hala, ondorioztatzen dute HAPOn jasotako eta orain proposatutako preskripzioak nabarmen guttiz desberdinak eta neurritz kanpokoak direla

LAUGARREN ALEGAZIOA.- Prozedurari buruzkoa.



Alegazio-jartzailearen esanetan, izapidetza erraztearren, udala legezko babesik ez duen "prozedura sinplifikatu" bat eramaten ari da. Beraz, izapidetzen ari den edo izapidetu nahi den prozeduraren kontra agertzen da.

Beste behin, alegazio jartzaileak argudiatzen du azpiesparru hau ez dela "zuzkidura-jarduketa bat", "zuzkidura bat duen jarduketa bat" baizik. Hori horrela, uste da udala prozeduran erratzen ari dela.

Alegazio-jartzaileak argi adierazten du euren iritziz orain izapidetzen ari den aldaketa legez kanpoko dela. Eta, legezkoa balitz ere, aldaketa oso garrantzitsua dela, ez bakarrik Plan Orokorrean, baita, orain arte eremuarekin lotuta garatutako plangintza osoarena ere.

Amaitzen da adieraziz ez dela argi geratzen zein diren landu/onartu beharreko hurrengo tresnak.

Adierazitako guztiarengatik, alegazio-jartzaileak **ESKATZEN** du adierazitako alegazio horiek aurkeztutzat har daitezela, alegazio-idatzian formulatzen diren eskaerak sar daitezela eta xehetasun-azterketaren aldaketa eskaera horietara egokitu dadila, euren garaje-solairuaren zortasuna barne hartuta eta arrapala handituta, San Frantzisko 35 zenbakiko atariaren ondoko urbanizazioa, burdin-hesia kenduta eta argizatuta, alegazioetan adierazi den bezala, Plan Orokorrean adierazitako lerrokadurak, altuerak eta eraikigarritasuna errespetatuz, eta haren onarpena uka dadila parametro horiek Plan Orokorreanetara egokitzen ez diren bitartean eta, hala badagokio, legez ezarritako prozedurari jarraitzea defentsa-gabeziarik sortu gabe.

- SAN FRANTZISKO 39A ZENBAKIKO JABEKIDEEN ERKIDEGOK aurkeztutako alegazioa: Gonzalo Arrúe Portu letraduak ordezkaturik, Tolosako Udalean, eta 2024/06/06n (sarrera zk. 2024-7518) alegazio-idatzia aurkeztu zuen eta 2024/06/07an (sarrera zk. 2024-7567), ahalordetze-agiria.

Laburbilduz, alegazio-idatzia, aurretiazko alegazioaz gain, bost alegazio nagusik osatzen dute:

AURRETIAZKO ALEGAZIOA.- Adierazten da alegazioa aurkeztu dela ulertzen delako izapidetzen ari den aldaketak Zuzenbidearen kontrako zenbait zehaztapen dituela.

LEHENENGO ALEGAZIOA.- Lerrokadurei buruzkoa:

San Frantzisko 35 zenbakiko jabekide erkidegoak aurkeztutako alegazioan jasotako argudiaketa bera jasotzen da.

BIGARRENGO ALEGAZIOA.- Altuerari buruzkoa:

San Frantzisko 35 zenbakiko jabekide erkidegoak aurkeztutako alegazioan jasotako argudiaketa bera jasotzen da.

HIRUGARREN ALEGAZIOA.- Eraikigarritasunari buruzkoa:

San Frantzisko 35 zenbakiko jabekide erkidegoak aurkeztutako alegazioan jasotako argudiaketa bera jasotzen da.



LAUGARREN ALEGAZIOA.- Ordezkatuaren argi eta bisten gaineko afekzioari buruzkoa:

Alegazio-jartzaileak egungo eraikinaren konparazio-pare bat eta gutxi gorabehera 2. Blokea izango denaren fotomuntaia atxikitzen ditu. Hala, argudiatzen da proposatzen den eraikinarekin San Frantzisko 39A zenbakiko eraikina erabat estaltzen duena eta haren argiei (eraikin osoarenak) eta argiei/bistei (azken solairuko terrazenak) larriki eragiten diela. Beraz, adierazten da adierazitako eraikineko jabeek hirigintzan zein arlo zibilean eragiten diela eta, beraz, erabat horren aurka agertzen dira.

BOSGARREN ALEGAZIOA.- Prozedurari buruzkoa:

San Frantzisko 35 zenbakiko jabekide erkidegoak aurkeztutako alegazioan jasotako argudiaketa bera jasotzen da.

Adierazitako guztiarengatik, alegazio-jartzaileak **ESKATZEN** du adierazitako alegazioak aurkeztutzat har daitezela, nire ordezkatuaren lerrokadurei, altuerei, eraikigarritasunari eta argien eta bisten afekzioari dagokienez, eta onar daitezela harik eta parametro horiek Plan Orokorren parametroetara egokitzen diren arte, eta, hala badagokio, lege ezarritako prozedurari jarrai dakiola defentsa-gabeziarik sortu gabe.

- ORIA KALEA 6 ZENBAKIKO JABEKIDEEN ERKIDEGOAK aurkeztutako alegazioa, Gonzalo Arrúe Portu letraduak ordezkatuta, Tolosako Udalean, 2024/06/06an (sarrera zk. 2024-7519) alegazio-idatzia aurkeztu zuen eta 2024/06/07n (sarrera zk. 2024-7568) ahalordetze-agiria.

Laburbilduz, alegazio-idatzia, aurretiazko alegazioaz gain, bost alegazio nagusik osatzen dute:

AURRETIAZKO ALEGAZIOA.- Adierazten da alegazioa aurkezten dela ulertzen delako izapidetzen ari den aldaketak Zuzenbidearen kontrako zenbait zehaztapen dituela.

LEHENENGO ALEGAZIOA.- Lerrokadurei buruzkoa:

San Frantzisko 35 zenbakiko jabekide erkidegoak aurkeztutako alegazioan jasotako argudiaketa bera jasotzen da.

BIGARRENGO ALEGAZIOA.- Altuerei buruzkoa:

San Frantzisko 35 zenbakiko jabekide erkidegoak aurkeztutako alegazioan jasotako argudiaketa bera jasotzen da.

HIRUGARREN ALEGAZIOA.- Eraikigarritasunari buruzkoa:

San Frantzisko 35 zenbakiko jabekide erkidegoak aurkeztutako alegazioan jasotako argudiaketa bera jasotzen da.

LAUGARREN ALEGAZIOA.- Ordezkatuaren argi eta bisten gaineko afekzioari buruzkoa:

Argudiatzen da proposatzen den 2.blokeak hegoaldeko zatian egungo lerrokadura hautsi eta gainditu egingo duela eta, ondokoekiko altuera eta eraikigarritasun handiagoa izango duenez, Oria kalea 6 zenbakiko bizilagunei eragin egingo diola argiei eta bistei dagokionez; espazioa saturatu eta estaltzen duten heinean.



BOSGARREN ALEGAZIOA.- Prozedurari buruzkoa:

San Frantzisko 35 zenbakiko jabekide erkidegoak aurkeztutako alegazioan jasotako argudiaketa bera jasotzen da.

Adierazitako guztiarengatik, alegazio-jartzaileak **ESKATZEN** du adierazitako alegazioak aurkeztutzat har daitezela, nire ordezkatuaren lerrokadurei, altuerei, eraikigarritasunari eta argien eta bisten afekzioari dagokienez, eta onar daitezela harik eta parametro horiek Plan Orokorraren parametroetara egokitzen diren arte, eta, hala badagokio, legez ezarritako prozedurari jarrai dakiola defentsa-gabeziarik sortu gabe.

LAUGARRENA.- Adierazitako alegazioen aurrean egiten den AZTERKETA JURIDIKOA:

Ikusirik SAN FRANTZISKO 35 ZENBAKIKO JABEKIDEEN ERKIDEGOAK aurkeztutako alegazioak eta SAN FRANTZISKO 39A ZENBAKIKO JABEKIDEEN ERKIDEGOAK zein ORIA KALEA 6 ZENBAKIKO JABEKIDEEN ERKIDEGOAK aurkeztutako alegazioek, hein handi batean, eduki bera dutela, aurkeztutako hiru alegazioak azterketa juridiko bakarrean aztertuko dira.

▪ **Tolosako HAPON «13 Laskoain» esparruari dagokion fitxa urbanistikoan jasotako sarbide- eta bide-zortasuna.**

San Frantzisko 35 zenbakiko jabekide erkidegoaren eskaera nagusienetakoa da orain izapidetzen ari den espedienteko dokumentuan HAPON «13 Laskoain» esparruari dagokion fitxa urbanistikoan jasotako sarbide- eta bide-zortasuna barneratzea. Baina, haratago joanda, honako zehaztapenak barneratzea eskatzen da:

- 1) Xehetasun-azterketaren aldaketak barne hartzea "13.1 San Frantzisko pasealekua 37" azpierzemuko sotoko solairuaren eta San Frantzisko pasealekuko 35. zenbakiko sotoko solairuaren arteko bide-zorra, indarrean dagoen Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra adierazten duen bezala.
- 2) Xehetasun-azterketaren aldaketak jabari publiko-pribatu bat gainjartzea jasotzea "13.1 San Frantzisko pasealekua 37" azpierzemuko 1. eraikin berriaren eta San Frantzisko pasealekuko 35. eraikin finkatuaren artean, alegazio hau sinatzen duen jabeen erkidegoko arrapalaren zabalera handitu ahal izateko.
- 3) Kontuan hartuta URAREN eta Udalaren erantzunei lotutako bi aukera daudela, xehetasun-azterketaren aldaketak San Frantzisko pasealekuko 35. zenbakiko sotoko solairura sartzeko bi aukerak jasotzea, eta, ondoren, bi erakundeen erantzunetan oinarrituta, Jabeen Erkidegoak bere interesetara ondoen egokitzen den konponbidea erabaki ahal izatea.

Lehenengo eskakizunari dagokionez, kontuan hartzen bada Udaltzaren 2022ko urtarrilaren 27an, ohiko osoko bilkuran, behin betikoz onetsitako «13. Laskoain» esparruko «13.1 San Frantzisko pasealekua 37» azpiesparruko xehetasun azterketan jasotakoa, ikus daiteke, bere egunean San Frantzisko 35 zenbakiko jabekide erkidegoak egindako alegazioak kontuan hartuta, barneratu zela adierazitako zortasuna. Hala ere, San Frantzisko 35eko jabekideen erkidegoak adierazitako xehetasun azterketaren aurrean aurkeztutako alegazioari erantzuteko egindako txosten juridikoan (MAU21023) adierazi zen bezala, orain ere gogorarazi nahi da kontuan hartuta xehetasun-azterketaren xedea eta zehaztapenak zeintzuk diren (2/2006 Legea 60 eta 73. artk.) ez dela tresna hau HAPON aurreikusitako bide-zorra berriaz jaso edo aipatu behar duena. Izan ere, xehetasun-azterketek ez dute zertan HAPON jasotako obligazioak berriz ere erreproduzitu behar baldin eta horiek ukitzen ez badira.



Bigarren eskakizunari dagokionez, adierazi behar da egiten den proposamenak HAPOn jasotako aurreikuspenak aldatzea ekarriko lukeela. Izan ere, San Frantzisko 35 zenbakiko garajeetara sartzeko arrapala handitu nahi da San Frantzisko 37 zenbakiko azpiesparrutik hartuta. Antzematen dena da proposamen hau egiten dela izapidetzen ari den dokumentuan aldaketak egin behar direla aprobetxatuz eta, horrek, kontraesana dakarrela alegazio-idatzian adierazitakoarekin; izan ere, hori kontuan hartzeak antolamenduan aldaketak sartzeari eskatuko bailuke sotoari dagokionez eta, sotoko lurzatiaren eraikuntza-aukerak murriztea ekar dezake.

Nolanahi ere, benetan eskatzen ari dena alternatiba bikoitza ezartzea da eta, hori, neurri batean, kontraesankorra izango litzateke; izan ere, horietako batean beharrezkoa da San Frantzisko 37 zenbakiko sotoa eraikitzea lursailaren mugaraino, eta bestean justu kontrakoa egitea. Eremuaren urperagarritasun maila kontuan izanda, ordea, Uraren Euskal Agentziak <<13.1 San Frantzisko pasealekua 37>> azpiesparruko garajeak eraikitzei ezarritako baldintzak ikusita, teknikoki, ezinezkoa dirudi bi garaje hauek komunikatu ahal izatea. Beraz, bi proposamenen artean egingarriena bigarrenak dirudi; nahiz eta ez dagokion xehetasun-azterketaren aldaketako dokumentu honi aukera hau jasotzea, aurretik adierazi bezala azpiesparru honen muga aldatzea dakarrelako.

Hala ere, San Frantzisko 35 zenbakiko jabekideen beharrak eta aukerak ikusita, ordezkari irtenbide bat adostu ahal izango da xehetasun-azterketaren xede diren lursailetatik gaur egungo sotorako sarrera hobetzeko. Horretarako, alde horretan lursail pribatua txikitu egingo da eta jabari publikoa handitu. Beraz, ondoren udala eta San Frantzisko 35 zenbakiko jabekideen arteko dagokion hitzarmena egin beharko litzateke azalera hori desafektatu ahal izateko, eskaerak proiektuaren espazio publikoen azalera murriztuko lukeelako arrapala zabaldu ahal izateko. Hala ere, hori komunitate horrek atariaren ondoko lurzorua emanez konpentsatu daiteke.

2024ko urriaren 14an, Jaitzubia Barri SL enpresak aurkeztutako testu bateginean, jada aurreikusi da San Frantzisko 35 zenbakiko jabekideen garajera sartu ahal izateko arrapala zabaltzeko aukera. Hori horrela, lehen adierazitako adostasuna lortzeko, San Frantzisko 37 azpiesparruko sotoko alineazioak aldatu egin dira. Horrela, etorkizunean Udala eta bizilagunen artean dagokion Hitzarmena izenpetu eta arrapala zabaltzeko aukera egingarria izan dadin.

Ondorioz, San Frantzisko 35 zenbakiko jabekide erkidegoaren eskaerako bigarren aukera onartu eta ontzat ematen da.

▪ **San Frantzisko 35. Zenbakiko atariaren eta argiztapenaren inguruko proposamena zein eskaera. Eta, San Frantzisko 37 zenbakiko eraikina inguratzen duen burdin hesia kentzeko eskaera.**

San Frantzisko 35 zenbakiko jabekide erkidegoaren beste eskaera nagusietakoa da aurretiaz urbanizazio-proiektuaren hasierako onespeneren jendaurrekoan aurkeztu zuten alegazioan jasotakoa betetzea, hau da, euren atariari atxikitutako lurzoru pribatua udalari lagatzea; udalak zenbait baldintza betetzearen truke. Honekin batera, eskatzen da orain izapidetzen ari den dokumentuak argiztapena hobetzeko proposamen bat txertatzea. Era berean, proposatzen da San Frantzisko 37 zenbakiko eraikina inguratzen duen burdin hesia kentzea eraikinaren aurrealdea.

Beste behin, kontuan izanik xehetasun-azterketaren xedea eta zehaztapenak zeintzuk diren, adierazi beharra dago orain izapidetzen ari den dokumentua ez dela San Frantzisko 35 zenbakiko atariari atxikitutako lurzoru pribatua udalari lagatzeko tresna, ez eta hori aurreikustekoa. Aipamena egin badaiteke ere, lagapena egin ahal izateko, beharrezkoa ikusten da hitzarmen bat sinatzea adierazitako jabekide erkidegoaren eta udalaren artean. Nahiz eta udalak, oro har, begi



onez ikusten duen proposatutako lagapena, hitzarmenean aurreikusi beharko litzateke alde biei dagozkien betebeharrak zein obligazioak.

Argiztapenari dagokionez berriz, beste behin, adierazi beharra dago orain izapidetzen ari den dokumentuaren objektua/eskumena ez dela inondik inora azpiesparrutik kanpoko argiztapen proposamena barneratzea. Zehaztapen horiek urbanizazio-lanetan jaso beharreko zehaztapenak dira.

San Frantzisko 37 zenbakiko eraikinaren aurrealdean inguratzen duen burdin hesia kentzeko proposamenari dagokionez, jasotzat hartzen da. Unea iritxitakoan pentsatuko da zer egin orain, ordea, ez da izapidetzen ari den dokumentuan jasotzeko betekizuna.

Ondorioz, alegazioa ezetsi egin behar da.

▪ **Lerrokadurak, altuerak eta eraikigarritasuna.**

Alegazio-jartzaileak hirugarren alegazio gisa argudiatu duena jorrazteko, lehenbizi, beharrezkoa ikusten da zenbait kontzeptu argitzea. Hala nola, xehetasun-azterketen objektua, eremua, irismena eta mugak.

Lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea.

Lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak (2/2006 Legea), hirigintza antolatze gainerako tresnen artean, xehetasun-azterketak aurreikusten ditu. Hori horrela, 73. artikuluan, arautzen da antolamendu xehatuaren zehaztapenak edozein lurzoru-motatan osatzeko edo egokitzeko direla. Hala, azpimarratzen da plangintzan aurreikusita ez badago, xehetasun-azterketak berak erakutsi behar duela zehaztapen horiek osatu edo egokitzeko beharra dagoela edo hala komeni dela.

Adierazitako artikulua horren bigarren puntuan argi adierazten da xehetasun-azterketak gauza hauetara mugatuko direla:

«a) Antolamendu xehatuak agindutako sestrak eta lerrokadurak adieraztea, zuzentzea edo osatzea.

b) Bolumenak dena delako plangintzan aurreikusitakoaren arabera antolatzea. Bolumenen berrantolaketa tipologikoaren edo morfologikoaren ondorioz hala egiteko beharra badago edo hala egitea komeni bada, bide berriak egiteko edo zuzkidura publiko berriak egiteko lurzoruaren kalifikazioa ere jaso daiteke antolaketa horretan.

c) Urbanizazio-lanen, eraikuntzen, instalazioen eta gainerako obra eta hiri-elementu osagarrien alderdi eta ezaugarri estetiko eta konpositibo batzuk arautzea. Ezaugarri horiek antolamendu xehatuan egongo dira jasota».

Era berean, 2/2006 Legeko 73.4. artikuluan arautzen da xehetasun-azterketek ezingo dutela, inolaz ere, kasuan kasuko plangintzak azterlan horiek egiteko ezarritako aurreikuspenak urratu edo horiei kasurik ez egin. Halaber, agintzen da ezingo dutela lurzoruari izendatutako erabilera aldatu, eraikigarritasuna handitu eta plangintzak dakartzan bideak edo zuzkidura publikoak ezabatu edo gutxiarazi.

Aintzat hartzekoa da ere, 2/2006 Legeko 104. Artikulua, zeinak xedatzen duen hirigintza-planen zehaztapenak berrikusi eta zehaztapenetan edozein aldaketa egiteko, ez dela beharrezkoa izango plan-mota berbera erabiltzea eta zehaztapen horiek onartzeko jarraitutako prozedura bera



erabiltzea, baldin eta, dagokion planak xehetasun-azterketa bidez berariaz onar ditzakeen hobekuntzak edo aldaketak badira.

2/2006 Legean araututakotik azpimarratu behar da xehetasun-azterlanak izapidetzeko, lehendik, antolamendu xehatua egon behar duela; xehetasun-azterketei hori osatu edo egokitzeko aukera ematen zaielarik. Beraz, puntu honetan, komenigarria da argitzea egiturazko antolamenduaren eta antolamendu xehatuaren arteko desberdintasuna.

Egiturazko zehaztapenez osatutako egiturazko antolamenduak lurraldearen edo udalerraren antolamendu globala ezartzen du, eta, normalean, plangintzak lurralde edo udalerrri horretarako zehazten duen ereduaren txertatzen da. Antolamendu xehatuak, berriz, zehaztapen xehatuak ditu, eta egiturazko zehaztapenak osatzen ditu, hirigintza-parametro guztiak definitzeko. Hau da, plangintza eraginkorra izateko beharrezkoak diren erabakiak burutzeko balio dute baina, ezin dute egiturazko zehaztapenetan jasotako kontzeptu edo parametroen aurka jo eta, une oro, haietan jasotzen diren preskripzioekin bat etorri behar dute. Beraz, hierarkia printzipioari jarraituz, egiturazko antolamenduan jasotako zehaztapenak ezin dira urratu antolamendu xehatuaren bitartez.

Argibide hau emanda, kontuan izan behar da Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra xehetasun-azterlanei ematen dien irismena zein jarduteko marjina.

Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra.

4. artikulua. Plan Orokorren zehaztapenen maila eta lotura arauemailea.

<< (...)

4. Antolamendu xehatuaren berezko maila dute honakoetan bildutako zehaztapenek:

—«2.1. Hirigintza Arau Orokorra» dokumentu honetan bildutakoak, bertan izendatuki adierazitako kasu eta terminoetan.

—«2.2. Hirigintza Esparruetako (HE) Arau Partikularrak» dokumentuko Hirigintza Esparruetako Arau Partikularretako «IV. Hirigintza Erregimen Xehatua» epigrafean bildutakoak.

—«5.3. Antolamendu xehatuaren planoak» dokumentuko planoak.

Dokumentu honetan izendatuki ezartzen diren tolerantziak egokitzen diren kasuan izan ezik, zehaztapen horiek aldatzeko edo osatzeko, plangintza xehatuaren maila duen espediente bat (plan berezia edo plan partziala) edo xehetasun azterlan bat formulatu ahal izango da. Haien esku-hartze eremua arautzen duten irizpideak, hots, indarrean dagoen legerian zein hiri-plangintzan bertan (Plan Orokor hau barne) ezarrita daudenak aintzat hartuko dira horretarako.

Era berean, zehaztapen horien aldaketari plangintza orokorraren maila duen espediente baten testuinguruan ekin ahal izango zaio, baina horrek ez du adierazitako zehaztapenen maila eta izaera xehatua aldaraziko, behar bezala justifikatutako arrazoiak direla-eta maila bera aldatzea komenigarritzat jotzen ez bada behintzat. (...)>>.

13. artikulua. Erabilera xehatuko (azpi)zonen eraikuntzako, erabilerako eta jabariko erregimen orokorra (Oro har, arau partikularretara igortzen diren zehaztapenak izendatuki ezarri beharko dira, kasuak kasu, arau horien «II. Hirigintza Erregimen Orokorra» idatz zatian, eta «plangintza orokorraren» maila esleituko zaie.

<< (...) — Eraikuntzaren forma —sestra gaineko eta sestrapeko solairuko okupazioa barne— lursailaren ordenantza orokorren bitartez edo horietako bakoitzerako ordenantza zehatz baten bitartez arautu ahal izango da. Ordenantza zehatz hori dagokion arau partikularrean edo plangintza xehatuan definituko da.

Ordenantza zehatz horrek eta bertan bildutako aurreikuspenek xehetasun-azterlanen berezko maila izango dute azterlan horien berezko gaitan eta esku hartzeko eremuan eragina duten alderdi guztietan. Horrenbestez, ordenantza eta aurreikuspen horiek, baldintza horietan, adierazitako xehetasun azterlanen bitartez aldatu ahal izango dira. (...)>>.

17. artikulua. Hiri-lurzoruan kalifikazio xehatua zehazteko erregimena.



<<(…)

4. Xehetasun-azterlanak formulatzea

A. Indarrean dagoen hirigintzako legerian eta Plan Orokor honetan bertan ezarritako mugen eta baldintzen barruan, xehetasun-azterlanak formulatu ahal izango dira, bai eraikuntzen konfigurazio fisikoa aldatzeko, bai goragoko mailako plangintzan aurreikusitako urbanizazioa antolatzeko.

Xehetasun-azterlanak formulatzea beharrezkoa izango da urbanizazioaren zein eraikuntzaren kotak eta sestrak zehazteko, baldin eta indarrean dagoen antolamendu xehatuaren testuinguruan definituta ez badaude eta gabezia horiek konpon litzaketen plangintza xehatua edo urbanizazio-proiektuak lantzea eta izapidetzea aurreikusten ez bada».

19. artikulua. Kalifikazio xehatuko zehaztapenen lotura arauemailea eta horiek berraztertze erregimena.

<<(…)

3. Nahiz Plan Orokor honetan nahiz berau garatzeko sustatutako plangintza xehatuan ezarritako kalifikazio xehatuko zehaztapenak xehetasun-azterlanak formulatuz aldatu ahal izango dira honako kasuetan:

—Lursail eraikigarrien ordenantza zehatzak xehetasun azterlan baten esku hartzeko eremuaren berezko alderdian birdoitzean.

Birdoikuntza hori eraikuntzaren forma arautzen duten parametroetara (altuera eta solairu kopurua) eta dagozkien lerrokadura eta sestetara heda daiteke, betiere lursailaren hirigintza erregimen orokorra arautzen duten baldintzetara egokitzearen testuinguruan.

—Antolamendu xehatua 2006ko ekainaren 30eko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 73. artikuluan aurreikusitako irispidearekin egokitzean.

Egokitze horretan antolamendu xehatua eraginpeko lur-eremuen eta ingurunearen baldintzatzaile material eta orografikoetara egokitzea sartzen da, baina ezin izango ditu haren oinarriko ezaugarriak aldatu. Irabazizko lursailera zein antolamendu horren emaitzako zuzkidura publikoetara heda daiteke.

Zuzkidura publiko horiei dagokienez, egokitze horrek bere mugaketa zehatzaren birdoikuntza ekar dezake, baina ezin izango du inondik ere bere azaleraren murrizketarik ez bere baldintza kualitatiboen balio-galerarik ekarri.

—Irabazizko erabileretara zuzentzen diren lursail eraikigarrietarako ezarritako lursail-banaketa aldatzen denean. Dena den, arestian aditzera emandako salbuespenekin, ezin izango da zonifikazioa aldatu.

Aitzitik, ekipamendu komunitarioko erabileretara zuzentzen diren lursailetan azalera gehitzea onartu ahal izango da.

Edonola ere, planteatutako proposamenen irispidea kontuan harturik, udalak plangintza xehatuko espediente bat formula dadin eskatu ahal izango du, nahiz eta proposamen horiek aurreko idatz zatietan adierazten diren baldintzetara egokitzen diren. (…)>>.

Txertatutako artikulua guzti horien edukia irakurrita, ondorioztatu daiteke Tolosako HAPOn arabera xehetasun-azterketen bitartez aldatu, osatu edo antolatu daitezkeela antolamendu xehatuaren berezko maila duten zehaztapenak, arau partikularretan zehaztutako eraikuntzen formak (altuera eta solairu kopurua), lerrokadura eta sestetara hedatzeko aukerarekin, baita euren konfigurazio fisikoa eta goragoko mailako plangintzan aurreikusitako urbanizazioa. Hala, azpimarratu behar da orain izapidetzen ari den dokumentuaren bitartez aldatzen diren zehaztapenak antolamendu xehatuari dagozkiola eta inondik inora egiturazko antolamenduari (2/2006 Legea, 56. Art.).

Xehetasun-azterketen inguruko jurisprudentzia.

Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak plangintza orokorretan barneratutako antolamendu xehatua aldatzen duten xehetasun-azterketak babesten ditu. Hala jasotzen da azaroaren 26ko 794/2008 zenbakidun Sententzian, uztailaren 20ko 477/2012 zenbakidun Sententzian zein otsailaren 24ko 84/2021 zenbakidun Sententzian. Horietan guztietan, Tolosako HAPOn kasuan gertatzen den bezala, berariaz baimentzen da xehetasun-azterketek zehaztapen xehatuak aldatzea.

- Lerrokadurak eta altuerak.



Lerrokadurei dagokionez, alegazio-jartzaileak aldaketa jasotzen duen dokumentuko 11-13. Orrialdeetan jasotakoa barneratuz, zein Plan Orokorreko eta aldaketa jasotzen duen dokumentuko plano bana atxikituz, adierazten du orain izapidetzen ari den dokumentuak Plan Orokorrak agintzen duen parametro-baliokidetasun horren kontrako lerrokaduren aldaketa ezartzen duela, bereziki atzealdeko eraikinaren hegoaldeko eta mendebaldeko mugetan.

Hala, gehitzen da esanez etorkizuneko 2. blokea ez dela inola ere lerrokatuta egongo hegoaldeko muga multzoko eraikinekin (San Frantzisko pasealekuko 43A, 41A eta 39A eraikinen hegoaldeko fatxadak eta Oria Hotelaren eraikina Oria kaleko 2. zenbakian); aitzitik, azpimarratzen da argi nabarmentzen dela. Adierazpen hau indartzearren, Katastroko eta aldaketa jasotzen duen dokumentuko 02.01 plano atxikitzen dira.

Honen aurrean adierazi behar da HAPOko lerrokadura batzuk derrigorrezkoak direla eta beste batzuk, berriz, gehienekoak. Orain izapidetzen ari den Xehetasun-azterlanaren aldaketa honek, bere eskumenen barruan, lerrokadura horiek aldatu ditzake. Hala, ipar-mendebaldean derrigorrezko lerrokadura ezartzen da eta ipar-ekialdean zein hego-ekialdean, berriz, gehieneko lerrokadurak. Horrez gain, metro bateko hegalak baimentzen dira.

Bestalde, aipatzekoa da alegazioarekin batera aurkeztutako fotomuntaia ez dela egiazkoa, izan ere, beheko plantako azalera aintzat hartuta bakarrik egin da; beraz, aintzat hartu gabe goiko solairuek lerrokadura desberdina dutela.

Altueri dagokionez, berriz, alegazioetan argudiatzen denez, xehetasun-azterketaren aldaketan proposatutako 2. blokeak gainditu egingo luke HAPOn jasotako solairu kopurua eta eraikinaren altuera. Zehazki, Laskoingo Arau Partikularren IV.C.a atalaren edukia (2009ko GAOn 10.479. orrialdea) eta 2009ko GAOn 10.486. orrialdeko grafikoa aipatzen dira, zati batean errepikatzen duena. Hala, atzeko eraikinak, aipatutako fitxan, beheko solairua, bost solairu eta atikoaren solairu bat izango lituzke, partzialki atzeraemanda. Hala ere, xehetasun-azterketaren aldaketak gehieneko altuera hau proposatzen du: beheko solairua, 7 goi-solairu eta partzialki atzeraemandako atiko bat.

Honen aurrean adierazi behar da, aurreko puntuan esan den bezala, azpieremuko arau partikularren IV. atalean jasotako arauak antolamendu xehatuko arauak direla, eta HAPOk berak baimena ematen duela xehetasun-azterketaren bidez aldatzeko, bere eskumenen barruan. Bolumenak antolatzea da berariaz haiei esleitutako ahalmenetako bat (2/2006 Legea 73.2.b). Beraz, alegazioa ezetsi egin behar da.

Ondorioz, lerrokadura eta altueri buruzko alegazioa ezetsi egin behar da.

- **Eraikigarritasuna.**



Eraikigarritasunari buruzko alegazioan, lehenik eta behin, arau partikularretako III.1.11.111.A.a apartatuari erreferentzia egiten zaio, zeintzuek puntu horretan 13.1 San Frantzisko pasealekua 37 azpieroemuari aipamena egiten dioten sestra gainean 2.847 m²(s) eta sestrapean 3.280 m²(s)-ko hirigintza eraikigarritasuna esleituz. Jarraian, eremuko arau partikularren IV.1.B.a atalaren edukia ere aipatzen da antolatutako lursailen eraikigarritasun fiskoa islatuz, sestra gainean 1. multzoarentzat 1.500 m²(s) eta 2. multzoarentzat 1.347 m²(2).

Alegazioak zalantzan jartzen du, lehenik eta behin, xehetasun-azterketaren aldaketak baimendutako bolumena. Hala, sestra gaineko eraikigarritasun baimendua 3.059,25 m²-koa izango litzatekeela dio eta, ez, HAPOk baimentzen dituen 2.847 m²-koa.

Adierazten du, halaber, ez dela kontuan hartu 1. blokean dagoen eraikin osoa, zuzkidura publikoetarako erabili baita, eta zenbatu egin behar zela, bai eta lehendik dagoen blokeko azalera batzuk ere, hala nola estalkipeko azalera, 80 m² esleitzen baitizkio, gainerako kasuetan bezala, Katastrofik lortzen duena.

Alegazioko azken adierazpen horretatik hasita, eta 2/2006 Legeko 35.3 artikulua xedatu duenarekin bat etorritik, gogoratzekoa da hirigintza-eraikigarritasunaren zenbaketatik kanpo daudela lehendik dauden azalera eraikiak edo zuzkidura publikoetarako aurreikusitakoak. HAPOren arau orokorren 22.2.B artikuluan ere jasotzen da erregulazio hori. Eta, horrexegatik, nahiz eta erabilera tertziarioa izan (jarduera ekonomikoak), azalera hori ez da zenbatzen xehetasun-azterketak berariaz zehazten baitu zuzkidura publikorako erabiltzen dela.

2/2006 Legearen 56.1.e) artikulua araberak, eraikigarritasun fisikoak ezartzea antolamendu xehatuaren zehaztapena da eta, aurretiaz adierazi den bezala, xehetasun-azterketak egokiak dira bolumenak antolatzeko (2/2006 Legea 73.2.b) art.) eta, baita, dotazio berriak ezartzeko.

Xehetasun-azterketaren aldaketak, behin betikoz onartu zen dokumentuak egiten zuen bezala, bloke bakoitzari esleitutako hirigintza-eraikigarritasuna zuzenean definitzearen alde egiten du. Horrela, eta 1. blokeko eraikigarritasun fisikoak egungo egoerarekin bat etorriko litzatekeela adierazten bada ere (lerrokadurak, sestrak eta nahitaezko bolumenak), argi dago hari esleitutako hirigintza-eraikigarritasuna (199,07m²) soilik erabili ahal izango dela irabazizko erabileretarako, eta gainerakoa irabazi-asmorik gabeko erabileretarako edo azalera ez-konputagarrietarako gorde beharko dela.

2. blokearen kasuan ere berdin jokatzen da baina, gainera, gehieneko okupazio-parametroak ezartzen dira. Nahitaezko lerrokadura batzuekin eta gehieneko beste batzuekin. Hasieraz onetsitako dokumentuaren memoriako IV. ataleko 4. eta 5. puntuetan deskribatzen den bezala eta 02.03 eta 02.04 planoetan ikus daitekeen bezala.

Beraz, zehaztapenen aniztasun hori kontuan hartuta, baimendutako gehieneko eraikigarritasuna zehaztapen horiek guztiak gainjarrita aplikatzearen emaitza dela ulertu behar da, eta



murriztaileenak direnen multzoak mugatuko du. HAPOren arau orokorren 22.1.G artikulua hitzez hitz ezartzen duen bezala.

Nolanahi ere, alegazioek ez dute kontuan hartzen HAPOren arau orokorren 53. artikuluan eraikigarritasuna zenbatzeari buruz xedatutakoa.

Bolumenen antolamendua eta aldaketa baimenduta daude xehetasun-azterlanetan, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 73. eta 104. artikuluen arabera, bai eta 1. galderari erantzuten dion puntuan aipatu diren guztiak ere (lerrokadurei dagokienez). Beraz, ez da HAPOa urratzen.

Horregatik guztiatik, alegazioa ezetsi egin behar da.

▪ **Argi eta bisten zortasuna.**

San Frantzisko 39A zein Oria kalea 6 zenbakiko jabekideen erkidegoak argi eta bisten gaineko afekziori buruzko alegazioa aurkezten dute.

San Frantzisko 39A zenbakiko jabekideen erkidegoak egungo eraikinaren konparazio-pare bat eta gutxi gorabehera 2. blokea izango denaren fotomuntaia atxikitzen du. Hala, argudiatzen du proposatzen den eraikinarekin San Frantzisko 39A zenbakiko eraikina erabat estaltzen dela eta haren argiei (eraikin osoarenak) eta argiei/bistei (azken solairuko terrazenak) larriki eragiten diela. Beraz, adierazten du adierazitako eraikineko jabeek hirigintzan zein arlo zibilean eragiten diela.

Lehenik eta behin, adierazi behar da alegazioan atxikitutako fotomuntaia ez datorrela bat xehetasun-azterketaren aldaketak espazio horretarako dakarren antolamenduarekin. Funtsean, ez dituelako kontuan hartzen goiko solairu bakoitzean proposatutako atzeraemanguneak, proposatutako beheko solairuaren proiektio bertikala gitea mugatu baita.

Sustatzaileak aurkeztutako alegazioen inguruan egin duen txostenari atxikitutako irudietan ikusten da xehetasun-azterketaren aldaketak barne hartzen duen antolamenduaren irudia eta bolumetria.

Beraz, ez da onargarria atxikitutako fotomuntaia eta 2.blokeak San Frantzisko 39A zenbakiko eraikina erabat estaltzen duela esatea.

Argi-bisten zortasunei dagokionez, orain dagokigunerako, beharrezkoa da kontuan izatea Kode Zibilak araututakoa:

- **582. Artikulua.-** Alboko finkari begira ezin da bista zuzeneko leihorik ireki, ezta horren antzeko balkoirik edo beste hegalkinik ere, bi metroko tarterik ez badago alboko finkaren eta halakoak izango dituen hormaren artean. Halaber, alboko finkari begira ezin da soslai edo lapraneko bistarik izan, 60 zentimetroko tarterik ez badago.



- **583. artikulua.-** Aurreko artikulua aipatzen dituen tartea neurtuko dira, zuzeneko bistetan, hormaren kanpoko murratik, zuloek ez badute hegalkinik, eta, hegalkinak badituzte, hegalkin horien murratik; lapraneko bistetan, bi finkak banantzen dituen murratik.
- **584. artikulua.-** 582. artikuluan xedatutakoa ezin zaie aplikatu herri-bidearen bitartez banandutako eraikinei.

Kontuan izanik izapidetzen ari den dokumentuan proposatutako 2.blokearen antolamendua, lehenik eta behin, argi esan daiteke San Frantzisko 39A zenbakiko eraikinarekiko ez dela bista zuzeneko leihorik ezta horren antzeko balkoirik edo beste hegalkinik irekiko. Izango direnak albo-bistak edo zeharrak izango dira. Hori dela eta, bi aukera daudela esan daiteke: bat, albo-bistak edo zeharrak izatea bi jabetza bereizteko lerrotik zenbatzen hasita 60 zentimetrora edota, bi, terrazetako alboetan guztiz opakoak diren lama finko batzuk jartzea esekitokiak sortzeko eta, hartara, albo-bistak edo zeharrak desagertzea. Ondorioz, aukera bat edo beste hautatuko balitz ere ez litzateke argi-bisten zortasuna urratuko.

Oria kalea 6 zenbakiko jabekideen erkidegoak, berriz, argudiatzen du proposatzen den 2. blokeak hegoaldeko zatian egungo lerrokadura hautsi eta gainditu egingo duela eta, ondokoekiko altuera eta eraikigarritasun handiagoa izango duenez, Oria kalea 6 zenbakiko bizilagunei eragin egingo diola argiei eta bistei dagokionez; espazioa saturatu eta estaltzen duten heinean.

Honen aurrean esan behar da, nahiz eta 2.blokeak zuzeneko bistak izan Oria kalea 6 zenbakiko eraikinera, alde batetik, bi metro baino gehiagoko tartea egongo dela eta, bestetik, herri-bide bitartez bananduta egongo direla. Beraz, ez dago inolako urraketarik erkidego horri dagokionez.

Horregatik guztiagatik, argi eta bisten gaineko afekziori buruz egindako alegazioak ezetsi egin behar dira.

▪ Izapidetzen ari den prozedura.

Aurkeztutako hiru alegazio-idatziak prozeduraren inguruko alegazio berbera jasotzen dute eta funtsean diote, izapidetza erraztearren, udala legezko babesik ez duen "prozedura sinplifikatu" bat eramaten ari dela. Argudiatzen da azpiesparru hau ez dela "zuzkidura-jarduketa bat", "zuzkidura bat duen jarduketa bat" baizik eta, horregatik, udala prozeduran erratzen ari dela. Alegazio-jartzaileek argi adierazten dute euren iritziz orain izapidetzen ari den aldaketa legez kanpoko dela eta, legezkoa balitz ere, aldaketa oso garrantzitsua dela, ez bakarrik Plan Orokorrean, baita, orain arte eremuarekin lotuta garatutako plangintza osoarena ere. Hala, adierazten dute ere ez dela argi geratzen zein diren landu/onartu beharreko hurrengo tresnak. Azkenik, defentsa-gabezia sortzen duen bidezidorrari jarraitu nahi izatea aurpegiatu du.

Adierazpen horren aurrean, beharrezkoa ikusten da honako puntuak argitzea:

- Tolosako Udala «13 Laskoain» esparruko «13.1 San Frantzisko pasealekua 37» azpiesparruko xehetasun-azterketaren eta azpiesparrua egikaritzeko araubidearen aldaketa jasotzen duen dokumentua izapidetzeko Udalbatzak 2022ko urtarrilaren 27an, ohiko osoko bilkuran, behin betikoz onetsitako xehetasun-azterketan jarraitu zuen prozedura bera jarraitzen ari da. Hau da, aintzat hartu eta errespetatu da Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean (98 art.) ezarritako prozedura eta Lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuan (33.1 art.) xedatutakoa. Beraz, argi esan daiteke eremu honi lotutako orain arteko prozedurak, zein orain izapidetzen ari denak, aipatutako araudian jasotako betekizun guztiak betez egin



direla eta, ondorioz, legearekin bat datozela. Are gehiago, araututako prozeduran jasotako alegazio-aldiak guztiz errespetatzeaz gain, eremuaren alboko eraikinetako jabe erkidegoak interesduntzat hartu dira udalak hartutako erabakiak zuzenean jakinaraziz. Ondorioz, udalak eremuan orain arte emandako prozedurak eta oraingoa ere gardentasun osoz eman ditu; beraz, onartezina da esatea udala legezko babesik ez duen "prozedura sinplifikatu" bat ematen ari dela edota defentsa-gabezia eman denik.

- Egikaritzeko sistemari dagokionez, alegazio-jartzaileek argudiatzen dute azpiesparru hau ez dela "zuzkidura-jarduketa bat", "zuzkidura bat duen jarduketa bat" baizik. Ez dago argi baieztapen honekin zehazki zer esan nahi den edota aplikagarri den Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean aurreikusita dauden jarduketa-arloak eta -motak ezagutzen diren.

Beraz, komenigarria ikusten da 2/2006 Legeak hirigintzako antolamendua egikaritzeko arautzen dituen jarduketa-moten inguruko azalpena ematea. Hala, adierazi behar da 2/2006 Legeak 136-142. Artikuluetan jarduketa-arloak eta -motak arautzen dituela. Hori horrela, honako jarduketa-motak aurreikusten ditu: jarduketa isolatuak, zuzkidura-jarduketak, jarduketa integratuak eta sistema orokorren eta tokiko sistemen sareetako zuzkidura publikoak egikaritzeko jarduketak. Orain dagokigunerako, komenigarria da azaltzea adierazitako Lege horren ondorioetarako jarduketa integratuen eta zuzkidura-jarduketen arteko aldea.

«137. artikulua.– Zuzkidura-jarduketak.

Lege honen ondorioetarako, honako hauek hartuko dira zuzkidura-jarduketatzat: hirigintza-erakigarritasuna handitzeagatik, hiri-lurzoru finkatugabeen zuzkidura- karga gauzatzera zuzendutako jarduketak.

138. artikulua.– Jarduketa integratuak.

1.– Lege honen ondorioetarako, honako hauek hartuko dira jarduketa integratutzat: urbanizazio bidez finkatu gabeko hiru-lurzoruaren barruan eta lurzoru urbanizagarriaren barruan, egikaritze isolatuek baino urbanizazio-maila handiagoa behar duten lursailetan egiten direnak, urbanizatzeko jarduketa-programa bakar baten arabera orube bat edo batzuk sortzeko. Jarduketa horiek egikaritze-unitate oso baten edo batzuen bidez gauzatu beharko dira egikaritze publikoz edo pribatuz, baita egikaritze-jarduketak antolamendu-eremu ezberdinei dagozkien kasuan ere. (...)».

Irakur daitekeenez, besteak beste, bien arteko alde nagusia da zuzkidura-jarduketak hirigintza-erakigarritasuna handitzeagatik hiri-lurzoru finkatugabeen ematen direla eta jarduketa integratuak, berriz, urbanizazio bidez finkatu gabeko hiri-lurzoru finkatu gabeen.

«13 Laskoain» hirigintza esparruko arau partikularretan, zehazki, "IV. hirigintza erregimen xehatua" atalean, hiri-lurzoruaren kategorizazioa zehaztean aipatzen da «13.1 San Frantzisko pasealekua 37» azpiesparruko lursailak hiri-lurzoru finkatu gabeak direla, urbanizazioaren gabeziagatik eta/edo urritasunagatik (2/2006 Legeko 11.3.b).1 art. definitzen da). «Villa Sagrado Corazon» eraikina Tolosako Hiri Ordenazioko Plan Orokorren Katalogoan barneratuz finkatuta geratzeak, ordea, argi dago azpiesparruko egoera aldatu egin duela eta, ondorioz, 2/2006 Legeko 11.3.b).2 art. aurreikusten den kasuan gaudela. Hori horrela, interpretatu zein ulertu daiteke ere jarduketa-mota aldatu egin dela jarduketa-integratutik zuzkidura-jarduketara.



Honen arrazoia ere bada neurri batean eraikina finkatzeak ere urbanizazio-lan gutxiago ekartzen dituela.

Egikaritze-araubideari dagokionez, 2/2006 Legeak zehazten du jarduketa-mota, plangintzatik ondorioztatzen diren egitezko elementuen eta elementu juridikoen arabera. Horregatik, 2/2006 Legearen 138. artikulua, jarduketa integratu baten aurrean gaudela jotzeko, zera eskatzen du: urbanizazioak finkatu gabeko hiri-lurzorua izatea, jarduketa isolatuek baino urbanizazio-maila handiagoa eskatzen duena. Hartara, jarduketa isolatu baten aurrean gaudela jotzeko aukera ematen duten kasuak egiaztatzerakoan, zera ikusi da: 2/2206 Legearen 136.b eta 195 artikuluen arabera, beharrezkoa den urbanizazioak ez duela gainditzen aurreikusitako eraikuntza-obraen kontrata bidezko exekuzio-aurrekontuaren % 5. Hau da, ezin da jardun integratuaz hitz egin, obra horiek eraikuntzaren obra osagarri gisa baimendu baitaitezke. Horrela, antolamendu berriak eragotzi egiten du HAPOK eremuko arau partikularren fitxan agintzen duen jarduketa integratua mantentzea.

Bestalde, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 11.3.b.2 artikuluen arabera, eta HAPOK une honetan finkak gauzatura duena baino hirigintza-eraikigarritasun handiagoa esleitzen duenez, argi dago hirigintza-eraikigarritasuna handitzeagatik finkatu gabeko hiri-lurzoru baten aurrean gaudela. Eta lursail horiei 2/2006 Legearen 25.2 artikulua ezarritako betebeharrak esleitzen dakizkiekeenez, dagokien zuzkidura-karga kentzea barne, argi dago 2/2006 Legearen 137. artikuluan definitutako zuzkidura-jarduketa baten aurrean gaudela. Haren definizioa eta betebeharrak Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen testu bateginaren 7.1.b eta 18.2 artikuluetan ere badaude (7/2015 Legegintzako Errege Dekretua), eta horiekin argi eta garbi identifikatzen da eremua xehetasun-azterketari erantsitako antolamenduarekin definitzen den kasua. HAPOren arau orokorren 29., 33. eta 37. artikuluetan ere errepikatzen den lege-eskema.

Beraz, argi dago betetzen direla zuzkidura-jarduketa baten aurrean gaudela jotzeko legezko baldintzak.

Bestalde, kontuan hartzekoa da ere Tolosako HAPOko 29.2.B artikuluan, eraikigarritasun haztatua gehitzearen ondorioz finkatu gabeko hiri-lurzoruaren atalean, honakoa zehazten dela: «Aipatutako kategorizazioa hiri-plangintzan izendatuki grafiatuta dagoenean, horren behin betiko zehaztapena adierazitako gauzatzeko fasean egiaztatzen diren informazioaren eta datuen emaitzako ondorioen mende egongo da. Informazio horrek eta datu horiek hiri-plangintzan bildutakoez bestelako ondorioei bide ematen badiete, horiekin bat datorrena hartuko da aintzat lur-eremuak dagokien hiri-lurzoruko kategorian sartzeko, baina horrek ez du esan nahi plangintza horretako egitura- antolamenduaren eta antolamendu xehatuaren aurreikuspenak aldatuko direnik (Hala badagokio, eta hiri-lurzoruak hiri-lurzoru finkatuaren edo hiri-lurzoru finkatu gabearen kategorietan sartzeari dagokionez, antolamendu-aurreikuspenak gauzatzeko fasean –dagokien eraikuntza-proiektuaren izapideak barne– egiaztatzen diren datuen eta informazioaren ondorio izan litezkeen birdoikuntzak besteak beste 2006ko ekainaren 30eko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen «53.1.h» artikuluan azaldutako irizpideekin bat datozela ulertuko da)».



Hori dela eta, orain izapidetzen ari den dokumentuan arrazoitzen denez, «13.1 San Frantzisko pasealekua 37» azpiesparruko zuzkidura-kargak gauzatzera zuzendutako jarduketa-mota zuzkidura-jarduketarena izan behar du; aurreikusitako jarduketa integratuaren orde.

Horren harira, Tolosako HAPOko 37. Artikuluan, hirigintza-antolamendua gauzatzeko modalitateak arautzen direnean, zuzkidura-jarduketei dagokionez, honakoa adierazten da:

«A. Zuzkidura-jardun deritzenen erregimenaren mendekotzat hartuko dira, indarrean dagoen hirigintzako legerian eraikigarritasun haztatua gehitzearen ondorioz finkatu gabeko hiri-lurzorutzat hartzeko ezarrita dauden baldintzak betetzen dituztelako, nahiz Plan Orokor honetan, **nahiz berau garatzeko sustatuko den plangintzan, nahiz aurreikusitako antolamendua gauzatzeko fasean, baita dagokien eraikuntza proiektua formulatu eta izapidetzen den aldi berean edo horren osagarri gisa ere, haiei lotzen zaizkien lur-eremuak eta lursailak.**

(...)».

Artikulu horretako a) atala aztertuz gero, ikus daiteke aukera dagoela zuzkidura jarduketaren modalitatea HAPOz besteko hirigintza-tresna zein dokumentu bitartez

hautatzeko (Plan Orokorra garatzeko plangintza) edota aurreragoko fase batzuetan

(antolamendua gauzatzeko fasean, eraikuntza-proiektua formulatu eta izapidetzen den aldi bereran edo horren osagarri).

Beraz, Tolosako HAPOko 37.a) artikulua emandako aukerari jarraituz, egokia da orain izapidetzen ari den Xehetasun-azterketaren aldaketarekin batera azpiesparru horretako egikaritze araubidea ere aldatzea. Ondorioz, beste behin, esan beharra dago prozedura aplikagarri diren legeak zein araudiak emandako eskumenen barruan izapidetzen ari dela; legezkoa dela, alegia.

- Azkenik, jarraian izapidetu beharko diren espedientei dagokionez, UJP izapidetzeko beharra ez izan arren, dagokion birpartzelazio proiektua izapidetuko da.

Hori guztia kontuan hartuta, argi dago Tolosako Udala legez aurreikusitako prozedura jarraitzen ari dela, eta, nolahi ere, nahikoa dela alegazio-egileen, eragindakoen eta, oro har, herritarren eskubideak bermatzeko. Ondorioz, prozedurari buruzko alegazioa ezetsi egin behar da.

BOSGARRENA.- Udalbatzari dagokiola behin betiko onespina ematea «13 Laskoain» esparruko «13.1 San Frantzisko pasealekua 37» azpiesparruko xehetasun-azterketaren eta azpiesparrua egikaritzeko araubidearen aldaketari, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 98.3 artikuluan eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2 c) artikuluan ezarritakoaren arabera.

Aurreko guztia aintzat harturik, hona hemen nire



PROPOSAMENA

LEHENA.- ZATI BATEAN ONARTZEA «13 Laskoain» esparruko «13.1 San Frantzisko pasealekua 37» azpiesparruko xehetasun-azterketaren eta azpiesparrua egikaritzeko araubidearen aldaketaren hasierako onespeneren ondotik aurkeztu diren ALEGAZIOAK, hain zuzen, onartzea San Frantzisko 35 zenbakiko jabekideen garajera sartu ahal izateko arrapala zabaltzeko aukera eta, beraz, San Frantzisko 37 azpiesparruko sotoko alineazioak aldatzea; etorkizunean Udala eta bizilagunen artean dagokion Hitzarmena izenpetu eta arrapala zabaltzeko aukera egingarria izan dadin.

Gainontzeko alegazioak ezetsi egiten dira azterketa juridikoan azaldutako arrazoiengatik.

BIGARRENA.- BEHIN BETIKO ONESPENA EMATEA «13 Laskoain» esparruko «13.1 San Frantzisko pasealekua 37» azpiesparruko xehetasun-azterketaren eta azpiesparrua egikaritzeko araubidearen aldaketari.

HIRUGARRENA.- Behin betiko onepen erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

LAUGARRENA.- Erabaki hau alegazio-jartzaileari zein enpresa sustatzaileari jakinaraztea eta, eragindako jabe zein interesdunei erabaki honen berri ematea.

BOSGARRENA.- Erabaki hau hirigintzaren arloan eskumena duen foru-organoari jakinaraztea».

Tolosako udaleko Lurraldea Batzordeak, 2024ko urriaren 23an egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu du. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

Aldeko botoak: Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Aitzol Garzia Azurmendi eta Aitor Agirresarobe Murgi.

Abstentzioak: Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria eta Jose Mari Villanueva Telleria.

Beraz, hori dena ikusirik, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

IRIZPENA

LEHENA.- ZATI BATEAN ONARTZEA «13 Laskoain» esparruko «13.1 San Frantzisko pasealekua 37» azpiesparruko xehetasun-azterketaren eta azpiesparrua egikaritzeko araubidearen aldaketaren hasierako onespeneren ondotik aurkeztu diren ALEGAZIOAK, hain zuzen, onartzea San Frantzisko 35 zenbakiko jabekideen garajera sartu ahal izateko arrapala zabaltzeko aukera eta, beraz, San Frantzisko 37 azpiesparruko sotoko alineazioak aldatzea; etorkizunean Udala eta bizilagunen artean dagokion Hitzarmena izenpetu eta arrapala zabaltzeko aukera egingarria izan dadin.

Gainontzeko alegazioak ezetsi egiten dira azterketa juridikoan azaldutako arrazoiengatik.



BIGARRENA.- BEHIN BETIKO ONESPENA EMATEA «13 Laskoain» esparruko «13.1 San Frantzisko pasealekua 37» azpiesparruko xehetasun-azterketaren eta azpiesparrua egikaritzeko araubidearen aldaketari.

HIRUGARRENA.- Behin betiko onepen erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

LAUGARRENA.- Erabaki hau alegazio-jartzaileari zein enpresa sustatzaileari jakinaraztea eta, eragindako jabe zein interesdunei erabaki honen berri ematea.

BOSGARRENA.- Erabaki hau hirigintzaren arloan eskumena duen foru-organoari jakinaraztea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko Botoak: Angel Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Goiuri Ezeiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Josune Sanz Vidal, Aitor Agirresarobe Murgi, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi eta Garbiñe Marzol Ormazabal.

Abstentzio Botoak: Xarles Iturbe Pasaban, Biotxa Agirre Ugalde, Leire Zubeldia Rezola, Javier Zabala Sastre Tolosa, Ainhoa Dominguez Landa, Patxi Amantegi Zubiria eta Iker Uson Gonzalez.

Beraz, Udalbatzak, gehiengoz, onartu du «13 Laskoain» esparruko «13.1 San Frantzisko pasealekua 37» azpiesparruko xehetasun-azterketaren eta azpiesparrua egikaritzeko araubidearen aldaketaren hasierako onespeneren ondotik aurkeztu diren alegazioak erantzutea eta behin betiko onespena eman dio.

8. BIGARREN ALDAKETA “20.1 AMAROTZ PAPER-FABRIKA” AZPIESPARRUARI BURUZKO HIRI-ANTOLAMENDUKO PLAN BEREZIARI (OHIKO INGURUMEN EBALUAZIO ESTRATEGIKOAREN MENDE). BEHIN BETIKO ONESPENA EMATEA.

Lurraldea Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorraren 2024ko urriaren 23ko irizpena

IKUSIRIK

LEHENEA.- 2021H1050001 zenbakidun espedienteari, HAPB 2. Aldaketari buruzkoa, dagozkion aurrekariak:



Dokumentua	Data/Zk.	Oharrak
VISESa aurkeztutako HAPB 2. aldaketa	2021/01/27	
VISESa aurkeztutako dokumentazio osagarria	2021/02/16	
VISESa aurkeztutako HAPB 2. Aldaketaren dokumentazio berria	2021/12/20	
Eragin linguistikoaren irismen-dokumentua	2022/03/23	UEMAko teknikariak egina
Hirigintza buruaren txostena (JM22035)	2022/09/19	HAPB 2. Aldaketari hasierako onespina ematearen aldekoa, baldintzekin.
Hirigintzako tekniko juridikoaren txostena (MAU22069.1)	2022/09/29	HAPB 2. Aldaketari hasierako onespina ematearen aldekoa, baldintzekin.
Hirigintzako tekniko juridikoaren akordio-proposamena (MAU22069.2)	2022/09/29	HAPB 2. Aldaketari hasierako onespina ematearen aldekoa, baldintzekin
Udaleko Idazkariaren ziurtagiria TGB hartutako erabakiaz.	2022/10/06	HAPB 2. Aldaketari hasierako onespina eman izanarena.
Jakinarazpenak interesdunei: <ul style="list-style-type: none"> - VISESA - Kantauriko Konfederazio Hidrografikoa - Ekologistak martxan - Eguzki talde ekologista - Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila - Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen saila - Gipuzkoako Foru Aldundiako Bide Azpiegiturak Departamentua - Gipuzkoako Foru Aldundiako Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Departamentua - Gipuzkoako Foru Aldundiako Kultura, Lankidetz, Gazteria eta Kirol Departamentua - Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen saila (IHOBE) 	<ul style="list-style-type: none"> 2022/10/07 2022/10/14 2022/10/14 2022/10/21 2022/10/11 2022/10/14 2022/10/14 2022/10/14 2022/10/14 2022/10/19 	



- Uraren Euskal Agentzia	2022/10/14	
Administrazio sektorialen baimenak eskatzea:		Administrazio sektorialen txostenak jasotzea:
- Telekomunikazioak	2022/10/13 (ele bitan: 2022/11/23)	2023/01/26
- Zortasun aeronautikoa	2022/10/18	2023/02/07
- GFA, Kultur Ondarea	2022/10/13	2022/10/21
- Uraren Euskal Agentzia	2022/10/14	2023/03/13
- EJ, Kultur Ondarea	2022/10/13	2022/10/24
- GFA, Bide Azpiegiturak	2022/10/13	2022/10/24
- URA	2024/09/06	2024/10/01
- Gipuzkoako Urak-Ur Kontsortzioa	2024/04/15	2024/08/09
- Iberdrola	2024/04/15	2024/05/20
- Nortegas	2024/04/15	2024/05/31
Iragarkiak:		
- GAOn	2022/10/18 (197 zk.) Akats zuzenketa: 2022/10/21 (200. Zk.)	
- Udaletxeko taulan	2022/10/24 – 2022/12/28	
- Udaleko web orrian	2022/10/24	
- Berria / Tolosaldeko Ataria	2022/10/26	
- Diario Vasco	2022/10/27	
Informazio publikoaren amaiera	2023/01/03	Ez da alegazio ez erreklamaziorik aurkezten
Hirigintzako tekniko juridikoaren txostena (MAU23031) eta Udaleko Idazkariaren ziurtagiria	2023/05/02	Jendaurrekoari buruz, (alegaziorik ez)
VISESAK behin betiko onespenerako aurkeztutako dokumentazio osagarria.	2023/08/07	Dokumentazio idatzia eta ingurumen-azterketa estrategikoaren eranskinak
VISESAK behin betiko onespenerako aurkeztutako dokumentazio osagarria.	2024/06/14	Ur-hornidurako sarearen eta saneamendu-sarearen eranskinak

BIGARRENA.- 2021H1300001 zenbakidun espedienteari, ohiko ingurumen ebaluazio estrategikoari buruzkoa, dagozkion aurrekariak:

Dokumentua	Data/Zk.	Oharrak
VISESaren eskaera ingurumen-ebaluaziorako hasierako dokumentu estrategikoa izapidetzeko.	2021/01/27	
Ingurumen administrazioaren zuzendaritzari ohiko ingurumen-	2021/02/03	



ebaluazio estrategikoaren irismen dokumentua egiteko eskaera		
Ingurumen administrazio zuzendaritzaren errekerimendua eskaera zuzentzeko	2021/03/03	
Ingurumen administrazioaren zuzendaritzari eskatutako dok. igorpena	2021/03/05	
Ingurumen administrazio zuzendaritzaren jakinarazpena kontsulta-izapidea hasi dela adierazteko	2021/03/16	
Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendariaren ebazpena	2021/04/20	HAPB 2. Aldaketaren irismen dokumentua
Uraren Euskal Agentziako plangintza eta obren Zuzendaritzaren txostena	2021/06/01	HAPB 2. aldatetari buruzkoa
Jakinazpena interesdunari irismen-dokumentua igorri	2021/06/08	
VISESAr aurkeztutako dokumentazio osagarria	2021/12/21	Errekeritutako dokumentazioa (ingurumen-azterketa etab.)
Ingurumen eta Landa eremuko teknikariaren txostena (IM20220097)	2022/08/30	Ingurumen adierazpen estrategikoari buruzkoa
Hirigintza buruaren txostena (JM22035)	2022/09/19	HAPB 2. Aldaketari hasierako onespina ematearen aldekoa, baldintzekin.
Hirigintzako tekniko juridikoaren txostena (MAU22069.1)	2022/09/29	HAPB 2. Aldaketari hasierako onespina ematearen aldekoa, baldintzekin.
Hirigintzako tekniko juridikoaren akordio-proposamena (MAU22069.2)	2022/09/29	HAPB 2. Aldaketari hasierako onespina ematearen aldekoa, baldintzekin
Udaleko Idazkariaren ziurtagiria TGB hartutako erabakiaz.	2022/10/06	HAPB 2. Aldaketari hasierako onespina eman izanarena.
Ingurumen administrazioaren zuzendaritzari ingurumen-adierazpen estrategikoaren eskaera	2023/10/03	
Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendariaren komunikazioa adieraziz Ur Agentziara igorri dela	2023/12/26	
VISESAr igorpenaren jakinarazpena	2024/01/26	



Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzako ebazpena (ingurumen-adierazpen estrategikoa)	2024/04/18	Gazteleraz
VISESAri ebazpenaren jakinarazpena	2024/04/23	
Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzako ebazpena (ingurumen-adierazpen estrategikoa)	2024/05/15	Euskaraz
VISESAk aurkeztutako laburpen-dokumentua HAPB 2. Aldaketaren publizitaterako	2024/10/15	

HIRUGARRENA.- Honako hauek dira adierazitako espedienteekin erlazionatutako gainontzeko espedienteak:

- B.5.1.20.1/2009/0001 hiri ordenazioko plan berezia
- B.5.1.20.1/2010/0001 urbanizatzeko jarduketako programa
- B.5.1.20.1/2010/0002 urbanizazio-proiektua
- B.5.1.20.1/2011/0001 birpartzelazio-proiektua
- B.5.1.20.1/2012/0001 hiri ordenazioko plan bereziaren aldaketa
- 2021IHTP0015 lankidetzako hitzarmena

KONTUAN HARTURIK

LEHENA.- Aplikatu beharreko legeria honakoek zehazten dutela:

- Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 9., 59., 69-72, 84-89, 95-97 eta 108-110 artikulak.
- Lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 1-8, 31., 32. eta 37. artikulak.
- Ekainaren 23ko 2159/1978 Errege Dekretuak onartutako Hirigintza Plangintzaren Erregelamenduaren 43tik 64ra, 115etik 122ra eta 136tik 139ra bitarteko artikulak.
- Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 60-75 artikulak eta II.A eranskina.
- 211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena.
- Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 17. artikulatik 28. artikulura bitartekoak.
- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.j) eta 22.2.c) artikulak.

BIGARRENA.- 2024ko urriaren 18an, hirigintza departamenduko buruak egindako txosten teknikoan (JM24_067) jasotakoa:

<<(...)

AZTERKETA TEKNIKOA:

Erregistro elektronikoa bidez **2024ko ekainaren 3an aurkeztutako dokumentazioa** honakoa da: eskaera orriarekin batera 20.1 Amarotz Paper-fabrika Azpiesparruko Hiri Antolamenduko Plan



Bereziaren Bigarren Aldaketa eta honen ingurumen-azterketa estrategikoa (inpaktu akustikoaren azterketa barne).

Dokumentua elebitan aurkeztu da. Plan Berezia Cristina Llamas Escribano arkitektoak izenpetuta dago. Ingurumen azterketa estrategikoa, berriz, Ekos enpresak idatzi du eta Azterketa Hidraulikoa Harreman enpresak.

Dokumentuaren atalak honakoak dira:

- A Dokumentua. Memoria
- B Dokumentua. Ordenantza Arautzaileak
- C Dokumentua. Antolakuntza eta Exekuzioaren Kudeaketaren Artezpideen Azterketa.
- D Dokumentua. Bideragarritasun ekonomiko-finanziarioaren azterketa.
- E Dokumentua. Jasangarritasun ekonomikoaren azterketa.
- F Dokumentua. Generoaren gaineko eraginaren ebaluazioa.
- G Dokumentua. Egikaritze-laburpena.
- H Dokumentua. Planoak
- I Eranskina. Behin betiko Ingurumen Azterketa Estrategikoa (Inpaktu Akustikoaren Azterketa eta Azterketa Hidraulikoa barne)
- II Eranskina. Paisaiaren gaineko eraginaren azterketa
- III Eranskina. Ingurumen-txostenak eta ingurumen-ebazpenak

Bestalde, 2024ko ekainaren 14an Plan Bereziaren bigarren aldaketari eransteko bi dokumentua aurkeztu zituzten, ur hornidurari eta saneamenduari buruzko azpiegiturei buruzkoak.

Aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean honakoa esan beharra dago:

I.1.- TXOSTENAREN HELBURUA:

Txosten honen helburua da, aurkeztutako Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren Bigarren Aldaketaren Dokumentua behin betiko onartu aurretik, dokumentua aztertzea.

I.2.- PLANAREN HELBURUA:

«20.1 Amarotz paper-fabrika» esparruan urbanizazio-obrak egin ostean, horrek uholde-eremua izateari utzi zion Araxes ibaian aurreikus ezin zitezkeen gertakarietarako. Hala ere, Uraren Euskal Agentziak (URA) 2014an egindako uholde-arriskuaren eguneraketaren ostean, erreferentziatzko eremuak, irizpide berriak aplikatuz, uholde-eremua izaten jarraitzen du Araxes ibaiaren ezohiko uholdeetarako. Hori horrela, eremu horretan proposatutako garapenak urpean gera daitezke partzialki Q100 eta Q500 uholdeengatik iparraldean, eta hegoaldeko garapenak uholde-eremuen eta lehentasunezko fluxuaren barruan daude.

Horri lotuta, nabarmendu behar da partzelen artean dagoen aldea hirigintzako egoeran; alde batetik, P1 eta P2 partzelak daude, eta, bestetik, P3 eta P4 partzelak.

Horrela, gaur egun, P1 eta P2 partzelak 2014an gauzatutako eta jasotako urbanizazioaren barruan daude, eta hirilurzoru edo orube dira, hau da, egoera urbanizatuan daude Lurzoruari eta Hiri Birgaitzeari buruzko 7/2015 Legearen ondorioetarako (7/2015 Legea).

Dena den, P3 eta P4 partzelak urbanizazio-obrarik egin ez den esparruan daude; hortaz, URAREN ustez, eta 7/2015 Legearen xedatutakoa betez, landaingurunean daude, eta, beraz, horien garapena mugatuta dago uholde-arriskuaren ondorioz.



Horregatik, esparru hori ezin da garatu, gaur egun indarrean dauden antolamendu xehatuko eta kudeaketako dokumentuek ezarritako antolamendua eta hirigintza-parametroak betez.

Ondorioz, Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren Bigarren Aldaketa honen xedea honakoa da memoriako 1.3. puntuan zehazten denaren arabera:

<<HAPBren aldaketa antolamendu berri bat proposatzeko beharrean kokatzen da, indarrean dauden URAREN eskakizunekin bateragarria izango dena eta honako parametro hauetan hobetzeko aukerak jasoko dituena:

- i. antolamendu- eta sustapen-helburuak berak.
- ii. Eraikinen orientazioak eta eguzkitze baldintzak.
- iii. Antolamendu eta urbanizazio berrian genero-ikuspegia txertatzea.
- iv. Proposamen berriaren hirigintza-justifikazioa.

Antolamendu berriak jarraian zehazten diren helburu orokorrak egiaztatu eta horiei erantzun behar die.

a) P-2 partzela P-2.1 eta P-2.2 bi unitatetan banatzea, behar bezala sustatu ahal izateko, alokairu publikora bideratutako etxebizitza babestuaren egungo premiei erantzuteko.

b) Lehentasunezko fluxu-eremuan dauden eta erabat uholde-eremuan dauden P-3 eta P-4 partzeletan hasieran aurreikusitako aprobetxamenduak eta eraikinak ezabatzea, eta haien hirigintzaaprobetxamenduak P-1, P-2.1 eta P-2.2 lurzatieta lekualdatzea.

c) Jatorrizko P-1 eta P-2 partzelak aldatzea, P-3 eta P-4 partzelen soberako eraikigarritasuna beren gain hartu ahal izateko, eta, era berean, beheko solairuak eta sotoetarako sarbideak ezartzea ahalbidetuko duen konfigurazioa baimentzea.

d) Partzela pribatuko espazioak libre uztea, okupazio pribaturik eta plangintzako erabilera publikoko zortasunik gabe, eta obren amaieran Udalari laga beharreko espazio publiko gisa proposatzea.>>

I.3.- INDARREAN DAGOEN ARAUDIA BETETZEA:

- TOLOSAKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORREKO EGITURAZKO ARAUDIA BETETZEA:

Hiri antolamenduko plan berezi honek Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko "20. AMAROTZ" esparruari eragiten dio, zehazki, "20.1 AMAROTZ PAPER-FABRIKA" azpiesparruari. Azpiesparru hau hiri-lurzoru bezala sailkatuta dago. Proposatutako egiturazko hirigintza-parametroen azterketa hauxe da:

	TOLOSAKO HAPO	PLAN BEREZIAREN 2. ALDAKETA	BETETZEN DU (BAI/EZ)
AZPIESPARRUAREN AZALERA (m2)	63.302	63.302	BAI
SESTRA GAINEAN	28.791	28.791	BAI
BOE	8.277 (%30)	17.764	BAI alda dezake
TASATUAK	5.518 (%20)	0	BAI alda dezake



ERAIKIGARRITASUNA (m2(s))	LIBREAK	13.796 (%50)	9.827	BAI alda dezake
	ETXEB. GUZTIRA ERAB.	27.591	27.591	BAI
	TERTZIARIOA	1.200	1.200	BAI
	SESTRA AZPIAN	15.000	12.706	BAI
KALIFIKAZIO GLOBALA (m2)	A.20 ERAIKUNTZA IREKIKO BIZITEGI ZONA (24.469)	A.20 ERAIKUNTZA IREKIKO BIZITEGI ZONA (24.469)		BAI
	E.10 BIDE KOMUNIKAZIOEN SISTEMA OROKORRA (3.833)	E.10 BIDE KOMUNIKAZIOEN SISTEMA OROKORRA (3.833)		BAI
	F.10 ESPAZIO LIBREEN SISTEMA OROKORRA (34.993 m2)	F.10 ESPAZIO LIBREEN SISTEMA OROKORRA (35.000 m2)		BAI
HIRIGINTZA-SAILAKAPENA	Hiri-lurzorua	Hiri-lurzorua		BAI
ERAIKUNTZAREN PROFILA	Ez da zehazten (Plan Berezira bideratzen du)	Sestra gainean: BS + VII / VIII / IX Sestra azpian: II / III		BAI

Plan Bereziaren bigarren aldaketa honek ez du eraginik azpiesparruaren mugetan, hirigintza-sailkapenean eta kalifikazio globalean eta gehienezko eraikigarritasuna errespetatzen du.

Babestutako etxebizitzaren portzentaia gehitzen du eta baita eraikuntzen solairu kopurua ere. Baina bi zehaztaperen horiek ez dira egiturazkoak, ordenazio xehatuari dagozkionak baizik. Beraz, Plan Bereziak aldaketa horiek egin ditzake.

- HIRIGINTZA ERREGIMEN XEHATUA ETA HIRIGINTZA-ESTANDARRAK BETETZEA:

2010ean behin betiko onartutako hirigintza erregimen xehatua eta proposatutako antolamenduaren arteko konparaketa honakoa da:

	2010EKO PLAN BEREZIA			PLAN BEREZIAREN 2. ALDAKETA			BETETZEN DU (BAI/EZ)		
AZALERA (m2)	P1		2.251,00	8.635,00	P1		2.015,20	5.345,40	BAI alda dezake
	P2		4.278,00		P2.1		1.915,20		
	P3		1.053,00		P2.2		1.415,00		
	P4		1.053,00						
ERAIKIGARRITASUNA (m2(s))	P1	SG	7.196	SG: 28.791 SP: 15.000	P1	SG	11.027,00	SG: 28.791 SP: 12.706	BAI alda dezake
		SP	4.300			SP	6.045,60		
	P3	SG	14.595		P2.1	SG	9.998,00		
		SP	6.700			SP	3.830,40		
	P3	SG	3.500		P2.2	SG	7.766,00		
		SP	2.000						

ESKU54de317c-28e0-4696-b110-16aaf6c0d820



	P4	SG	3.500		SP	2.830,00	
		SP	2.00				
ETXEBIZITZA KOPURUA			306			296 (104 + 111 + 81)	BAI alda dezake
ERAIKUNTZAREN PROFILA	Sestra gainean: BS + V / VI + TA Sestra azpian: II			Sestra gainean: BS + VII / VIII / IX + TA Sestra azpian: II / III			BAI alda dezake

Aurretik onartutako Plan berezia eta honen lehenengo aldaketarekin alderatuta lursaileen azalera aldatzen dira, batetik; 4 partzelatik hirura pasatzea proposatzen da lursailen guztizko azalera gutxituz (lehen 8.635 m² eta orain 5.381,40 m²). Bestetik, sestrapeko eraikigarritasunaren muga gutxitzen du. Eta, azkenik, eraikuntzen profila gehitzen du: lehen sestrapean II solairu aurreikusten ziren eta orain II edo III. Eta lehen sestragainean BS+V eta BS+VI solairu aurreikusten ziren eta orain BS + VII / VIII / IX. **Plan Bereziak aldaketa horiek guztiak egin ditzake.**

Baina profilaren aldaketa oso nabarmena dela kontuan izanda Planaren 2. Aldaketa honi hasierako onespina eman zitzaionean honako baldintza jarri zen, besteak beste:

<<Eraikin berrien profilen aldaketa oso nabarmena da eta aldaketa hori auzoan nola integratzen den eta gertuko eraikinarengan zein eragin duen aztertu beharko da (eguzkiztapena, paisaia inpaktua, eta abar kontuan hartuta).>>

Hori dela eta Plan Bereziaren 2. aldaketaren Memoriaren 2. eranskina aurkeztu du eragileak: "20.1 AMAROTZ PAPER-FABRIKA" AZPIESPARRUARI BURUZKO HAPBren 2. ALDAKETAREN PAISAIAREN GAINEKO ERAGINAREN AZTERKETA

Dokumentu horretan, alde batetik, gogorarazten da Amaroitz paper-fabrikak ingurumenaren eta paisaiaren gaineko eragin oso handia zuela. Eta garapen honekin egoera hori asko hobetuko dela.



Bestetik, proposatutako eraikinen eguzkiztapen-analisia barneratu da. Horrela, ikus liteke garapen berriak gaur egungo auzoan izan dezakeen eragina. Hortik ondorioztatu litekeena da batez ere neguan 1go lursailerako eraikinek gaur egungoen gainean itzala egiten dutela. Dena den, 1go lursailerako etorkizunean xehetasun azterlan bat izapidetzea aurreikusten denez, eguzkiztapen azterketa hau kontuan hartuta antolamendua berrikusi beharko da.

Azkenik proposatutako antolamenduaren analisi bisuala egin da hainbat irudi eta infografia



erabiliz.

Aurkeztutako dokumentuarekin eskatutako baldintza betetzat eman liteke.

Horretaz gain O.03 planoa zuzentzeko eskatu zen gaur egungo eraikinen profilak ez zeudelako marraztuta. Planoa zuzendu da.

2/2006 Legea eta 123/2012 Dekretuaren arabera Tokiko sistemen sareko zuzkiduratarako eta ekipamendutarako lursail erreserbarako gutxieneko estandarren justifikazioa aurkeztu da. Aurreko Plan Berezian ezarritako tokiko zuzkiduren azalera handitu egiten dira aldaketa honekin:

2010ean ONARTUTAKO PB			PLAN BEREZIAREN 2. ALDAKETA		
SSOO	E.10 BIDE KOMUNIKAZIOEN SO	3.833 m2	SSOO	E.10 BIDE KOMUNIKAZIOEN SO	3.833,00 m2
	F.10 ESPAZIO LIBREEN SO	35.000 m2		F.10 ESPAZIO LIBREEN SO	35.000,00 m2
TOKIKO SISTEMAK	BIDE KOMUNIKAZIOEN TS	7.209 m2	TOKIKO SISTEMAK	BIDE KOMUNIKAZIOEN TS	7.209,00 m2
	EKIPAMENDUEN TS	556 m2		EKIPAMENDUEN TS	556,00 m2
	ESPAZIO LIBREEN TS	8.069 m2		ESPAZIO LIBREEN TS	11.358,60 m2
LURSAIL PRIBATUAK		8.635 m2	LURSAIL PRIBATUAK		5.345,40 m2

- PROPOSATUTAKO APARKALEKU KOPURUA; URBANIZAZIO, ERAIKUNTZA, ETA INGURUMENA, PAISAIA ETA NATURA BABESTEKO UDAL ORDENANTZAK BETETZEA:

Bizitegirako lur zati eta bizitegi-eraikinetan, oin berriko bizitegi-eraikinen edota horietara lotutako lur zatien barruan baliokidetasun hauetarako aparkaleku-zuzkidura proiektatu eta gauzatu beharko da Udal Ordenantzen 98.1 artikuluaen arabera:

- a) Babes ofizialeko etxebizitzak: 1 aparkaleku-plaza / etxebizitzako
- b) Udal-etxebizitza tasatuak: 1,3 aparkaleku-plaza / etxebizitzako
- c) Sustapen libreko etxebizitzak: 1,5 aparkaleku-plaza / etxebizitzako

Bestalde, bai urbanizazio gabeziagatik edota urritasunagatik finkatu gabeko hiri-lurzoru gisa sailkatutako esparru eta azpiesparruetan, besteak beste, proiektatutako hiri-garapenen ondoriozko eraikin edota lur zatien barruan, baliokidetasun hauetako bizikletetarako aparkaleku-zuzkidura proiektatu eta gauzatu beharko da: etxebizitzari lotutako zuzkidurak: 0,25 plaza etxebizitzako edota 70 m²-ko (erabilgarriak).

Proposatutako etxebizitza kopuruak kontuan hartuta autoentzako P1ek 156 aparkaleku beharko ditu, P2.1ek 111 eta P.2.2k 81 (guztira 403) eta bizikletentz 75 aparkaleku. Dena den, eraikuntza eta hiritartze proiektuetan aztertu beharko da estandar hau eta bizikleta aparkalekuei dagokiena betetzen direla.

- HAPBren EDUKIA:



Eskaera orriarekin batera aurkeztu den dokumentua honakoek osatzen dute:

- A Dokumentua. Memoria
- B Dokumentua. Ordenantza Arautzaileak
- C Dokumentua. Antolakuntza eta Exekuzioaren Kudeaketaren Artezpideen Azterketa.
- D Dokumentua. Bideragarritasun ekonomiko-finantziarioaren azterketa.
- E Dokumentua. Jasangarritasun ekonomikoaren azterketa.
- F Dokumentua. Generoaren gaineko eraginaren ebaluazioa.
- G Dokumentua. Egikaritze-laburpena.
- H Dokumentua. Planoak
- I Eranskina. Behin betiko Ingurumen Azterketa Estrategikoa (Inpaktu Akustikoaren Azterketa eta Azterketa Hidraulikoa barne)
- II Eranskina. Paisaiaren gaineko eraginaren azterketa
- III Eranskina. Ingurumen-txostenak eta ingurumen-ebazpenak

Planoei dagokienez, informazio eta antolamendu planoetan hainbat zuzenketa eskatu ziren eta beste plano batzuk gehitzea ere bai:

<<

- *Azpiegiturei dagokienez, informazio planoetan jaso dira lehendik gauzatutako urbanizazioaren arabera azpiegituren planoak baina antolamendu planoetan ez dira jaso. Antolamendua eta etxebizitza kopurua aldatzen denez aztertu egin behar da gauzatutako urbanizazioak eta azpiegiturek aldaketak behar dituzten eta horren arabera antolamendu planoetan azpiegituren planoak erantsi beharko dira.*
- *o.02 planoko azalaren kuadroan akatsak daude. Memoriaren arabera zuzendu egin beharko dira.*
- *o.03 planoan auzoko gaur egungo eraikinen profilak marraztu behar dira.*
- *o.08 plana eta honen leienda ez datoz bat, plana zuzendu egin beharko da.*
- *f.01, f.02 eta f.03 planoetan sestragainean eraikinik ez dagoen lursailaren azalera erabilera publikoko zortasuna dagoela zehazten da; izatekotan geruzazko jabetza izan beharko luke. Dena dela, txoste juridikoan aztertuko da puntu hau.>>*

Eskatutako zuzenketak gauzatu dira.

Lurzorua eta Hirigintzari buruzko 2/2006 legeak ezarritako gutxieneko edukia badu aurkeztutako Plan Bereziak.

Bestalde, otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 18.1 artikuluan ezartzen denaren arabera, planak formulatzerakoan ere kontuan hartu beharko da emakumeen eta gizonen artean berdintasuna lortzearen helburua. Horretarako, **Plana generoaren ikuspegitik ebaluatu da eta Planaren Memorian jaso da atal hau.**

Bestetik, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 7. artikuluan udal euskaldunetako egoera soziolinguistikoan eragina izan dezaketen proiektu eta plangintzak onesteko prozeduran ekimen horiek euskararen erabilerari dagokionez izan lezaketen inpaktua ebaluatuko dela jasotzen da. Geroztik, 179/2019 Dekretuak, azaroaren 19koak, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoak, bere 50. artikuluan Hiri Antolamenduko Plan Berezien hizkuntza-inpaktua ebaluatu egin behar dela jasotzen du. Hala, **Udalak aurkeztutako plana ebaluatu behar den edo ez jakiteko udaleko Euskara eta Hezkuntza Departamentutik Hizkuntza-Azterketaren Irismenari buruzko txostena egiteko eskatu zaio Uemako teknikariari eta 2022ko martxoaren 23an idatzitako txostenean Irismen**



Dokumentua ez dela beharrezkoa ondorioztatu du. Dena dela, derrigorrezkoa ez bada ere, erabat komenigarritzat jotzen du Hizkuntza-inpaktuaren azterlana egitea. Eragilearekin adostutako kronograma kontuan hartuta ez da Hizkuntza-inpaktuaren azterlana egiteko denborarik izan. Dena den, aztertu liteke garapenaren hurrengo faseetan gauzatu litekeen.

- PROPOSATUTAKO ORDENANTZA ARAUTZAILEEN AZTERKETA:

Planaren Bigarren Aldaketari hasierako onespina eman zitzaionean hainbat zuzenketa eskatu ziren proposatutako Ordenantza Arautzaileetan:

<<2010ean behin betikoz onartutako Hiri antolamenduko Plan Bereziko Ordenantza Arautzaileetatik aldatzen diren artikulua bakarrik barneratu dira. Ordenantza Arautzaile guztiak jasotzea komeni da. Eta jabari publikoko eremuei dagozkien artikulua ere barneratu beharko lirateke. Besteak beste, lehengo 3 eta 4. lursailenak, zeinak aldaketa honekin jabari publikokoak bihurtuko baitira.

1.2.9. Lehen erabilerako lizentziak emateko baldintzak artikuluan aipatzen da lehen erabilerako lizentzia partzela bakoitzari lotutako urbanizazio-obrak gauzatzeari baldintzatua egongo dela eta O.08 planoan jasotzen dela lotura hori. Baina Plan Bereziari ez dagokio Hiritartze- eta Eraikuntza-obren faseak zehaztea, Urbanizatze Jarduketa Programari baizik.

Beraz, testua honela aldatu beharko da: "lehen erabilerako lizentzia partzela bakoitzari lotutako urbanizazio-obrak gauzatzeari baldintzatua egongo da". Eta O.08 planoan proposatzen diren hiritartze-faseak eta eraikuntzen eta urbanizazio-obren loturak orientagarriak izango dira. 2010eko urriaren 4ean behin betiko onartutako Urbanizatze Jarduketa Programaren Aldaketa izapidetu beharko da eta bertan zehaztuko da programazio berria eta urbanizazio aurreproiektu egokitu.

Bestalde, 2.3, 2.4 eta 2.5 artikuluetan hiru zuzenketa egin beharko dira: lursail pribatuek ez dute zortasunik izango, etxebizitza kopuruak gehienezkoa izan beharko du eta ez orientagarria eta teilatuzpiko eraikigarritasuna kontatzeko Tolosako HAPOko Arau Orokorretako irizpide berdinak hartuko dira kontuan.>>

Eskatutako zuzenketa gauzatu dira.

- PLANAREN OHIKO INGURUMEN-EBALUAZIO ESTRATEGIKOA:

2024ko apirilaren 17an eman zuen Ebazpena Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendariak, zeinaren bidez formulatzen baita Tolosako (Gipuzkoa) udal-mugarteko «20.1 Amarotz paper-fabrika» azpierrearen HAPBaren 2. aldaketaren ingurumen-adierazpen estrategikoa.

Bertan adierazten da, besteak beste:

<<Planak ingurumen-azterketa estrategikotik eratorritako ingurumen-alderdiak txertatu ditu, ingurumen-organoak emandako irismen-dokumentuan eskatutako zabalatasun-, xehetasuneta zehaztasun-maila bermatuta. Ondorioztatzen da ingurumen-arloko izapidetze-prozesuan adierazitako alderdi guztiak behar besteko zorrotasunez jorratu direla, plangintza-prozesuan gerta litezkeen ingurumen-eraginak kontuan hartu direla bermatzeko moduan.

(...)

D) Indarrean dagoen araudiaren arabera hartuko dira babes-, zuzenketa- eta konpentsazionerriak eta jarraipenekoak, baita hurrengo apartatu hauetan xedatutakoaren arabera eta, aurrekoari aurka egiten ez zaionean, ingurumen-azterketa estrategikoan eta hirigintza-agirian ezarritakoaren arabera ere. Planak, halaber, honako zehaztapen eta neurri hauek bete beharko ditu hura garatzeko proiektuetan:



(...)>>

Oro har, bete beharko dira Ingurumen-adierazpen estrategikoan ezarritako baldintza guztiak.

- **TXOSTEN SEKTORIALAK:** Honako txosten sektorialak jaso dira prozeduran zehar:

	Administrazio sektorialen baimenak eskatzea:	Administrazio sektorialen txostenak jasotzea:
Telekomunikazioak	2022/10/13 (ele bitan: 2022/11/23)	2023/01/26
Zortasun aeronautikoa	2022/10/18	2023/02/07
GFA, Kultur Ondarea	2022/10/13	2022/10/21
Uraren Euskal Agentzia	2022/10/14	2023/03/13
EJ, Kultur Ondarea	2022/10/13	2022/10/24
GFA, Bide Azpiegiturak	2022/10/13	2022/10/24
URA	2024/09/06	2024/10/01
Gipuzkoako Urak-Ur Kontsortzioa	2024/04/15	2024/08/09
Iberdrola	2024/04/15	2024/05/20
Nortegas	2024/04/15	2024/05/31

Txostenak aldekoak dira baina ezarritako baldintzak bete beharko dira uneoro.

- **ARLO JURIDIKOKO TXOSTENA:** arlo juridikoko gaiet buruz txosten juridikora bideratzen da.

III.- ONDORIOA

Beraz, goian esandakoari jarraiki, **ez da eragozpenik ikusten Behin betiko onespina emateko "20.1 Amarotz Paperfabrika" azpiesparruko Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren Bigarren Aldaketari eta azpiesparru honi dagokion ingurumen dokumentu estrategikoari (2024ko ekainaren 3an eta 14an aurkeztutako dokumentuei) honako baldintzapean:**

- Ingurumen-adierazpen estrategikoan, Katuriko Konfederazioaren txostenean eta gainontzeko txosten sektorialetan ezarritako baldintzak bete beharko dira uneoro.
- Txosten juridikoan jasotakoa kontuan hartu beharko da>>.

HRUGARRENA.- Gaiaren inguruan egiten den **azterketa juridikoa:**

<<"20.1 Amarotz paper-fabrika" azpiesparruari buruzko Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren bigarren aldaketari, ohiko ingurumen ebaluazio estrategikoaren mende izapidetutakoa, dagokion espedienteak aplikagarri den lege-betekizun guztiak bete ditu, jendaurrean ez da alegaziorik izan, txosten sektorialak aldekoak izan dira, bete dira hasierako onespene-erabakiarekin ezarri ziren baldintzak eta hirigintza buruak egindako txostena (JM24_067) behin betiko onespina ematearen aldekoa izan da.

Ondorioz, eragozpen juridikorik ez dagoenez, bat nator hirigintza buruak ondorioztatutakoarekin; hots, "20. Amarotz" "20.1 Amarotz paper-fabrika" azpiesparruari buruzko Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren bigarren aldaketari, bere parte den ingurumen dokumentu estrategikoarekin



batera (2024ko ekainaren 3an eta 14an aurkeztutako dokumentuei) hasierako onespina ematea>>.

LAUGARRENA.- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.c) artikulua araberan, Udalbatzarena da HAPB 2. Aldaketa behin betikoz onartzeko eskumena.

Tolosako udaleko Lurraldea Batzordeak, 2024ko urriaren 23an egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu du. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

Aldeko botoak: Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Aitzol Garzia Azurmendi, Aitor Agirresarobe Murgi, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria eta Jose Mari Villanueva Telleria.

Beraz, hori dena ikusirik, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

IRIZPENA

LEHENA.- BEHIN BETIKO ONESPINA ematea “20. Amarotz” “20.1 Amarotz paper-fabrika” azpiesparruari buruzko Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren bigarren aldaketari, bere parte den ingurumen dokumentu estrategikoarekin batera (2024ko ekainaren 3an eta 14an aurkeztutako dokumentuei).

BIGARRENA.- Ohartaraztea ingurumen-adierazpen estrategikoan, Kantauriko Konfederazioaren txostenean eta gainontzeko txosten sektorialetan ezarritako baldintzak bete beharko direla uneoro.

HIRUGARRENA.- Behin betiko onartutako Hiri Antolamenduko Plan Berezia Gipuzkoako Foru Aldundiko Hirigintza Plangintzako Administrazio Erregistroa bidaltzea artxibatu dezan.

LAUGARRENA.- Plana onartu eta hamabost egun balioduneko epean, Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean eta dagokion lurralde historikoa zabalkunde handiena duen egunkarian edo egunkarietan honako agiri hauek argitaratzea:

-) Plana onartzen duen ebazpena eta organo substantiboak plan horren eduki osoa jendearen eskura jarriko duen helbide elektronikoaren aipamena.
-) Ingurumen-txosten estrategikoa argitaratu den Estatuko Aldizkari Ofizialaren edo dagokion aldizkari ofizialaren erreferentzia.

Era berean, hirigintza-arauak eta lizentziak eteteko eta kentzeko erabakiak argitaratzea, dagokion hirigintza-plana hirigintza-plangintzaren administrazio-erregistroan gordailatu dela adierazita.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko Botoak: Angel Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Goiuri Ezeiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Josune Sanz Vidal, Aitor Agirresarobe Murgi, Kristina Pelaez



Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles Iturbe Pasaban, Biotxa Agirre Ugalde, Leire Zubeldia Rezola, Javier Zabala Sastre, Ainhoa Dominguez Landa, Patxi Amantegi Zubiria eta Iker Uson Gonzalez.

Beraz, Udalbatzak, aho batez, behin betiko onespena eman dio bigarren aldaketa "20.1 Amarotz Paper-Fabrika" azpiesparruari buruzko hiri-antolamenduko plan bereziari (ohiko ingurumen ebaluazio estrategikoaren mende).

9. ONARTZEA TOLOSALDEKO TAXIAREN JARDUNBIDE BEREZIKO ZONALDEKO ORDEZKARITZAK EGINDAKO PROPOSAMENA.

Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorraren 2024ko urriaren 23ko irizpena
IKUSIRIK

LEHENA.- Tolosako Udaleko erregistroan, 2024ko irailaren 2an, 11003 sarrera-erregistro zenbakiarekin, AGITAX, Gipuzkoako Taxisten elkarteak (G20098612), honako eskaera hau egin duela: 2025rako taxien tarifa proposamena onartzeko eskaera.

Proposamena: datorren urteko tarifak kalkulatzeko 2024koei % 3ko igoera aplikatzea

BIGARRENA.- Lehiberri Zentroan, 2024ko irailaren 19an, Tolosaldeko Taxiaren Jardunbide Bereziko Zonaldeko ordezkariak bildu ziren Agitax taxi elkarteak 2025 urterako aurkeztutako tarifa proposamenak aztertzeke.

Proposamenean datorren urteko tarifak kalkulatzeko 2025koei % 3ko igoera aplikatzea eskatu dute.

Aurkeztutako proposamena azertu ondoren, honakoa erabaki zuten bildutako ordezkariak

a) 2025 urterako 2024 urteko tarifei % 3ko igoera aplikatzea.

b) Ondorioz 2025ko taxi tarifak honela geldituko lirateke:

I Tarifa (lanegunetan 7tatik 22tara):

Abiasaria: 5,0468 euro

Kilometroko: 1,2390 euro

Itxarote ordua: 22,4651 euro

II Tarifa (egunero 22tatik 7tara, eta larunbata, igande eta araudi autonomiko eta lokaletan erabakitako jaiegunetan 7tatik 22tara, tartean, abenduak 24 eta abenduak 31):

Bandera jaitsiera: 5,6955 euro

Kilometroko: 1,8847 euro

Itxarote ordua: 33,0920 euro

Proposatzen den tarifen igoera oinarritzen da Agitax taxi elkarteak 2025rako eta Gipuzkoako Lurralde Historikorako egin duen ustiapen kostuen ikerketan.



2024ko ikerketak KPI desberdin aplikatzen ditu kostu kontzeptuen arabera (Euskal Autonomia Erkidegoko kontsumo prezioak, Gipuzkoako indizeko seguruen azpitaldea, Gipuzkoako Kontsumo Prezioen Indizeko Ibilgailuen gaineko ondasun eta zerbitzuen azpitaldea, ibilgailu pertsonalen erabilpenaren azpitaldea), guztiak 2023ko uztailetik – 2024ko uztaila epealdikoak.

Erregaien eta erregaien prezioari buruzko trantsizio ekologikorako eta erronka demografikorako Ministerioaren Txostenaren arabera (2022ko uztaila). Automozio Dieselaren prezioa Gipuzkoa 2023ko uztailean: 1,51€.

HIRUGARRENA.- Tolosako Udalak zergak, tasa eta prezio publikoetan % 2,5eko igoera onartu du urriko osoko bilkuran.

KONTUAN HARTURIK

- Ekainaren 29ko 2/2002 legeak, bidaiariak herri barruan eta herriz kanpo kotxez garraiatzeko zerbitzu publikoa arautzen duenak honela dio bere hirugarrenengo artikulua: “...Udalei dagokie, gainera, taxi-zerbitzua emateko udal-ordenantza arautzailea egin eta onartzea, betiere lege honetan eta lege hau garatzeko arauetan ezarritakoari jarraikiz”
- 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 22.2. q) artikuluan xedatutakoaren arabera, honako organo honi dagokio arlo honetako onespena ematea: Udalbatza.
-

Tolosako Udaleko Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorrak, 2024ko urriaren 23an egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

Aldeko bozkak: Garbiñe Marzol Ormazabal, Estitxu Kortejarena Ugarte, Josune Sanz Vidal, Kristina Pelaez Errazkin, Jose M^a Villanueva Telleria, Biotza Agirre Ugalde, Ainhoa Dominguez Landa.

Aho batez onartu da.

Beraz, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

LEHENEA: Tolosaldeko Taxiaren Jardunbide Bereziko Zonaldeko ordezkariak egindako proposamena onartzea, eta honen arabera, 2025 urterako 2024 urteko taxi tarifei % 3ko igoera aplikatzea, tarifak honela utziz:

I Tarifa (lanegunetan 7tatik 22tara):



Abiasaria: 5,0468 euro
Kilometroko: 1,2390 euro
Itxarote ordua: 22,4651 euro

II Tarifa (egunero 22tatik 7tara, eta larunbata, igande eta araudi autonomiko eta lokaletan erabakitako jaiegunetan 7tatik 22tara, tartean, abenduak 24 eta abenduak 31):

Bandera jaitsiera: 5,6955 euro
Kilometroko: 1,8847 euro
Itxarote ordua: 33,0920 euro

BIGARRENA: Erabakia Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailari bidaltzea

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko Botoak: Angel Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Goiuri Ezeiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Josune Sanz Vidal, Aitor Agirresarobe Murgi, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles Iturbe Pasaban, Biotxa Agirre Ugalde, Leire Zubeldia Rezola, Javier Zabala Sastre, Ainhoa Dominguez Landa, Patxi Amantegi Zubiria eta Iker Uson Gonzalez.

Beraz, Udalbatzak, aho batez, onartu du Tolosaldeko Taxiaren Jardunbide Bereziko Zonaldeko ordezkariak egindako proposamena.

10.ONARTZEA ZERBITZUAK EMAN EDO JARDUERAK EGITEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZAREN ALDAKETA.

Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorraren 2024ko urriaren 23ko irizpena

IKUSIRIK

LEHENA.- 2024ko maiatzaren 30ean, Ohiko Osoko Bilkurak Tolosako udaleko Zerbitzuak eman edo jarduerak egiteagatik ordaindu beharreko prezio publikoak arautzen dituen ordenantzaren aldaketak onartu zituela.

BIGARRENA.- 2025. urteko urtarrilaren 1etik aurrerako ondoriotarako eta Gipuzkoako Hazienda Lokalak arautzen dituen uztailean 5eko 11/1989 zenbakidun Foru Araua erabilia aipatutako ordenantza aldatzeko proposamena jaso dela:

Lehena.- Zenbait udal zerbitzu eta zinearen kasuan, %2,5 igotzea.

Bigarrena.- Azoka berezietan, otorduen kopuruak sartzea.

KONTUAN HARTURIK



7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 22.2. d) artikuluan xedatutakoaren arabera, honako organo honi dagokio arlo honetako onespena ematea: Udalbatza.

Tolosako Udaleko Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorrak, 2024ko urriaren 23an egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

Aldeko bozkak: Garbiñe Marzol Ormazabal, Estitxu Kortejarena Ugarte, Josune Sanz Vidal, Kristina Pelaez Errazkin, Jose M^a Villanueva Telleria, Biotza Agirre Ugalde, Ainhoa Dominguez Landa.

Beraz, aho batez, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

LEHENA.- Zenbait udal zerbitzu eta zinearen kasuan, %2,5 igotzea.

3.1.1 Zenbait udal zerbitzu

ZENBAIT UDAL ZERBITZU	EUROAK 2024	EUROAK 2025
A) MATERIALAK		
A.1. Hesi metalikoak, hesiko eta eguneko (3,40*2)	3,00	3,1
A.2. Hesi metalikoak, hesiko eta eguneko (2*1)	3,00	3,1
A.3. Taulatuak, m ² eta eguneko (2,5*3)	10,20	10,5
A.4. Mahaiak bi astorekin (2,50*0,80)	5,30	5,45
A. 5. Sukaldea, eguneko	4,70	4,8
A.6. Buruhandiak eguneko	5,90	6,05



ZENBAIT UDAL ZERBITZU	EUROAK 2024	EUROAK 2025
A.7. Danborra, eguneko	5,90	6,05
A.8. Kaiola, eguneko	1,80	1,85
A.9. Panel txuriak, eguneko	2,35	2,4
A.10. Aulkiak, aleko eta eguneko	0,4	0,4
A.11. Karpa txikia, aleko eta eguneko	44,70	45,8
A.12. Karpa handia, moduloko eta eguneko	69,15	70,9
A.13. Eszenatokia	230,70	236,45
B. MAKINERIA ETA IBILGAILUAK		
B.1. Kamioi saskiduna orduko edo zatikako	124,55	127,65
B.2Beste kamioiak orduko edo zatikiko	107,40	110,1
B.3Makineria oro har (dumper,zanpatzeko makina, etab.).Udalarekin zehazteko.		
C. PERTSONALA		
C.1. Gidaria, ordu bakoitza	47,70	48,9
C.2. Laguntzailea, ordu bakoitza	43,85	44,95

3.1.4. Zinea

LEIDOR	2024 ARRUNTA	2024 MU- RRIZTUA	2025 ARRUNTA	2025 MU- RRIZTUA



1. Zine komertziala	5,60	4,40	5,75	4,50
2. Zine Foruma	4,40	2,30	4,50	4,50
3. Ikuslearen Eguna	4,40	4,40	4,50	4,50
4. Haurren saioak	4,40		4,50	

BIGARRENA.- 3.1.3. eranskinean, azoka bereziei dagokiena, otorduak sartzea:

OTORDUAK:	EURO (BEZa barne)
GOSARIAK	
Arrutan edo kontinentala	5 €
Berezia	8 €
BAZKARIAK	
Eguneko menua	25 €
Menu berezia	50 €
AFARIAK	
Berezia	60 €

HIRUGARRENA.- Aldaketa hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da 2025 urteko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioetarako.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko Botoak: Angel Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Goiuri Ezeiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Josune Sanz Vidal, Aitor Agirresarobe Murgi, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles Iturbe Pasaban, Biotxa Agirre Ugalde, Leire Zubeldia Rezola, Javier Zabala Sastre, Ainhoa Dominguez Landa, Patxi Amantegi Zubiria eta Iker Uson Gonzalez.



Beraz, Udalbatzak, aho batez, onartu du zerbitzuak eman edo jarduerak egiteagatik ordaindu beharreko prezio publikoak arautzen dituen ordenantzaren aldaketa.

11.ONARTZEA HERRI-JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATIBOARI ETA HAREN APROBETXAMENDU BEREZIARI DAGOZKIEN TASEN ORDENANTZA FISKALARENA ALDAKETA.

Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorraren 2024ko urriaren 23ko irizpena

IKUSIRIK

LEHENA.- 2023ko urriaren 26an, Ohiko Osoko Bilkurak Tolosako udaleko Herri jabari publikoaren erabilera pribatiboari eta haren aprobetxamendu bereziari dagozkien tasek ordenantzaren aldaketak onartu zituela.

BIGARRENA.- 2025. urteko urtarrilaren 1etik aurrerako ondoriotarako eta Gipuzkoako Hazienda Lokalak arautzen dituen uztailen 5eko 11/1989 zenbakidun Foru Araua erabilia aipatutako ordenantza aldatzeko proposamena jaso dela:

Lehena.- Irizpide orokorra % 2,5 igotzea da.

Bigarrena.- IBIaren (VADO) kasuan, kobratuko den gutxieneko metro linealak 5 izango direla zehaztea proposatzen da.

KONTUAN HARTURIK

7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 22.2. d) artikuluan xedatutakoaren arabera, honako organo honi dagokio arlo honetako onespina ematea: Udalbatza.

Tolosako Udaleko Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorrak, 2024ko urriaren 23an egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

Aldeko bozkak: Garbiñe Marzol Ormazabal, Estitxu Kortejarena Ugarte, Josune Sanz Vidal, Kristina Pelaez Errazkin, Jose M^a Villanueva Telleria, Biotza Agirre Ugalde, Ainhoa Dominguez Landa.

Beraz, aho batez, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

LEHENA.- Tolosako udaleko Herri jabari publikoaren erabilera pribatiboari eta haren aprobetxamendu bereziari dagozkien tasak %2,5 igotzea.

2.2.1. Hesiak, aldamioak, eskorak eta asnilak

Hesiak, aldamioak, eskorak eta asnilak	2024	2025
Hesiak, edozein obretan (eguneko, m2 edo zatikia)	0,60	0,62
Aldamio finkoetan jarritako defentsak, bide publikoan eutsiak, azpitik ibiltzea ezinezko bihurtzen duten euskarriekin (eguneko, m2 edo zatikia)	0,60	0,62
Defentsa berberak aldamioak bide publikoan eutsita daudenean iladan jarritako euskarriekin fatxadako lerroarekin paraleloan eta bertatik 1,2 metro edo distantzia gehiagora, langarik gabe altueran 3 metro baino gutxiagokoak eta azpitik ibil daitekeenean.(Eguneko, m ² edo zatikia)	0,34	0,35
Defentsa berberak aldamioak erlaizean jarrita daudenean 3 m. baino gehiagoko altueran bide publikoan euskarririk gabe eta horien azpian ibil daitekeenean. (Eguneko, m ² edo zatikia)	0,20	0,21
Eskorak edo asnilak, hesitik kanpo. Bakoitza eguneko	0,11	0,11

2.2.3. Ibilgailuen sarbidea espaloitik eta aparkamendu erreserba bide publikoan

<i>Ibilgailuen sarbidea espaloitik eta aparkamendu erreserba bide publikoan</i>	€ 2024	€ 2025
Sarbideak.		
A.1. Ibilgailuak egin, konpondu, garbitu edo koipeztatzeko lokalek ibilgailuentzat dituzten sarbide bakoitzeko	191,80	196,6
A.2. Komertzio, industria edo negozioren bat dagoen lokal edo finkako sarbidea, kamioi edo autobus sarbide edo irtenbide bezala erabiltzen bada	191,80	196,6
A.3. Garaje kolektiboetako sarbidea, lokalaren kapazitate osoaren arabera. Auto plaza bakoitzeko	9,65	9,9
Ibiak.		
B.1. Zerbitzu edo erabilera partikularra duten garajeak. Bideko metro linealeko edo zatikiko	85,75	87,9
B.2. Garaje kolektiboak. Bideko metro linealeko edo zatikiko	126,75	129,9
B.3. Industri edo merkataritzako establezimenduak, metro linealeko edo zatikiko	144,65	148,25
Toki erreserba.		
C.1. Industri edo merkataritzako establezimenduak, metro linealeko edo zatikiko	72,30	74,1
C.2. Noizbehinkako beharrak eraginda, erabilera desberdinetarako tokia erreserbatzea metro linealeko eta erreserba eguneko	1,65	1,7
D. Plaka berria	33,45	34,30

2.2.3. Azokak

EUSKAL HERRIA PLAZAKO MERKATUA	2024	2025
1.1 Estalperik gabeko zonako postuak m ² -ko eta eguneko	1,50	1,55
1.2 Estalperik gabeko zonako postuak m ² -ko eta hiruhilabeteko	16,20	16,6
BERDURA PLAZAKO MERKATUA		
2.1 Barazki salmentarako postuak m ² -ko eta eguneko	1,8	1,85
2.2 Lore salmentarako postuak m ² -ko eta eguneko	1,7	1,75
ZERKAUSIKO MERKATUA		
3.1 Gazta, hegazti, barazki eta beste batzuk saltzeko industri postuak m ² -ko eta eguneko	2,45	2,5
3.2 Baserritarren nekazaritza ekoizpenen salmenta postua jartzeko mahaien alokairua, mahaiako eta eguneko	0,55	0,56

2.2.5. Udaleko bide publikoetako lurzoru, lurgain eta lurrazpiaren eta gainerako lursail publikoen erabilera pribatiboa edo probetxamendu berezia.

<i>Udaleko bide publikoetako lurzoru, lurgain eta lurrazpiaren eta gainerako lursail publikoen erabilera pribatiboa edo probetxamendu berezia</i>	€ 2024	€ 2025
1. Ondasun edo zerbitzuen salmenta automatikoko txanpon aparatuak, m ² edo zatikia hileko	15,65	16,05
2. Terraza eta instalazio osagarriak bide publikoan: mahaiak, aulkiak, upelak edo antzekoak, m ² edo zatikia.		
Tarifa 1.		
2.1. Hilabeteko, metro karratuko	3,10	3,2
Tarifa 2.		
2.1. Hilabeteko, metro karratuko	2,05	2,1
3. Zaborrak edo materialak gordetzeko edukiontzia, bakoitzeko eta eguneko	5,45	5,6
4. Zabor, lur, harea, hormigoi, etab. m ² eta eguneko	2,30	2,35

<i>Udaleko bide publikoetako lurzoru, lurgain eta lurrazpiaren eta gainerako lursail publikoen erabilera pribatiboa edo probetxamendu berezia</i>	€ 2024	€ 2025
5. Lokal edo establezimendu barrutik zuzenean bide publikora egiten den edozein artikuluren salmentarekin egindako lurzoru aprobetxamendua, bide publikoa negozioaren zati osagarri bezala erabiliz, m ² edo zatikia hileko edo zatikiko	6,60	6,75
6. Kutxazain automatikoa, bakoitzeko eta urteko	407,80	418
7. Bide publikoa okupatzeagatik garabi, obren igogailu, obren modulo, enbor edo antzekoekin, m ² edo zatikia eguneko	0,29	0,3
8. Aurrekoetan ikusi ez diren kasuetan, urteko eta metro karratuko.		
Industriagunean	14,00	14,35
Industriagunea ez den lurzoria	17,00	17,45
Igogailuak	73,65	75,5
9. Hilerria.		
Herentzia izaerako panteoi transmisioak, ezkontideen eta guraso eta seme-alaben artean	144,70	148,3
Gainerako transmisioak	1.327,00	1360,2
10. Kioskoak eta kabinak.		
10.1. ONCEren kabinak eta argazkiak ateratzekoak. Bakoitzeko eta urteko	571,85	586,15
10.2. Prentsa kioskoak. Bakoitzak hileko	98,20	100,65
11. Belena patioan bizikleta bakoitzeko urtean	45,45	46,6

2.2.7 Ferialekua, Zerkausi eta Zezen Plaza

<i>Ferialekua, Zerkausi eta Zezen Plaza</i>	€ 2024	€ 2025
Egun bateko erabilera	638,15	654,1
Bigarren erabilera eguna % 75	479,05	491,05
Hirugarren erabilera eguna % 50	319,40	327,4
Laugarren erabilera eguna % 25	159,60	163,6
Laugarren erabilera egunetik gora, eguneko	113,10	115,95
Karga-deskarga eta muntaketarako erabilitako eguna	56,30	57,7
Stand-en akura, bakoitzeko	11,40	11,7
Gastua.		
8.1. Argiak, orduko	16,30	16,7
8.2. Berokuntza, orduko	32,60	33,4
9. Zezen plaza, eguneko	105,60	---

2.2.8 Postuak herriko jaietan eta ferietan

<i>Postuak herriko jaietan eta ferietan</i>	€ 2024	€ 2025
Taberna, foodtruck, kafetegi eta antzerakoak (m ² edo zatikia, eguneko)	10,05	10,30
Txurrotegi eta txokolategiak eta ore frijituko mahaiak (m ² edo zatikia, eguneko)	6,90	7,05
Pastelak, taloak, gozokiak, fruta sikuak, patata frijituak, bisuteria, jostailuak, liburuak, etab. Saltzeko txosnak (m ² edo zatikia, eguneko)	6,90	7,05
Jaietako edonolako artikulua saltzeko saltokiak (m ² edo zatikia, eguneko)	21,60	22,15
Tiro txosnak eta antzeko jokoak (m ² edo zatikia, eguneko)	4,05	4,15
Tonbolak, zozketak, salmenta arinak eta antzekoak (m ² edo zatikia, eguneko)	10,05	10,30
Zabuak, tresna hegalariak, kalesitak zaldiko-maldikoak, bunperrak eta, oro har, mugitzen diren era guztietako aparailuak (m ² edo zatikia, eguneko)	5,45	5,60
Auto-txoke pistak (m ² edo zatikia, eguneko)	2,80	2,85
Ikuskizun eta antzerkiak (m ² edo zatikia, eguneko)	2,80	2,85
Zirkoak.		
Kultur Departamentuaren adostasunarekin	312,00	319,80
Kultur Departamentuaren adostasunik gabe	757,35	776,30
Iñauteriak eta San Juan jaietan, udalaren adostasunarekin (m ² edo zatikia, eguneko)	0,41	0,42
Auzoko jaietan, udalaren adostasunarekin (m ² edo zatikia, eguneko)	1,38	1,41
Gabonetako karrusela	163,70	167,80

2.2.9 Kultur etxea eta udaleko beste zenbait higiezin

<i>Kultur etxe eta udaleko beste zenbait higiezin</i>	€ 2024	€ 2025
1. Erabilera orokorra.		
1.1. Kultur Etxeko Areto Nagusiaren erabilera, eguneko	163,45	167,55
1.2. Kultur Etxeko 1, 2 eta 3 bilera aretoak eta Topagune aretoa, eguneko	100,50	103,00
1.3. Kultur Etxeko 4 eta 5 bilera aretoak	80,35	82,35
1.4. Auditorioa, eguneko	163,45	167,55
2. Leidor Aretoa.		
2.1. Egun erdia (geh. 5 ordu)	616,15	631,55
2.2. Egun osoa (geh. 10 ordu)	1.232,95	1.263,75
3. Oriaburuko areto nagusia, eguneko	163,45	167,55
4. Coworking, hileko (lehen 3 urteak), pertsonako eta laneko modulu gune bakoitzeko	51,25	52,55

2.2.10 Ibilgailuen aparkaldi mugatua bide publikoan

<i>Ibilgailuen aparkaldi mugatua bide publikoan</i>	€ 2024	€ 2025
30 minutu baino gutxiago, minutuko	0,01	0,01
Gune txuria. Gehienez 20 minutu	0,20	0,2
Alde marroia.		
30 minutu	0,40	0,4
Ordu bat	1,00	1,05
Ordu eta erdi	1,55	1,6
Bi ordu	2,15	2,2
Salaketa baliogabetzea	12,55	12,85
Alde urdina.		
30 minutu	0,40	0,4
Ordu bat	1,00	1,05
Ordu eta erdi	1,55	1,6
Bi ordu	2,15	2,2
Hiru ordu	4,95	5,05
Lau ordu	8,70	8,9
Salaketa baliogabetzea	12,55	12,85
Alde berdea.		
Goiza	2,10	2,15
Arratsaldea	2,10	2,15
Egun osoa	4,45	4,55
Salaketa baliogabetzea	12,55	12,85
Bertakoentzako aparkalekua.		
Bertako en txartela/urte	45,45	46,60
Parkimetroak.		

Banakako parkimetroa, alokairuan	225,50	231,15
Karga-txartela	12,55	12,85
Txartelaren karga	34,15	35,00
Autokarabanentzako gunean aparkatzea eguneko	1,20	1,25

2.2.12 Baratzak

<i>lurramendiko baratzen erabilpena</i>	2024	2025
1. Elbarriak	68,30	70,00
2. Langabetuak	68,30	70,00
3. Beste erabiltzaileak	136,45	139,85
4. Elkarteak	136,45	139,85

2.2.15 Langile funtzionario edo pertsonal laborala hautatzeko prozesuetan hartzeko tasa.

	2024	2025
A1	20 €	20,50 €
A2	15 €	15,50 €
C1	10 €	10,25 €
C2	10 €	10,25 €

BIGARRENA.- IBIaren (VADO) kasuan, kobratuko den gutxienerako metro linealak 5 izango direla zehaztea proposatzen da

HIRUGARRENA.- Aldaketa hauek 30 laneguneko epean jendaurrean jartzea. Horretarako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta, era berean, udaletxeko iragarki taulan jarriko da interesdunek erreklamazioak jar ditzaten. Erreklamazio edo alegaziorik ez bada aurkezten epe barruan, aipatutako aldaketa behin betiko onartua kontsideratuko da.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko Botoak: Angel Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Goiuri Ezeiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Josune Sanz Vidal, Aitor Agirresarobe Murgi, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles Iturbe Pasaban, Biotxa Agirre Ugalde, Leire Zubeldia Rezola, Javier Zabala Sastre, Ainhoa Dominguez Landa, Patxi Amantegi Zubiria eta Iker Uson Gonzalez.

Beraz, Udalbatzak, aho batez, onartu du herri-jabari publikoaren erabilera pribatiboari eta haren aprobetxamendu bereziari dagozkien tasen ordenantza fiskalarena aldaketa.

12. ONARTZEA ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA JARDUERAK EGITEARI DAGOZKION TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZAREN ALDAKETA.

Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorraren 2024ko urriaren 23ko irizpena

IKUSIRIK

LEHENA.- 2023ko urriaren 26an, Ohiko Osoko Bilkurak Tolosako udaleko Zerbitzua publikoak eskaini eta jarduerak burutzeagatiko tasen ordenantzaren aldaketak onartu zituela.

BIGARRENA.- 2025. urteko urtarrilaren 1etik aurrerako ondoriotarako eta Gipuzkoako Hazienda Lokalak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 zenbakidun Foru Araua erabilia aipatutako ordenantza aldatzeko proposamena jaso dela:

Lehena.- %2,5eko igoera orokorra aplikatzea.

Bigarrena.- 2.1.3 eranskina: Jarduera edo zabalkuntzarik gabeko titulartasun aldaketan ordaindu beharreko tasa %10a izatea.

Hirugarrena.- 2.1.4 eranskina: Autotaxien kasuan, lizentziak eman eta erregistratzeko tasa, 2.500 euroetara jeistea proposatzen da.

Laugarrena.- 2.1.6 eranskina: Hondakinen tasa: 7/2022 Legea, apirilaren 8koa, ekonomia zirkular baterako hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzkoak, bere 11.3 artikuluan dio udalak ezarritako tasa espezifikoa, berezia eta ez defizitarioa izan behar duela. Tasa edo prestazio horrek aukera emango du sorreraren arabera ordainketa-sistemak ezartzeko, eta hondakinak bildu, garraiatu eta tratatzeko eragiketen kostu erreala islatuko du, zuzena edo zeharkakoa, eragiketa horien zaintza, zaborteziak itxi ondorengo mantentze-lanak eta zaintza, kontzientziazio- eta komunikazio-kanpainak eta ekoizlearen erantzukizun zabaldua aplikatuz, materialen salmentatik eta energetik eratorritako diru-sarrerak barne.

Hori dela eta, zerbitzuaren koste erreala kalkulatu da. Zerbitzua ez defizitarioa izateko, tasa %35 igotzea proposatzen da orokorrean, baina jarduera ekonomikoa duten 1. eta 2. multzoko lokalei (bulegoak, akademiak, arropa dendak...) organiko eta errefuxa gutxiago sortzen dutenez, %30 igotzea proposatzen da.

KONTUAN HARTURIK

7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 22.2. d) artikuluan xedatutakoaren arabera, honako organo honi dagokio arlo honetako onspena ematea: Udalbatza.

Tolosako Udaleko Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorrak, 2024ko urriaren 23an egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

Aldeko bozkak: Jose M^a Villanueva Telleria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Estitxu Kortejarena Ugarte, Josune Sanz Vidal eta Kristina Pelaez Errazkin.

Abstentzioa: Biotza Agirre Ugalde, Ainhoa Dominguez Landa.

Beraz, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

LEHENA.- %2,5eko igoera orokorra aplikatzea.

BIGARRENA.- 2.1.3 eranskina: Jarduera edo zabalkuntzarik gabeko titulartasun aldaketan ordaindu beharreko tasa %10a izatea.

HIRUGARRENA.- 2.1.4 eranskina: Autotaxien kasuan, lizentziak eman eta erregistratzeko tasa, 2.500 euroetara jeistea.

LAUGARRENA.- 2.1.6 eranskina: Hondakinen tasa: igoera orokorra %35 izatea, eta jarduera ekonomikoa duten 1. eta 2. multzoko lokalei, aldiz, %30ko igoera.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko Botoak: Angel Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Goiuri Ezeiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Josune Sanz Vidal, Aitor Agirresarobe Murgi, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi eta Garbiñe Marzol Ormazabal

Abstentzio Botoak: Xarles Iturbe Pasaban, Biotxa Agirre Ugalde, Leire Zubeldia Rezola, Javier Zabala Sastre, Ainhoa Dominguez Landa, Patxi Amantegi Zubiria eta Iker Uson Gonzalez.

Beraz, Udalbatzak, gehiengoz, onartu du zerbitzu publikoak eskaini eta jarduerak egiteari dagozkion tasak arautzen dituen ordenantzaren aldaketa.

13.ONARTZEA ORDENANTZA OROKORRAREN ALDAKETA, ZERGAK ETA UDAL ZUZENBIDE PUBLIKOAREN BESTELAKO SARRERAK KUDEATZEKO ETA BILTZEKO ORDENANTZARENA, ALEGIA.

Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorraren 2024ko urriaren 23ko irizpena

IKUSIRIK

LEHENA.- 2024ko uztailaren 24an, Ohiko Osoko Bilkurak Tolosako udaleko Ordenantza Orokorra, zergak eta udal zuzenbide publikoaren bestelako sarrerak kudeatzeko eta biltzeko ordenantzaren aldaketak onartu zituela.

BIGARRENA.- 2025. urteko urtarrilaren 1etik aurrerako ondoriotarako eta Gipuzkoako Hazienda Lokalak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 zenbakidun Foru Araua erabilia aipatutako ordenantza aldatzeko proposamena jaso da:

Ordainketa zatikatuko sistema berezian, Hiri eta Landa izaerako Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan (10.2.2.b. artikulua), eskaera egiteko epea maiatzaren 15etik ekainaren 15era da da gaur egun. Epe hori ekainaren 1etik ekainaren 15era izatea proposatzen da.

KONTUAN HARTURIK

7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 22.2. d) artikuluan xedatutakoaren arabera, honako organo honi dagokio arlo honetako onespina ematea: Udalbatza.

Tolosako Udaleko Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorrek, 2024ko urriaren 23an egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

Aldeko bozkak: Garbiñe Marzol Ormazabal, Estitxu Kortejarena Ugarte, Josune Sanz Vidal, Kristina Pelaez Errazkin, Jose M^a Villanueva Telleria, Biotza Agirre Ugalde, Ainhoa Dominguez Landa.

Beraz, aho batez, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

LEHENA.- Ordainketa zatikatuko sistema berezian, Hiri eta Landa izaerako Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan (10.2.2.b. artikulua), eskaera egiteko epea ekainaren 1etik ekainaren 15era izatea.

BIGARRENA.- Aldaketa hauek 30 laneguneko epean jendaurrean jartzea. Horretarako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta, era berean, udaletxeko iragarki taulan jarriko da interesdunek erreklamazioak jar ditzaten. Erreklamazio edo alegaziorik ez bada aurkezten epe barruan, aipatutako aldaketa behin betiko onartua kontsideratuko da.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko Botoak: Angel Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Goiuri Ezeiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Josune Sanz Vidal, Aitor Agirresarobe Murgi, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles Iturbe Pasaban, Biotxa Agirre Ugalde, Leire Zubeldia Rezola, Javier Zabala Sastre, Ainhoa Dominguez Landa, Patxi Amantegi Zubiria eta Iker Uson Gonzalez.

Beraz, Udalbatzak, aho batez, onartu du ordenantza orokorraren aldaketa, zergak eta udal zuzenbide publikoaren bestelako sarrerak kudeatzeko eta biltzeko ordenantzarena, alegia.

14. ONARTZEA HIRI-IZAERAKO LURREN BALIO-GEHIKUNTZAREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALAREN ALDAKETA.

Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorraren 2024ko urriaren 23ko irizpena

IKUSIRIK

LEHENA.- 2023ko urriaren 26an, Ohiko Osoko Bilkurak Tolosako udaleko Hiri izaerako Lurren balio gehikuntzaren gaineko Zergaren ordenantzaren aldaketak onartu zituela.

BIGARRENA.- 2025. urteko urtarrilaren 1etik aurrerako ondoriotarako eta Gipuzkoako Hazienda Lokalak arautzen dituen uztailen 5eko 11/1989 zenbakidun Foru Araua erabilia aipatutako ordenantza aldatzeko proposamena jaso dela:

Lehena.- Karga tasa %2,5 igotzea.

	2024	2025
II TARIFA Karga tasa – Tipo de gravamen	10,56%	10,82 %

KONTUAN HARTURIK

7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 22.2. d) artikuluan xedatutakoaren arabera, honako organo honi dagokio arlo honetako onespena ematea: Udalbatza.

Tolosako Udaleko Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorrak, 2024ko urriaren 23an egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

Aldeko bozkak: Garbiñe Marzol Ormazabal, Estitxu Kortejarena Ugarte, Josune Sanz Vidal, Kristina Pelaez Errazkin, Jose M^a Villanueva Telleria, Biotza Agirre Ugalde, Ainhoa Dominguez Landa.

Beraz, aho batez, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

LEHENA.- Hiri izaerako Lurren balio gehikuntzaren gaineko Zergaren karga tasa %2,5 igotzea: %10,56tik %10,82ra.

BIGARRENA.- Aldaketa hauek 30 laneguneko epean jendaurrean jartzea. Horretarako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta, era berean, udaletxeko iragarki taulan jarriko da interesdunek erreklamazioak jar ditzaten. Erreklamazio edo alegaziorik ez bada aurkezten epe barruan, aipatutako aldaketa behin betiko onartua kontsideratuko da.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko Botoak: Angel Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Goiuri Ezeiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Josune Sanz Vidal, Aitor Agirresarobe Murgi, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles Iturbe Pasaban, Biotxa Agirre Ugalde, Leire Zubeldia Rezola, Javier Zabala Sastre, Ainhoa Dominguez Landa, Patxi Amantegi Zubiria eta Iker Uson Gonzalez.

Beraz, Udalbatzak, aho batez, onartu du hiri-izaerako lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskalaren aldaketa.

15. ONARTZEA ONDASUN HIGIEZINEI BURUZKO ZERGA ERREGULATZEN DUEN ORDENANTZA FISKALAREN ALDAKETA.

Gai honetan, bi enmendakin aurkeztu dira:

Lehenengo enmendakina EH Bildu Udal taldeak aurkeztutakoa:

TOLOSAKO UDALAREN ONDASUN HIGIEZINEI BURUZKO ZERGA ERREGULATZEN DUEN ORDENANTZA FISKALAREN ALDAKETARI EMENDAKIN PROPOSAMENA

ZIOA

Tolosako udalak 2024ko urriaren 31an onartuko den Ondasun Higieziinei buruzko zerga erregulatzen duen Ordenantza Fiskalaren eguneraketa proposamenari aldaketa hauek proposatzen dira, Tolosako Udalbatza osatzen dugun alderdi guztiok adostuta:

Batetik, 15. artikulua izenburua aldatzea honela utziz:

15. artikulua.- Errekargua aplikatzeari salbuespenak.

Bestetik, artikulua edukia 2 puntutan banatzea, gaur egungo testua lehendabiziko puntuan sartuz eta bigarren puntu berri bat sartu ondorengo testuarekin.

2.- Euskadiko Enpresen eta Turismo Jardueren Erregistroan dauden erabilera turistikoko etxebizitzetara ez zaizkie aplikatuko artikulua honen salbuespenak.

Segidan, Udalbatza Osoko kideek aurkeztutako enmendakina bozkatu dute. Bozketaren emaitza honakoa izan da:

Aldeko Botoak: Angel Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Goiuri Ezeiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Josune Sanz Vidal, Aitor Agirresarobe Murgi, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi eta Garbiñe Marzol Ormazabal.

Abstentzioak: Xarles Iturbe Pasaban, Biotxa Agirre Ugalde, Leire Zubeldia Rezola, Javier Zabala Sastre, Ainhoa Dominguez Landa, Patxi Amantegi Zubiria eta Iker Uson Gonzalez.

Beraz, enmendakina gehiengoz onartu da.

Bigarren enmendakina, EH Bildu eta EAJ-PNV Udal taldeak aurkeztutakoa:

TOLOSAKO UDALAREN ONDASUN HIGIEZINEI BURUZKO ZERGA ERREGULATZEN DUEN ORDENANTZA FISKALAREN ALDAKETARI EMENDAKIN PROPOSAMENA

ZIOA

Tolosako udalak 2024ko urriaren 31an onartuko den Ondasun Higieziniei buruzko zerga erregulatzeko duen Ordenantza Fiskalaren eguneraketa proposamenari aldaketa hau proposatzen da, Tolosako EAJ-PNV Udal Taldeak eta EH Bilduko Taldeak adostua:

8. artikuluan honela jasotzen den puntua:

8. artikulua.- Hobaria izango dute:

1. []

2. []

3. % 50eko hobaria zergaren kuota osoan, BIZIGUNE Programan sartzen diren etxebizitza guztientzat, Programa horretan sartuta egoten den bitartean.

Honela jartzea:

8. artikulua.- Hobaria izango dute:

1. []

2. []

3. % 50eko hobaria zergaren kuota osoan, BIZIGUNE Programan eta **ASAP (Alokairu Segurua Arrazoizko Prezioa) Programan** sartzen diren etxebizitza guztientzat, Programa horretan sartuta egoten den bitartean.

Segidan, Udalbatza Osoko kideek aurkeztutako enmendakina bozkatu dute. Bozketaren emaitza honakoa izan da:

Aldeko Botoak: Angel Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Goiuri Ezeiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Josune Sanz Vidal, Aitor Agirresarobe Murgi, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles Iturbe Pasaban, Biotxa Agirre Ugalde, Leire Zubeldia Rezola, Javier Zabala Sastre, Ainhoa Dominguez Landa, Patxi Amantegi Zubiria eta Iker Uson Gonzalez.

Beraz, enmendakina aho batez onartu da.

Ondoren, Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorraren 2024ko urriaren 23ko irizpen zuzenduta aurkeztu eta bozkatu da:

IKUSIRIK

LEHENA.- 2023ko urriaren 26an, Ohiko Osoko Bilkurak Tolosako udaleko Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ordenantzaren aldaketak onartu zituela.

BIGARRENA.- 2025. urteko urtarrilaren 1etik aurrerako ondoriotarako eta Gipuzkoako Hazienda Lokalak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 zenbakidun Foru Araua erabilita aipatutako ordenantza aldatzeko proposamena jaso dela:

Lehena.- Ondorengo hobaria onartzea proposatzen da:

«Zergaren kuota osoari dagokion % 50eko hobaria, eguzkitik datorren energia aprobetxatzeko sistema termikoak edo elektrikoak jartzen dituzten etxebizitza erabilerako eraikinetan. Dena dela, obra horiek borondatez egin beharko dira. Alegia, obra horiek ez dira indarrean dagoen araudiak inposatutakoak izango. Hobari hauek ezarri ahal izateko, instalazioetan, beroa sortu ahal izateko kolektoreak jarri beharko dira. Kolektore horiek Administrazio eskudunak homologatu beharko ditu. Subjektu pasiboek dagozkien eskabideak egin ostean emango da hobaria eta sistema instalatzen denetik hasita 5 urtetan aplikatuko da.

Hobari honen eskaerarekin ondorengo dokumentuak aurkeztu beharko dira:

- Obra amaierako likidazioa eta ziurtagiria.
- Eskatzaile bakoitzaren jabetzari dagokion inbertsioa.
- Instalatutako energia sistemaren homologazioa.”

Bigarrena.- Zerga tipoari dagokionez, hiru karga tasa daude:

1. Hiri lurreko Ondasun higiezienei:

Zoru industrial edo tertziarioan	0,6000 %
Gainerako hiri ondasunetarako	% 0,3263

2. Landa ondasun higiezienei:

Landa	% 1,0000
-------	----------

Zoru industrial edo tertziarioko karga tasa topean dago. Beraz, ezin da gehiago igo.

Bigarren karga tasari dagokionez, dirubilketa %2,5 igotzea proposatzen da. Gipuzkoako Foru Aldunditik esan digute balore katastralak %2 igoko direla. Kontuan hartuz %1eko depreziazioa egoten dela, batzaz beste, karga tasa %1,5 igotzea proposatzen da.

Hori dela eta, honela geratuko dira hiru karga tasak:

1. Hiri lurreko Ondasun higiezienei:

Zoru industrial edo tertzioarioan	‰-0,6000
Gainerako hiri ondasunetarako	% 0,3312

2. Landa ondasun higiezinak:

Landa	% 1,0000
-------	----------

Bigarrena.- 15. artikulua izenburua aldatzea honela utziz:

15. artikulua.- Errekargua aplikatzeari salbuespenak.

Bestetik, artikulua edukia 2 puntutan banatzea, gaur egungo testua lehendabiziko puntuan sartuz eta bigarren puntu berri bat sartu ondorengo testuarekin.

2.- Euskadiko Enpresen eta Turismo Jardueren Erregistroan dauden erabilera turistikoko etxebizitzak ez zaizkie aplikatuko artikulua honen salbuespenak.

Hirugarrena.- 8. Artikulua honela jartzea:

Hobaria izango dute:

1. []
2. []

3. % 50eko hobaria zergaren kuota osoan, BIZIGUNE Programan eta **ASAP (Alokairu Segurua Arrazoizko Prezioa) Programan** sartzen diren etxebizitzak guztientzat, Programa horretan sartuta egoten den bitartean.

KONTUAN HARTURIK

7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 22.2. d) artikuluan xedatutakoaren arabera, honako organo honi dagokio arlo honetako onespena ematea: Udalbatza.

Tolosako Udaleko Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorrak, 2024ko urriaren 23an egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

Aldeko bozkak: Garbiñe Marzol Ormazabal, Estitxu Kortejarena Ugarte, Josune Sanz Vidal eta Kristina Pelaez Errazkin.

Abstentzioa: Jose M^a Villanueva Telleria, Biotza Agirre Ugalde, Ainhoa Dominguez Landa

Beraz, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

LEHENA.- Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ondorengo hobaria onartzea.

«Zergaren kuota osoari dagokion % 50eko hobaria, eguzkitik datorren energia aprobetxatzeko sistema termikoak edo elektrikoak jartzen dituzten etxebizitza erabilerako eraikinetan. Dena dela, obra horiek borondatez egin beharko dira. Alegia, obra horiek ez dira indarrean dagoen araudiak inposatutakoak izango. Hobari hauek ezarri ahal izateko, instalazioetan, beroa sortu ahal izateko kolektoreak jarri beharko dira. Kolektore horiek Administrazio eskudunak homologatu beharko ditu. Subjektu pasiboek dagozkien eskabideak egin ostean emango da hobaria eta sistema instalatzen denetik hasita 5 urtetan aplikatuko da.

Hobari honen eskaerarekin ondorengo dokumentuak aurkeztu beharko dira:

- Obra amaierako likidazioa eta ziurtagiria.
- Eskatzaile bakoitzaren jabetzari dagokion inbertsioa.
- Instalaturako energia sistemaren homologazioa.”

BIGARRENA.- Gainerako hiri ondasunetarako karga tasa % 0,3312-ra igotzea.

HIRUGARRENA.- Aldaketa hauek 30 laneguneko epean jendaurrean jartzea. Horretarako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta, era berean, udaletxeko iragarki taulan jarriko da interesdunek erreklamazioak jar ditzaten. Erreklamazio edo alegaziorik ez bada aurkezten epe barruan, aipaturako aldaketa behin betiko onartua kontsideratuko da.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko Botoak: Angel Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Goiuri Ezeiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Josune Sanz Vidal, Aitor Agirresarobe Murgi, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles Iturbe Pasaban, Biotxa Agirre Ugalde, Leire Zubeldia Rezola, Javier Zabala Sastre, Ainhoa Dominguez Landa, Patxi Amantegi Zubiria eta Iker Uson Gonzalez.

Beraz, Udalbatzak, aho batez, onartu du ondasun higiezinari buruzko zerga erregulatzen duen ordenantza fiskalaren aldaketa.

16. ONARTZEA TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALAREN ALDAKETA.

Gai honetan, honako enmendakina aurkeztu dute EH Bildu eta EAJ-PNV taldeak:

VI- KAPITULUA:Hobariak

6. artikuluan honela jasotzen den puntua:

6. artikulua.-

1. []
2. []
3. % 60 hobaria ezarriko zaie motor elektrikoa duten ibilgailuei.
4. Zerga kuotan %30eko hobaria izango dute ibilgailu hibridoek.

honela jartzea:

1. []
2. []
3. % 60 hobaria ezarriko zaie motor elektrikoa duten ibilgailuei, **5 urteko epemugarekin, matrikulatzen diren urtearen ondorengotik hasita.**
4. []
5. Zerga kuotan %30eko hobaria izango dute ibilgailu hibridoek, **5 urteko epemugarekin, matrikulatzen diren urtearen ondorengotik hasita.**

Segidan, Udalbatza osoko kideek aurkeztutako enmendakin bozkatu dute. Bozketaren emaitza honakoa izan da:

Bozketa:

Aldeko Botoak: Angel Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Goiuri Ezeiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Josune Sanz Vidal, Aitor Agirresarobe Murgi, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles Iturbe Pasaban, Biotxa Agirre Ugalde, Leire Zubeldia Rezola, Javier Zabala Sastre, Ainhoa Dominguez Landa, Patxi Amantegi Zubiria eta Iker Uson Gonzalez.

Ondoren, Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorraren 2024ko urriaren 23ko irizpen zuzenduta aztertu eta bozkatu da:

IKUSIRIK

LEHENA.- 2023ko urriaren 26an, Ohiko Osoko Bilkurak Tolosako udaleko Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga arautzen duen ordenantzaren aldaketak onartu zituela.

BIGARRENA.- 2025. urteko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioetarako eta Gipuzkoako Hazienda Lokalak arautzen dituen uztailen 5eko 11/1989 zenbakidun Foru Araua erabilita aipatutako ordenantza aldatzeko proposamena jaso da:

Lehena.- Desgaitasun maila aitortu, deklaratu eta kalifikatzeko prozeduraren araudian urriaren 18ko 888/2022 Errege Dekretuaren bidez sartu diren aldaketek ere hainbat zerga figurari eragiten die. Dekretu horrek abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretua indargabetu zuen, ordura arte gai hori arautzen zuena. Arau substantiboa aldatu izanak berekin ekarri du sakon erreformatzea desgaitasun maila aitortu, deklaratu eta kalifikatzeko prozedura eta horrek eskatzen du Trakzio Mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren araudia ere aldatzea, desgaitasunagatik salbuesteari dagokionez.

Gaur egun, 2. artikulua dio:

“2. *artikulua.* - 1. Ondoko hauek daude zergatik salbuetsita:

...

e) Mugikortasun murriztua dutenentzat egokitutako ibilgailuak, abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuak, Ibilgailuen Erregelamendu Orokorra onartzen duenak, II. Eranskinaren A letran aipatuak, pertsona desgaituen izenean matrikulatuta daudenean.

Era berean, salbuetsita daude 14 zaldi fiskaletik beherako ibilgailuak, baldin eta desgaituen izenean matrikulatuta egonik beraiek ez beste inork erabiltzeko badira. Salbuespen hau zirkunstantzia horiek betetzen diren artean aplikatuko da, pertsona desgaituek gidatutako ibilgailuak izan nahiz horiek garraiatzeko ibilgailuak izan.

Aurreko bi paragrafoetan aipatutako salbuespenak ibilgailu batengatik bakarrik izango zaizkie aplikagarriak horien onuradun diren subjektu pasiboiei.

Letra honetan xedatutakoaren ondorioetarako, honako hauek hartuko dira pertsona desgaitutzat:

a') Desgaitasun maila % 33koa edo handiagoa eta % 65ekoa baino txikiagoa duten pertsonak, mugikortasun murriztuko egoeran badaude. Mugikortasuna murriztuta dutela ulertuko da abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuak, desgaitasun maila aitortu, ezarri eta kalifikatzeko prozedurari buruzkoak, III. eranskinean jasotzen duen baremoaren A, B edo C letretako egoeretan sartuta daudenean edo baremo horren D, E, F, G edo H letretan 7 puntu edo gehiago lortzen dituztenean.

b') Desgaitasun maila % 65ekoa edo handiagoa dutenak.

Aurreko a) eta b') letretan aipatutako pertsonak mugikortasun murriztuko A egoeran badaude 1.971/1999 Errege Dekretuak 3. eranskinean jasotzen duen baremoaren arabera, 14 zaldi fiskaleko muga ez zaie aplikatuko, baldin eta ibilgailua gupil aulkia eramateko egokituta badago.

Salbuetsita daude, baita ere, guraso-ahal, tutoretza edo kuradoretza dela-eta ardurapean minusbaliotasun maila 100eko 65ekoa edo handiagoa duen pertsona bat duten pertsonen jabetzako ibilgailuak. Ibilgailu bat baino gehiago badute jabetzan, ibilgailu bakarrak izango du salbuespena.”

Maiatzaren 10eko 1/2024 Foru Arauan oinarrituz, aipatutako artikulua honela geratzea

proposatzen da:

“2. *artikulua*.- 1. Ondoko hauek daude zergatik salbuetsita:

...

e) Mugikortasun murriztua dutenentzat egokitutako ibilgailuak, abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Ibilgailuen Erregelamendu Orokorren II. eranaskineko A letran aipatuak, pertsona desgaituen izenean matrikulatuta daudenean.

Era berean, salbuetsita daude 14 zaldi fiskaletik beherako ibilgailuak, baldin eta desgaituen izenean matrikulatuta egonik beraiek ez beste inork erabiltzeko badira. Salbuespen hau zirkunstantzia horiek betetzen diren artean aplikatuko da, pertsona desgaituek gidatutako ibilgailuak izan nahiz horiek garraiatzeko ibilgailuak izan.

Aurreko bi paragrafoetan aipatutako salbuespenak ibilgailu batengatik bakarrik izango zaizkie aplikagarriak horien onuradun diren subjektu pasiboei.

Letra honetan xedatutakoaren ondorioetarako, honako hauek hartuko dira pertsona desgaitutzat:

a´) 100eko 33ko edo hortik gorako eta 100eko 65etik beherako desgaitasun maila aitortua duten pertsonak, mugikortasun murriztuko gabezia egoeran badaude. Mugikortasuna murriztuta dutela joko da Mugikortasun Jardueren Mugen azpibaremoan, desgaitasun maila aitortu, ezarri eta kalifikatzeko prozedura ezartzen duen urriaren 18ko 888/2022 Errege Dekretuaren bidez onetsian, 100eko 25eko edo hortik gorako mugikortasun falta ematen zaienean.

b´) Desgaitasun maila 100eko 65ekoa edo handiagoa duten pertsonak.

Aurreko a) eta b´) letretan aipatutako pertsonak mugikortasun murriztuko egoeran badaude eta Mugikortasun Jarduerak Mugatzeko azpibaremoa aplikatuta (desgaitasuna maila aitortu, deklaratu eta kalifikatzeko prozedura ezartzen duen urriaren 18ko 888/2022 Errege Dekretuaren bidez onetsitako azpibaremoa), ondorioztatzen bada haien mugikortasuna 100eko 75ean edo hortik gorako portzentajea dagoela mugatua, ez zaie aplikatuko 14 zaldi fiskaleko muga, betiere eta ibilgailua gupil aulkia eramateko egokituta badago.

Era berean, ibilgailuak zergatik salbuetsita geratuko dira haien titularrek frogatzen dutenean guraso ahalagatik, tutoretzagatik edo kuradoretzagatik beren kargura pertsonaren bat dutela eta haien desgaitasun maila 100eko 65ekoa edo handiagoa dela. Ibilgailu baten baino gehiagoren titularrak badira, bakar bati aplikatuko zaio salbuespena.”

Bigarrena.- Hobariei dagokienez, familia ugarien kasuan, ondorengoa jartzea proposatzen da:

“Tramiteak errazteko, aurreko urtean hobaria lortu dutenek ez dute eskaera egin beharko. Aurreko urtean hobaria ez bazitzaien eman edo ibilgailuz aldatu badira, eskaera berriz egin beharko dute.”

Hirugarrena.- Igoera orokorra %2,5koa da.

KONTUAN HARTURIK

7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 22.2. d) artikuluan xedatutakoaren arabera, honako organo honi dagokio arlo honetako onespena ematea: Udalbatza.

Tolosako Udaleko Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorrek, 2024ko urriaren 23an egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau azertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

Aldeko bozkak: Garbiñe Marzol Ormazabal, Estitxu Kortejarena Ugarte, Josune Sanz Vidal eta Kristina Pelaez Errazkin.

Abstentzioa: Jose M^a Villanueva Telleria, Biotza Agirre Ugalde, Ainhoa Dominguez Landa

Beraz, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

LEHENA.- 2.1. artikulua aldatzea, desgaitasunari buruzko Errege Dekretua aldatu delako:

“2. artikulua.- 1. Ondoko hauek daude zergatik salbuetsita:

...

e) Mugikortasun murriztua dutenentzat egokitutako ibilgailuak, abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Ibilgailuen Erregelamendu Orokorren II. eranaskineko A letran aipatuak, pertsona desgaituen izenean matrikulatuta daudenean.

Era berean, salbuetsita daude 14 zaldi fiskaletik beherako ibilgailuak, baldin eta desgaituen izenean matrikulatuta egonik beraiek ez beste inork erabiltzeko badira. Salbuespen hau zirkunstantzia horiek betetzen diren artean aplikatuko da, pertsona desgaituek gidatutako ibilgailuak izan nahiz horiek garraiatzeko ibilgailuak izan.

Aurreko bi paragrafoetan aipatutako salbuespenak ibilgailu batengatik bakarrik izango zaizkie aplikagarriak horien onuradun diren subjektu pasiboiei.

Letra honetan xedatutakoaren ondorioetarako, honako hauek hartuko dira pertsona desgaitutzat:

a) 100eko 33ko edo hortik gorako eta 100eko 65etik beherako desgaitasun maila aitortua duten pertsonak, mugikortasun murriztuko gabezia egoeran badaude. Mugikortasuna murriztuta dutela joko da Mugikortasun Jardueren Mugen azpibaremoan, desgaitasun maila aitortu, ezarri eta kalifikatzeko prozedura ezartzen duen urriaren 18ko 888/2022 Errege Dekretuaren bidez onetsian, 100eko 25eko edo hortik gorako mugikortasun falta ematen zaienean.

b) Desgaitasun maila 100eko 65ekoa edo handiagoa duten pertsonak.

Aurreko a) eta b) letretan aipatutako pertsonak mugikortasun murriztuko egoeran badaude eta Mugikortasun Jarduerak Mugatzeko azpibaremoa aplikatuta (desgaitasuna maila aitortu, deklaratu eta kalifikatzeko prozedura ezartzen duen urriaren 18ko 888/2022 Errege

Dekretuaren bidez onetsitako azpibaremoa), ondorioztatzen bada haien mugikortasuna 100eko 75ean edo hortik gorako portzentajea dagoela mugatua, ez zaie aplikatuko 14 zaldi fiskaleko muga, betiere eta ibilgailua gurpil aulkia eramateko egokituta badago.

Era berean, ibilgailuak zergatik salbuetsita geratuko dira haien titularrek frogatzen dutenean guraso ahalagatik, tutoretzagatik edo kuradoretzagatik beren kargura pertsonaren bat dutela eta haien desgaitasun maila 100eko 65ekoa edo handiagoa dela. Ibilgailu baten baino gehiagoren titularrak badira, bakar bati aplikatuko zaio salbuespena.”

BIGARRENA.- Ondorengo artikulua onartzea:

“Tramiteak errazteko, aurreko urtean hobaria lortu dutenek ez dute eskaera egin beharko. Aurreko urtean hobaria ez bazitzaien eman edo ibilgailuz aldatu badira, eskaera berriz egin beharko dute.”

Horretaz gain, Ordenantzaren 6. artikulua 3. eta 5. atalei dagokion aldaketa egitea:

- 90/2014 Dekretua, ekainaren 3koa, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzeari buruzkoa
- 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, ingurumen-ebaluazioari buruzkoa
- 9/2018 Legea, abenduaren 5koa, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legea aldatzen duena
- 10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzkoa
- 211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duena, 2015eko otsailaren 16an zuzendua
- 1/2014 Legegintzako Dekretua, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbazteko Legearen testu bategina onartzen duena
- Klima Aldaketaren aurka Borrokatzeko Euskal Plana.

II. Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 102. artikulua araberaren berrikuspen gisa hartzen ez diren hirigintza-planen edukia berriz aztertzeko, aldatu egin beharko da.

Plan orokorrak berriaz identifikatu eta bereizi beharko ditu, bere eduki propioaren parte izan arren, plan horrek lege honetan esleituta duen lege-funtzioari ez dagozkion zehaztapenak, antolamendu xehatuko plangintzari dagozkionak baizik. Izapideak egiteko, plan orokorraren edukien elementuen aldaketak kontuan hartuko du bereizketa hori, eta dagokion antolamendu-figuraren berezko arauetara egokitu beharko dira, maila edo izaera kontuan hartuta, lege horren 58. artikuluan xedatutakoaren arabera eragindako zehaztapenak.

III. Hirigintza-planetako zehaztapenen aldaketa plan mota beraren bidez egin beharko da, eta zehaztapen horiek onartzeko jarraitutako prozedura berari jarraituz. Arau honetatik salbuetsita daude:

- Plan partzialek eta bereziek plan orokorrean jasotako antolamendu

xehatuan egin ditzaketen hobekuntzak eta aldaketak.

- Kasuan kasuko planak xehetasunezko azterketaren bidez berariaz egin ditzakeen hobekuntzak eta aldaketak.
- Plangintza orokorraren aldaketak, zeinetan aurrerapenaren izapidetzea hautazkoa izango baita.
- Sektorekatze-planak edo bateragarritze-planak plan orokorrean ezarritako egiturazko antolamenduan egiten duten aldaketa.

Plan orokorra egitea eta aldatzea udalari dagokio, eta zazpi mila biztanletik gorako udalerrietan, berriz, behin betiko onartzeko eskumena ere berari dagokio. Biztanle gutxiago dituzten udalerrietan, dagokion foru-aldundiak izango du behin betiko onspena emateko eskumena.

- IV. Aldaketa edozein unetan egin ahal izango da. Hala ere, plan orokorraren berezko zehaztapenei edo elementuei buruzkoak direnean, ezin izango da inolako aldaketarik izapidetu epeak amaitu ondoren edo planean bertan berrikuspenerako aurreikusitako kasuak edo inguruabarrak gertatu ondoren, betiere planaren lanak hastea erabaki ez bada.

Presako edo aparteko interes publikoko arrazoiak direla-eta, hirigintza-planak lurralde-antolamenduko tresnetara egokitu behar badira, lurralde historikoko foru-organoak, bere ekimenez edo Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioan lurralde-antolamenduaren arloko eskumena duen kontseilariak eskatuta, eta eragindako udalari entzunda, plan orokorra edo beste hirigintza-plan zehatz batzuk berrikustea erabaki ahal izango du, eta horretarako epe egokiak ezarriko dizkie udal-erakundeei, dagozkion neurriak hartzeko, aurrekontuei dagozkienak barne.

- V. Udalek aldaketak izan dituzten planen bertsio osoak eta eguneratuak onartu ahal izango dituzte. Bertsio hori nahitaez onartu beharko da plan orokorrak egiturazko antolamenduan bost aldaketa izan ondoren, legez baimendutako beste plan batzuen zehaztapenetatik eratorritakoak barne.

Hirigintza-antolamenduko planen bertsio osoa eta eguneratua onartu ondoren, ale bat utzi beharko da dagokion lurralde historikoko hirigintza-plangintzaren erregistroan.

- VI. Martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 6. artikulua arabera, lurralde-antolamenduko eta hirigintza-antolamenduko planek ingurumen-ebaluazio estrategikoa-ren prozedura bete beharko dute, ingurumen-ebaluazioaren arloan indarrean da-goen araudian aurreikusitakoaren arabera.

Hala, Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legearen II.B eranskinari buruzko 72.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatua egingo zaie II.A eranskineko plan eta programen aldaketa txikiei, II.G eranskineko aldaketa txikien definizioaren arabera.

- VII. Plangintzaren aldaketak martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuan aurreikusitako prozedura berari jarraituko dio, hura onartzeko, ingurumen-ebaluazio estrategiko arrunta edo sinplifikatua barne, dagokionaren arabera, ingurumen-ebaluazioaren araudiaren arabera (10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena).

Dokumentazio bera jendaurrean jarri beharko da, jendaurrean jartzeko gutxieneko dokumentazio gisa. Gainera, egindako aldaketa justifikatzeko memoria bat eta eragindako araudiko artikuluen testu osoa jasoko ditu, aldatutako artikuluen zatiak nabarmenduta.

Aurreko paragrafoan xedatutakoari kalterik egin gabe, plangintza orokorraren aldaketetan, aukerakoa izango da aurrerapena egitea.

VIII. Plan orokorraren aldaketak aurrerapena egin gabe onesteko, honako izapide hauek egin beharko dira:

a) Udalak ingurumen-ebaluazioari hasiera emateko eskabidea eta ingurumen-dokumentu estrategikoa idatzi, eta ingurumen-organora bidaliko ditu, plan orokorraren aldaketarekin batera.

b) Ingurumen-organoak eraginpeko administrazio publikoen eta pertsona interesdunen kontsulten mende jarriko du espedientea, iritzia eman dezaten hilabeteko epean, eskaera egiten denetik hasita, ingurumen-ebaluazioari buruzko oinarrizko araudi sektorialean aurreikusitako baldintzetan.

c) Ingurumen-organoak ingurumen-txosten estrategikoa egingo du, bi hilabeteko epean, espediente osoa jasotzen duenetik hasita, eta, kontsulten emaitza kontuan hartuta, erabakiko du planaren aldaketak ingurumenean ondorio nabarmenak dituen edo ez.

1) Ondorio nabarmenik ez badu, aldaketa hasiera batean onetsiko da, txostenak berak ezartzen dituen baldintzetan, eta dagokion izapidearekin jarraitu ahal izango da.

2) Bestela, txostenak xedatuko du aldaketa ingurumen-ebaluazio estrategiko arruntaren mende jarri behar dela. Ingurumen-organoak ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua egingo du eta udalari jakinaraziko dio. Udal horrek dekretu honen 27. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako izapidetzearekin jarraitu beharko du.

IX. Ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 8. artikulua arabera, hirigintzaren antolamendua egin, izapidetu, onartu eta egikaritzekoan, ahal den laguntza eta erraztasun guztia eskaini behar da pertsona fisikoek eta juridikoek parte har dezaten parte hartzeko era guztien bidez; betiere, legean berariaz aurreikusita dauden pertsonen parte-hartzea bermatu beharko da.

Bestalde, arau beraren 108. artikulua eta martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 3. artikulua adierazten dutenez, egiturazko hirigintza-antolamenduaren edozein figura aldatzen hasteko akordioak edo ebazpenak parte hartzeko programa bat izan beharko du, eta programa horretan ezarriko dira herritarrek eta elkarteek parte hartzeko duten eskubidea ahalbidetzeko behar diren helburuak, estrategikoak eta mekanismoak.

Herritarrek parte hartzeko delako programa oso-osorik argitaratuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian edo dagokion lurralde historikoko aldizkarian; administrazio publiko sustatzailearen arabera; informazio-teknologia berrien bitartez hedatuko da, eta, parte hartzeko mekanismo hauek izango ditu, gutxienez:

a. Parte hartzeko gida bat, herritarrek parte hartzeko prozesuaren jarraibideak eta edukiak ez ezik, xehetasunak ere deskribatuko dituen; horretaz gain, parte hartzeko abiapuntu gisa erabiliko diren edukien laburpena bilduko da gida horretan.

b. Jendurreko bilkurak, non azalduko baitira ekimenaren edukia eta espediente izapidetzean aurkeztutako alternatiba posibleak.

c. Dibulgazio-materiala: legediak eskatutako dokumentuekin batera prestatu beharko da, dokumentu horiek hedatzen eta ulertzen laguntzeko.

X. Plan orokorrak behin betiko onartzeko eskumen propioa edo eskuordetua duten udalerrietan, nahitaez, Udal Plangintzako Aholku Batzorde bat egon beharko da, toki-organo aholku-emaile eta eztabaidatzaile gisa, hirigintza-planak eta horien

aldaketak formulatu, izapidetu eta onartzeko prozedurari dagokionez gizarte-ituntzeko eginkizunak betetzeko.

Kontseiluak udalerriko plangintza orokorra egiteko ardura duten administrazioek egiten edo ezartzen dituzten azterlan, programa, jarraibide eta jarduera-ildo guztiak aztertuko ditu, plangintza hori egiten laguntzeko, eta, nolana ere, plan orokorra teknikoki idazten hasi ondoren emango du horren berri. Kontseiluak hirigintza-antolamenduko beste edozein plan edo tresnari buruzko txostena eskatu, ezagutu eta eman ahal izango du.

- XI. Hiri Antolamenduko Plan Orokorra aldatzeko prozesu osoan, publizitate aktiboaren eskakizunak bete beharko dira, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21.4 artikuluan eta gardentasunaren arloan indarrean dagoen araudian xedatutakoaren arabera.

B) AZTERKETA JURIDIKOA.

Kontuan izanik Tolosako HAPOko «1. San Esteban» hirigintza esparruko aldaketa puntuala aurrerapenarekin izapidetzea erabaki dela, aintzat harturik hirigintza-plangintzaren prozedura zein ingurumen-prozedura, honako hau da espediente honetan jarraitu beharreko eta jada jarraitzen ari den prozedura:

HIRIGINTZA-PLANGINTZAREN PROZEDURA.	INGURUMEN-PROZEDURA.
2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, lurzoruari eta hirigintzari buruzkoa. 105/2008 Dekretua, ekainaren 3koa.	21/2013 Legea, abenduaren 9koa, ingurumen-ebaluazioari buruzkoa.
<p>1.- Udalak aurretiazko azterlanak egin, hirigintzako informazioa bildu eta hasierako diagnostikoak eta helburuak proposatu ahal izango ditu (2/2006 Legearen 86. artikulua). Dokumentua idaztea erabaki ondoren, organo eskudunei informazioa eskatuko zaie, eta bi hilabeteko epean emango da (Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 90.1 artikulua). Hasteko erabakiarekin batera, herritarrek parte hartzeko programa aurkeztuko da (Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 108. artikulua).</p> <p>2.- Aurrerapena egitea.</p> <p>3.- Aurrerapena jendaurrean jartzea, gutxienez 2 hilabetez. Iragarkia lurralde historikoko aldizkari ofizialean, tirada handieneko egunkari batean eta bitarteko elektronikoetan argitaratzea. Mugakide diren udalei eta, hala badagokio, Arabako Administrazio Batzarrei jakinaraztea, jakinaren gainean egon daitezen eta txostena egin dezaten. (Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 90.3 artikulua).</p>	<p>2.bis.- Aldi berean, udalak hasierako dokumentu estrategikoa eta IEE arrunta hasteko eskaera egingo ditu.</p> <p>3.bis.- Eusko Jaurlaritzako edo foru aldundiko ingurumen-organoari bidaliko zaio, 7.000 biztanletik gorako udalerrien kasuan. Ingurumen-organoak hilabeteko epean kontsulta egingo die eragindako administrazio publikoei eta pertsona interesdunei.</p> <p>4.- Ingurumen-organoak ingurumen-azterketa estrategikoen irismen-dokumentua egin eta</p>

<p>5.- Jendurrean jartzearen eta irismen-dokumentuaren emaitzak ikusita, Udalak PO hasierako onespenerako dokumentua idazteko irizpideak eta helburuak ezarriko ditu (2/2006 Legearen 90.4 artikulua).</p> <p>6.- Hasierako onespenerako dokumentu teknikoa egitea.</p> <p>7.- Udalak hasierako onespenera emango dio Plan Orokorriari.</p> <p>8.- Dokumentua jendurrean jarriko da, erabakia aldizkarian eta egunkarian argitaratzen denetik gutxienez 45 eguneko epean. Onspena sektoreko administrazioei eta administrazio-batzarrei jakinaraziko zaie.</p> <p>9.- Plan Orokorriaren behin-behineko onspena, dagozkion aldatetekin. Araban, erabakia igorriko die administrazio-batzarrei (2/2006 Legearen 90.6 artikulua).</p> <p>10.- Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordearen txostena (2/2006 Legearen 91.2 artikulua). Epea: 3 hilabete.</p> <p>11.- Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordearen txostena udalari bidaliko zaio.</p> <p>12.- 7.000 biztanletik beherako udalerrietan, espediente osoa udalak bidaliko dio foru-aldundiari, behin betiko onar dezan.</p>	<p>jakinaraziko du, hasteko eskaera jaso eta gehienez ere 3 hilabeteko epean, eta udalera bidaliko du kontsultei emandako erantzunekin batera (Ingurumen Ebaluazioari buruzko 21/13 Legearen 19. artikulua). Ingurumen-organoren eta udalaren egoitza elektronikoa argitaratzen da.</p> <p>6.bis.- Aldi berean, ingurumen-azterketa estrategikoa idatziko da, irismen-dokumentua kontuan hartuta. (Ingurumen-ebaluazioari buruzko Legearen 20. artikulua).</p> <p>8.bis.- Udalak 45 egun balioduneko epean bidaliko die espedientea eragindako administrazio publikoei, eragindako pertsonen, aurrez kontsultatutako pertsona interesduneri eta egoitza elektronikoa kontsultak egiteko. Informazio publikoak ingurumen-azterketa estrategikoa laburpen ez-tekniko bat izango du (Ingurumen-ebaluazioari buruzko Legearen 21. artikulua). Hala badagokio, ingurumen-azterketa estrategikoa aldatzea, kontsulten eta alegazioen arabera.</p> <p>10.bis.- Ingurumen-organok espedientearen azterketa teknikoa egitea eta bi hilabeteko epean ingurumen-adierazpen estrategikoa egitea (ingurumen-ebaluazioari buruzko Legearen 24. eta 25. artikulua). EHAAn eta ingurumen-organoren egoitza elektronikoa argitaratzea.</p> <p>11. bis- Ingurumen-adierazpen estrategikoa udalari bidaliko zaio.</p>
<p>13.- Udalak edo, hala badagokio, foru-aldundiak behin betiko onartzea, eta ALHAOn argitaratzea hirigintza-arauekin batera (2/2006 Legearen 89.5 eta 91.4 artikulua) ALHAOn argitaratzea eta egoitza elektronikoa: ingurumen-alderdiak nola txertatu diren (Ingurumen-ebaluazioari buruzko Legearen 26. art.) (Dekretuaren 7. art.).</p>	

Espedientea une honetan 2 eta 3 puntuen artean dago, beraz, prozeduran hurrengo urratsa da Tolosako HAPOko «1. San Esteban» hirigintza esparruko aldateta puntualaren aurrerapen-dokumentua eta hasierako dokumentu estrategikoa onartzea,

horiek jendurrean jartzea iradokizunak zein alternatibak aurkeztu ahal izateko eta, udal mugakideetara bidaltzea dokumentuak ezagutu eta proposatutako antolamenduaren oinarrizko alderdiei buruzko txostena egin dezaten.

Horrekin batera, ingurumen-ebaluazio estrategikoaren irismen-dokumentua egiteko eskaera aurkeztu behar zaio Eusko Jaurlaritzako ingurumen-organoari, hasierako dokumentu estrategikoarekin eta planaren aurrerapen-dokumentuarekin batera.»

LAUGARRENA.- Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta indarreko legeriak emandako eskumenak baliatuz, alkateari dagokiola obra-lizentziak emateko eskumena.

Aipatutako guztia aintzat hartuta, alkate honek honako hau

E B A Z T E N D U

LEHENA.- TOLOSAKO HAPOKO «11. SAN ESTEBAN» HIRIGINTZA ESPARRUKO ALDAKETA PUNTUALAREN AURRERAPEN-DOKUMENTUA ETA HASIERAKO DOKUMENTU ESTRATEGIKOA JENDAUUREAN JARTZEKO ERABAKIA HARTZEA.

BIGARRENA.- Adierazitako dokumentu horiek jendurrean jartzea bi hilabetez, epe horretan iradokizunak eta alternatibak aurkeztu ahal izateko, eta honen berri ematea GAO-n zein Berria, Diario Vasco eta Tolosaldeko Ataria egunkarietan. Halaber, interesdunen eskura jartzea Tolosako Udaleko iragarki-oholean eta egoitza elektronikoan.

HIRUGARRENA.- Aurrerapena udal mugakideetara (hau da, Alkiza, Hernialde, Anoeta, Irura, Billabona, Ibarra, Leaburu, Ikaztegieta, Alegia, Altzo, Legorreta eta Albiztur) bidaltzea, ezagutu dezaten eta proposatutako antolamenduaren oinarrizko alderdiei buruz txostena egin dezaten.

LAUGARRENA.- Ingurumen-ebaluazio estrategikoaren irismen-dokumentua egiteko eskaera aurkeztea Eusko Jaurlaritzako ingurumen-organoari, hasierako dokumentu estrategikoarekin eta planaren aurrerapen-dokumentuarekin batera.

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, izapide-egintza bat denez, ezin baita haren aurka errekurtsorik jarri, hargatik eragotzi gabe Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112.1 artikuluan xedatutakoa.

Alkateak agindu eta izenpetua, eta nik, idazkaria naizen honek, ziurtatua, Tolosan, sinaduran agertzen den datan.

ALKATEA

UDAL IDAZKARIA

Angel Martinez de Rituerto Arregui

Begoña Garmendia Vazquez

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

21. HONEN BERRI EMATEA: TOLOSAKO HAPOKO "20.1. AMAROTZ PAPER-FABRIKA" HIRIGINTZA AZPIEREMUKO 2.2 LURSAILEAN BIZITEGI ERRENTAMENDU IRAUNKORREKO ARAUBIDE OROKORREAN BABES PUBLIKOKO ETXEBIZITZEN SUSTAPENA AHALBIDETZEKO, "VIVIENDA DE SUELO DE EUSKADI S.A. - EUSKADIKO ETXEBIZITZA ETA LURRA EA" SOZIETATEAREKIN LANKIDETZA-HITZARMENAREN BEHIN BETIKO ONESPENA.

Tolosako Udalbatzak, 2022ko otsailaren 23an, Ohiko Osoko Bilkurak, besteak beste, erabaki zuen onartzea Tolosako Udalaren eta Visesa sozietate publikoaren arteko lankidetzahitzarmena, errentamendu araubide iraunkorreko babes publikoko 111 etxebizitza eraikitzeko Tolosako HAPOko «20.1-amarotz-paper fabrika» Hirigintza eremuko P-1 lursailean. Hori horrela, 2022ko apirilaren 4an, Tolosako Udalak eta VISESAk hitzarmen bat sinatu zuten, "20.1 Amarotz paper-fabrika" azpieroemuan bizitegi-erabilera garatu ahal izateko eta alokairuko babes publikoko 111 etxebizitza egiteko 2.1 partzelan.

Adierazitako hitzarmenaren seigarren klausulan aurreikusi zen jarraipen-batzordeak hitzarmen horretan ezartzen ziren eskakizunak eta baldintzak VISESA-k "20.1 Amarotz paper fabrika" azpieroemuan gauzatu behar dituen sustapenak garatzera zabal dadin ebaluatuko zuela, betiere babes publikoko etxebizitzak sustatzeko bazen. Beraz, klausula hori medio, jarraipen-batzordearen 2023ko urriaren 6ko bileran bi aldeek erabaki zuten hitzarmeneko eskakizunak eta baldintzak HAPBaren 2. Aldaketak VISESA-ren ardurapeko 2.2 partzelara zabaltzea eta hitzarmen berri bat sinatzea xede horretarako.

Adierazitako erabakia hartuta, Tolosako Udaleko erregistroan, 2024ko maiatzaren 17an, 2024-6570 sarrera-erregistro zenbakiarekin, Carlos Quindós Fernándezek honako eskaera hau egin zuen Vivienda y Suelo de Euskadi SA-ren (aurrerantzean VIVESAren) izenean:

«Tolosako Udalaren eta Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garrantzizko Sailari atxikita dagoen VIVESAren arteko lankidetzahitzarmena sinatzea, ondorengo xedearekin: 2.2 partzelan babes publikoko 81 etxebizitzaren eraikina sustatzea eta

eraikitzea, etxebizitzak errentamendu iraunkorreko araubidera bideratzeko asmoz>>.

Eskaera horren aurrean Tolosako udaleko Hirigintza, Obra eta Zerbitzu, Ingurumena, Mugikortasuna eta Trantsizio Energetikoko departamentuak 2024IHTP0009 espedienteari hasiera eman zion. Hala, espediente horren baitan hirigintza buruak, idazkaritzako teknikari juridikoak zein jarduneko kontu-hartzaileak aldeko txostena egin zuten; nahiz eta, bakoitzak bere baldintzak ezarri zituen.

Gauzak horrela, 2024ko uztailaren 19an, ez-ohiko lurralde batzorde informatiboan aho batez onartu zen eta, 2024ko uztailaren 24an, berriz, Udalbatzak, Ohiko Osoko bilkuran, besteak beste, honakoa erabaki zuen:

<<LEHENA.- HASIERAZ ONARTZEA TOLOSAKO HAPOk "20.1. AMAROTZ PAPER-FABRIKA" HIRIGINTZA AZPIEREMUKO 2.2 LURSAILEAN BIZITEGI ERRENTAMENDU IRAUNKORREKO ARAUBIDE OROKORREAN LAUROGEITA BAT BABES PUBLIKOKO ETXEBIZITZEN SUSTAPENA AHALBIDETZEKO, "VIVIENDA DE SUELO DE EUSKADI S.A.-EUSKADIKO ETXEBIZITZA ETA LURRA EA" SOZIETATEAREKIN LANKIDETZA HITZARMENA, honako klausula hauen arabera:

Lehenengoa. - XEDEA

Tolosako babes publikoko etxebizitzaren beharra asetzeko, lankidetzaz hitzarmen honen xedea da bizitegirako errentamendu iraunkorreko araubide orokorrean babes publikoko etxebizitzaren sustapena ahalbidetzea HAPBaren 2. aldaketak "20.1 Amarotz paper-fabrika" hirigintza azpierenmuko 2.2 partzela gisa izendatzen duen partzelan.

2.2 partzelan babes publikoko etxebizitzaren eraikina "VIVIENDA Y SUELO DE EUSKADI, S.A./EUSKADIKO ETXEBIZITZA ETA LURRA, E.A." sozietate publikoak sustatuko du. Sozietate hori Eusko Jaurkitzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari atxikita dago, eta eraikuntza-proiektuak egitea nahiz eraikuntza-obra egikaritzea hirugarrenei kontratatuko die lehiaketa publikoaren bidez.

Bigarrena.- TOLOSAKO UDALAREN KONPROMISOAK

Tolosako Udalak honako konpromiso hauek hartzen ditu:

- 1. "20.1- Amarotz paper-fabrika" azpierenmurako VISESAk planteatzen dituen antolamenduko (HAPBa) eta kudeaketako (HJPa) tresnen aldaketak, birpartzelazio-proiektua eta urbanizazio-proiektua izapidetu eta, bidezkoa bada, onestea.
Ildo horri eutsiz, egun Hirigintza Estandarrak Arautzeko Dekretu Proiektua izapidetzen ari dela kontuan hartuta, onetsi eta indarrean jarri ondoren, azpierenmurako zehaztapenak aplikaziokoak badira, HAPBaren egokitzapena onesteko konpromisoa hartzen du Tolosako Udalak, kasuan kasuko eta ulean-ulean, egikaritzear dauden sustapenetan VISESAk arauketa berria aplikatu ahal izateko.*
- 2. 2.2 partzelan (HAPBaren 2. aldaketako izena) sustatzen den etxebizitza bakoitzeko, VISESAri SEI MILA EURO (6.000 €) ordaintzea. Ordainketak partzelan garatu behar den sustapenaren gizarte-helburuari erantzuten dio, hau da, errentamendu iraunkorreko araubide orokorrean babes publiko etxebizitza egiteari, etxebizitza ekonomiaren ikuspegitik bideragarri izate aldera.
Partzela horretan sustatuko den gutxi gorabeherako etxebizitza kopuruagatik (81 BOE) gutxi gorabeherako guztizko zenbatekoa LAUREHUN ETA LAUROGEITA SEI MILA EURO (486.000 €) da.*

Tolosako Udalak onartuko duen konpromiso ekonomikoa gehienekoa eta gaindi ezina da, eta zenbateko hori ordaintzean iraungitakotzat joko dira erakundearen betebeharrak guztiak. Horrenbestez, Udalak ez du alokairu iraunkorreko etxebizitza babestuak sustatzeko, eraikitzeko, kudeatzeko, mantentzeko, eta abar egin beharreko beste edozein ordainketa osagarritan erantzukizunik izango.

Zenbatekoa ordaindu egingo da Tolosako Udalak VISESAri dagokion obretarako udal-lizentzia ematen dionean.

2. agiri gisa adierazitako partzelan egin nahi den sustapenari dagokion "ekonomia- eta finantza-azterketa" erantsi da.

3. Erabilera eta jabari publikoko espazioak jasotzea, HAPBaren 2. aldaketak eta "20.1-Amarotz paper-fabrika" azpieroemurako aldatu beharreko gainerako kudeaketa-tresnek zehaztutakoak.
4. Urbanizazio publikoko obra berriak jasotzea, HAPBaren 2. aldaketan eta/edo "20.1- Amarotz paper-fabrika" azpieroemurako urbanizazio-proiektuaren aldaketan aurreikusitakoak.
5. Etxebide-Etxebizitza Babestua Adjudikatzeko Zerbitzu Publikoarekin lankidetzan jardutea hitzarmen honen arabera sustatutako etxebizitzaren adjudikazio-prozeduretan, martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuan (babes publikoko etxebizitzaren araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzorua inguruko finantza-neurri buruzkoa) eta 2012ko urriaren 15eko Aginduan (etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa, abenduaren 26ko 210/2019 Dekretuaren bidez aldatutakoa) aurreikusitakoarekin bat.
6. Lehenbailehen eta ahalik eta prestasun handienarekin bideratzea eraikuntza-obren proiektuetarako beharrezkoak diren administrazio-baimenen emakida.
7. Instalazio, Eraikuntza eta Obren Udal Ordenantzaren 10.3 artikuluan zehaztutakoaren arabera, % 95eko hobaria ematea eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zergan (EIOZ) eremuan VISESAK eginiko obra berriko sustapenetan, babes ofizialeko etxebizitzetara bideratuta badaude (araubide orokorrekoak, araubide berezikoak eta gizarte-laguntzako etxebizitzak barne).

Horretarako, Udalak konpromisoa hartzen du Udabatzak obra horiek, sustapenen gizarte-inguruabarrak direla eta (babes publikoko etxebizitza), interes berezikotzat edo erabilera publikotzat deklaratzeko.

Halaber, Udalak konpromisoa hartzen du hirigintza-zerbitzu, obra-lizentzia eta beste zerbitzu tekniko batzuegatiko tasak arautzen dituen Ordenantza Fiskalean ezarritako gehieneko hobaria emateko, hitzarmenaren xede den sustapenean errentamendura bideratuko diren araubide orokorreko babes ofizialeko etxebizitzak eraikiko direlako.

Hirugarrena.- "VIVIENDA Y SUELO DE EUSKADI, S.A/EUSKADIKO ETXEBIZITZA ETA LURRA, E.A" (VISESA) SOZIEATE PUBLIKOAREN KONPROMISOAK

VISESA sozietate publikoak honako konpromiso hauek hartzen ditu:

1. Honako hauek idatzi eta Udalaren kontsideraziopean jartzea, izapidetu eta legearen arabera onets daitezzen: HAPBaren 2. aldaketa, HJParen aldaketak, birpartzelazio-proiektuaren egokitzapena, eta "20.1- Amarotz paper-fabrika" azpierzemuko birpartzelazio-proiektuaren aldaketa.
Ildo horri eutsiz, egun Hirigintza Estandarrak Arautzeko Dekretu Proiektua izapidetzen ari dela kontuan hartuta, onetsi eta indarrean jarri ondoren, azpierzemurako zehaztapenak aplikaziokoak badira, HAPBaren egokitzapena onesteko konpromisoa hartzen du VISESAK, kasuan kasuko eta unean-unean, egikaritzear dauden sustapenetan arauketa berria aplikatu ahal izateko.0}
2. Babes publikoko etxebizitzaren sustapena eta eraikuntza gauzatzea (HAPBaren 2. aldaketaren arabera, 2.2 partzela izenekoari dagokiona), hitzarmen honetan zehaztutako baldintzetan.
Halaber, "20.1 Amarotz paper-fabrika" azpierzemurako HAPBaren 2. aldaketan definitutako 2.2 partzelarako lotutako urbanizazioa.
3. Sustapenaren ondoriozko etxebizitzak (2.2 partzela) errentamendu iraunkorreko araubidera bideratzea.
4. Lehenbailehen eta ahalik eta prestasun handienarekin aurkeztea, izapidetu daitezzen, beharrezkoak diren eraikuntzako obra-proiektuen edo jardueraren administrazio-baimenak, lizentziak, eta abar emateko eskaerak.
5. Sustapena amaitzean sustapenaren emaitza egiaztatzea dagokion egiaztagiririkidazioa aurkeztuz. Hori horrela, likidaziotik ondorioztatzen bada Tolosako Udalak proiektua finantzatzeko ordaindu beharreko zenbatekoa hasieran erabakitakoa baino txikiagoa dela, udalari ateratzen den aldea itzultzea.

Laugarrena.- 2.2 PARTZELAN EGIN NAHI DEN ETXEBIZITZA BABESTUEN SUSTAPENAREN EZAUGARRIAK

- **Etxebizitza babestuaren tipologia**

20.1 Amarotz paper-fabrika" azpierzemurako HAPBaren 2. aldaketan 2.2 partzela gisa definitutako eremuan eraiki nahi diren etxebizitza guztiak babes publikokoak izango dira. Zehazki, araubide orokorreko babes publikoko etxebizitzak izango dira.

Eta etxebizitza guztiak errentamendu iraunkorreko araubidera bideratuko dira.

2.2 partzela horretako jarduketan sustatuko diren etxebizitzaren gutxi gorabeherako guztizko kopurua 81 etxebizitzetakoa eta haiei dagozkien eranskinetakoa izango da, dagozkion eranskinekin.

- **Hartzaileak eta adjudikazio-prozedura**

Alokairurako etxebizitza horiek adjudikatzeko sarbide-baldintzak eta -eskakizunak beteko dira (etxebizitza-premia, diru-sarrerak, errolda, gehieneko errenta-prezioak, eta abar).

Eskakizun horiek adjudikazio-prozedura abiaraziko duen Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren ebazpenaren bidez zehaztuko dira.

Aurrekoari kalterik egin gabe, alokairurako araubide orokorreko babes publikoko etxebizitzaren

adjudikaziodunek egiaztatu beharko dute Tolosan etenik gabe urtebetez (1) erroldatuta egon direla, erreferentzia gisa hartzen den egunean, edo 3 urtez erroldatuta egon direla, txandaka, azken 5 urteetan.

- **Kronograma**

2.2 partzelan egin nahi diren lanen gutxi gorabeherako kronograma 3. agiri gisa erantsi den kronograman definituta dago.

Aurreikusitako programazio-data horiek orientatiboak dira, baina aldaketak egon litezke VISESAren jarduketa-ahalmenetik kanpoko arrazoiengatik.

- **Etorkizuneko higiezinak eskualdatzea**

2.2 partzelan VISESAk sustatu beharreko etxebizitza eta lotutako garajeen sustapena amaitu ondoren, VISESAk etorkizuneko higiezin horien jabetza osoa edo azalera-eskubidea eskualdatu ahal izango dio Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari eta/edo Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren menpeko sozietate publikoari (ALOKABIDE SAU). Egoera edozein dela ere, bermatu beharko da etxebizitzak alokairura bideratuko direla hitzarmen honetan ezarritako baldintzetan. Hortaz, ezingo zaizkie eskualdatu sektore pribatuko erakundeei.

Eskualdatzea gauzatzen den unetik aurrera, hartzailea VISESAren lekuan subrogatuko da hitzarmen honetatik eratorritako eskubide eta betebeharrei dagokienez.

Bosgarrena. -JARRAIPEN-BATZORDEA

Bi aldeek beharrezkotzat jotzen dute hitzarmenaren jarraipen-batzordea eratzea. Batzorde hori alde bakoitzeko bi ordekarik osatuko dute, eta honako eginkizun hauek izango ditu: ezarritako aurreikuspenak eta konpromisoak betetzen direla zaintzea, horiek zorrotz betetzeko neurriak proposatzea, erreferentziako etxebizitza babestuen sustapenak egitean sor daitezkeen gatazkak eta/edo interferentziak konpontzea, sustapenen babes-erregimenak une bakoitzean dauden etxebizitza-premietara egokitzea eta/edo mailakatzea eta, oro har, etorkizunean sor daitezkeen gorabehera guztiei erantzutea.

Seigarrena. -ATZERA EGITEA

VISESAk atzera egin dezake hitzarmen honetan aurreikusitako sustapena gauzatzean, baldin eta, VISESAren iritziz, aurreikusitako sustapena ikuspegi tekniko eta/edo ekonomikotik gauzatzea bideraezina egiten duten inguruabarrak agertzen badira (konplexutasun teknikoa, ezusteko gastuak, kostuen igoera, eta abar).

VISESAk atzera egitea erabakitzen badu, Tolosako Udalarari jakinarazi beharko dio eraikuntza-obra hasi aurretik, eta ordura arte Tolosako Udalak eginiko ekarpenen guztizkoa itzuli beharko du.

Zazpigarrena. INDARRALDIA

Lankidetzeta-hitzarmenaren indarraldia lau urtekoa izango da, sinatzen denetik aurrera zenbatzen hasita. Aurreko atalean aurreikusitako epea amaitu aurretik edozein unetan, hitzarmenaren bi alde sinatzaileek berariaz adostu dezakete hitzarmena, gehienez, beste lau urtez luzatzea, edo hitzarmena iraungitzea.

Zortzigarrena. -BERRIKUSTEA

Hitzarmena edozein momentutan berrikusi eta, hala badagokio, aldatu daiteke aldeetako batek hala eskatzen badu eta bi alde sinatzaileek aho batez hala erabakitzen badute. Horretarako,

dagokion hitzarmenaren gehigarria sinatu beharko dute<

Bederatzigarrena.- EZ-BETETZEAK

Dokumentuan jasotzen diren betebeharrak ez betetzea hitzarmena suntsiarazteko uzteko arrazoiak izango da, eta aldeak hasierako egoera juridikora itzuliko dira. Gainera, hitzarmena suntsiaraztea eragin duen aldeak sortu diren kalte eta galera guztiak ordaindu beharko ditu, bai beste aldeari bai fede oneko hirugarrenei”.

BIGARRENA.- Hitzarmenaren behin betiko onespena, 7/2024 kredituak aldatzeko espedientea behin betiko onartzearen baldintzari lotzea.

HIRUGARRENA.- Tolosako Udalaren diru-ekarpena honako baldintzekin ere lotzea:

- VISESAk eraikiko dituen etxebizitzaren izaera aldaezina izango da, sustapen publikoko alokairuko etxebizitza sozialak izango direlarik.
- Etxebizitzaren jabetza kasu guztietan euskal sektore publikoaren esku egongo da eta ezin izango zaizkio sektore publikoari eskualdatu.

LAUGARRENA.- VISESAk bultzatuko duen bizitegi errentamendu iraunkorreko araubide orokorrean laurogeita bat babes publikoko etxebizitzaren sustapena, sustapenaren beraren zirkunstantzia sozialak direla-eta, udal onurakoa izendatzea eta, hala, Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga arautzen duen Ordenantza Fiskalaren 10.3 artikulua araututako % 95eko hobaria aplikatzea.

BOSGARRENA.- Alkate-Udalburuari ahalmena ematea aipatutako hitzarmena, eranskinak eta hauek egikaritzeko beharrezkoak diren dokumentu guztiak izenpetu ditzan.

SEIGARRENA.- Hitzarmena argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, udaletxeko iragarki taulan, web orrian eta gardentasun atarian.

ZAZPIGARRENA.- Xedatzea ulertuko dela jendaurrekoan alegaziorik aurkeztu ezean eta, beti ere, 7/2024 kredituak aldatzeko espedientea behin betiko onartuta, hitzarmena behin betikoz onartu dela.

ZORTZIGARRENA.- Erabaki hauek VISESA erakundeari jakinaraztea>>.

2024ko abuztuaren 9an, VISESAri Udalbatzak hartutako erabakia jakinarazi ziztaion.

Hala, jendaurrekoari paso emanez, 2024ko abuztuaren 30ean iragarkia GAO-n (167 zk.) argitaratu zen eta, beraz, iragarkia udaletxeko-taulan egon zen 2024/09/02-2024/10-02 bitartean. Halaber, 2024ko irailaren 2an, iragarkia web orrian ere argitaratu zen. Informazio publikoko epearen amaiera 2027/10/02an izan zen.

2024ko urriaren 7an, hirigintzako tekniko juridikoak jendaurrekoari buruzko txostena (MAU24126) egin zuen eta adierazi zuen jendaurrekoan ez zela alegaziorik aurkeztu eta 7/2024 kredituak aldatzeko espedientea behin betikoz onartuta eta artxibatuta zegoela. Beraz, baieztatu zuen aintzat harturik Udalbatzak 2024/07/24an, Ohiko Osoko Bilkuran, hartutako erabakiaren zazpigarren puntuan jasotakoa (“xedatzea ulertuko dela jendaurrekoan alegaziorik aurkeztu ezean eta, beti ere, 7/2024 kredituak aldatzeko espedientea behin betiko onartuta, hitzarmena behin betikoz onartu dela”), **ulertzen dela behin betikoz onartu dela Tolosako HAPOko “20.1. Amarotz Paper-Fabrika” hirigintza azpierzemuko 2.2 lursailean bizitegi errentamendu iraunkorreko araubide**

orokorrean babes publikoko etxebizitzen sustapena ahalbidetzeko, “Vivienda y Suelo de Euskadi S.A.-Euskadiko Etxebizitza eta Lurra EA” sozietatearekin lankidetzaren hitzarmena.

Adierazitako txosten juridiko horretan oinarriturik, 2024ko urriaren 10ean, udaleko Idazkariak jendaurrekoari buruzko ziurtagiria egin zuen.

Amaitzeko, 2024ko urriaren 9an, Vivienda y Suelo de Euskadi SAK, Carlos Quindós Fernándezek ordezkaturik, lankidetzaren hitzarmena sinatzeko azken pausu gisa, udalean «Vivienda y Suelo de Euskadi, S.A. - Euskadiko Etxebizitza eta Lurra, EA» (Visesa) sozietatearen izaera publikoa justifikatzen duen dekretuaren (2023/06/19an EHAOn argitaratua) berri eman zuen. Zehazki, honakoa jakinarazi zuen:

81/2023 DEKRETUA, ekainaren 6koa, zeinaren bitartez Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari baimena ematen baitzaio «Vivienda y Suelo de Euskadi, S.A. - Euskadiko Etxebizitza eta Lurra, EA» (Visesa) sozietate publikoaren akzioak erosteko.

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

22. 10/2024 KREDITU-ALDAKETAREN BERRI EMATEA, KREDITU GEHIGARRIEN MODALITATEAN.

2024/10 kreditu gehigarrien modalitateko kreduditu aldaketaren berri eman da.

2024/2283 Alkatetza dekretuak honela dio:

ALKATETZA DEKRETUA

ANGEL MARTINEZ DE RITUERTO ARREGUI Tolosako Udaleko alkate-udalburuarena, bat etorrita Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 artikuluan ezarritakoarekin.

IKUSIRIK

Tolosako Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko 10/2024 espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa. Honek, ondoko taulako xehetasuna dauka:

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 1300.421.10.162.20 2024	EKARPENA TOLOSALDEKO MANKOM. HONDAKINEN	169.320,00	50.000,00	219.320,00
1 0600.227.07.151.10 2024	AZTERKETA ETA LAN TEKNIKOAK.HIRIGINTZA	80.000,00	19.500,00	99.500,00
1 0700.227.07.153.00 2024	AZTERKETA ETA LAN TEKNIKOAK.OBRATAKO ADM	30.000,00	30.000,00	60.000,00



Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0300.131.01.241.00 2024	ALDI BATERAKO LABORALA. ENPLEGUAREN SUST	257.378,00	14.468,00	271.846,00
1 0300.160.01.241.00 2024	GIZARTE SEGURANTZA. ENPLEGUAREN SUSTAPEN	104.047,00	4.890,00	108.937,00
1 0100.226.99.912.00 2024	BESTE ZENBAIT GASTU.GOVERNU ORGANOAK	18.000,00	12.000,00	30.000,00
1 0700.227.07.311.00 2024	AZTERKETA ETA LAN TEKNIKOAK.OSASUN PUBLI	32.500,00	15.000,00	47.500,00
1 1300.226.08.172.00 2024	INGURUMEN JARDUERAK. INGURUMENA	58.000,00	11.500,00	69.500,00
1 0400.221.99.133.10 2024	BESTELAKO HORNIDURAK. ZIRKULAZIOA ETA APA	12.600,00	8.000,00	20.600,00
1 0800.226.06.338.00 2024	JARD.SOZIO KULTURALAK.JAIK	537.900,00	4.000,00	541.900,00
1 0600.226.99.151.10 2024	BESTE HAINBAT GASTU.HIRIGINTZA	9.000,00	6.300,00	15.300,00
1 1400.211.01.231.61 2024	EDIFIZIOEN MANTENUA. EMAKUMEEN ETXEA	8.000,00	11.200,00	19.200,00
1 0800.629.01.326.20 2024	BESTELAKO INBERTSIOAK	0,00	6.000,00	6.000,00
GUZTIRA		1.316.745,00	192.858,00	1.509.603,00

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 870.01 2024	DIRUZAINNTZA GERAKINA. GASTU OROKORRAK	192.858,00
FINANTZAKETA GUZTIRA			192.858,00

KONTUAN HARTURIK

Kontu-hartzaileak idatzitako txostena, non adierazten den espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.

Aipatutako Foru Arauak 34.3 artikulua bitartez ematen dizkidan eskumenez baliatuz, hau

EBAZTEN DUT

LEHENA.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

KREDITU GEHIGARRIAK

Kapituluak	Izena	Gehikuntzak
1	PERTSONAL GASTUAK	19.358,00
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	117.500,00
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	50.000,00
6	INBERTSIO ERREALAK	6.000,00
KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA		192.858,00

FINANTZAKETA

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
8 (SARRERAK)	FINANTZA AKTIBOAK	192.858,00
GUZTIRA		192.858,00

BIGARRENA.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzaitza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa, eta egintza honen berri Udaltzari eman beharko zaio egiten duen hurrengo bilkuran.

Alkateak agindu eta izenpetua, eta nik, idazkari naizen honek, ziurtatua, Tolosan, sinaduran agertzen den datan.

ALKATEA

UDAL IDAZKARIA

Angel Martinez de Rituerto Arregui

Begoña Garmendia Vazquez

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

23. 11/2024 KREDITU-ALDAKETAREN BERRI EMATEA, KREDITU GAIKUNTZAREN MODALITATEAN.

2024/11 kreditu gaikuntzaren modalitateko kreduditu aldaketaren berri eman da.
2024/2346 Alkatetza dekretuak honela dio:

ALKATETZA DEKRETUA

ANGEL MARTINEZ DE RITUERTO ARREGUI Tolosako Udaleko alkate-udalburuarena, bat etorrita Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 artikuluan ezarritakoarekin.

IKUSIRIK

Tolosako Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gaikuntzaren modalitatekoa, 11/2024 kreditu aldaketa.

Kontu-hartzaileak idatzitako txostenaren arabera espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.

Aipatutako Foru Arauak 34.3 artikulua bitartez ematen dizkidan eskumenez baliatuz, hau

EBAZTEN DUT

LEHENA.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gaikuntzaren modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

GASTUAK

Kap.	Izena	Euroak
1	PERTSONAL GASTUAK	34.860,00
GAITUTAKO KREDITUAK GUZTIRA		34.860,00

SARRERAK

Kap.	Izena	Euroak
4 (SARRERAK)	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	34.860,00
FINANTZAKETA GUZTIRA		34.860,00

BIGARRENA.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzailtza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa, eta egintza honen berri Udalbatzari eman beharko zaio egiten duen hurrengo bilkuran.

Alkateak agindu eta izenpetua, eta nik, idazkari naizen honek, ziurtatua, Tolosan, sinaduran agertzen den datan.

ALKATEA

UDAL IDAZKARIA

Angel Martinez de Rituerto Arregui

Begoña Garmendia Vazquez

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

24. GALDERAK ETA ESKAERAK

Besterik gabe, 20:33ean, bilera bukatutzat eman dute, eta nik, idazkaria naizen honek, hori guztia ziurtatzen dut, alkateak ontzat emanik.

ALKATEA
O.e.

IDAZKARIA



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2024IPLE0013-2024/10/31ko akta/2024/10/31ko akta ()